

NIK ERE BADAKIT
HILTZAILE IZATEN

Xabier Amuriza

Atsegin on bat
hartuko dutela
badakidan batzuei.

AURKIBIDEA

Agripina	3
Julio Zesar.....	9
Kleopatra.....	25
Alexander Handia.....	34
Karlomagno.....	49
Inozentzio IV.a Aita Santua.....	56
Gaztelako Isabel I.a.....	61
Frantziako Luis XIV.a.....	67
Errusiako Katalina II.a.....	75
Arthur Ingel.....	83
Historialari, pentsalari eta lari guztiak....	89

AGRIPINA

- Ni, Agripina.
- Zu zara, beraz...
- Erromatar Inperioko emakumerik inportanteena.
- Izatea ondo dago, baina norberak esan! –hots egiten dut.
- Zer dago txarto? Alderantziz legoke arazoa.
- Zein da zure izate horren funtsa?
- Augustoren birbiloba, Tiberioren biloba, Germanikoren alaba, Kaligularen arreba, Klaudioren iloba eta emaztea, Neronen ama.
- Zerrendan ez al dira batzuk falta, adibidez, Galba?
- Ez dakit zergatik aipatu behar nuen hori –muzintzen Agripina.
- Ez al zinen berarekin katigatzen saiatu? Nahiko lotsagabeki, gainera?
- Ez nuen ezer galdu! –Agripinak, katu-keinu zimurrez.
- Zerbait usnatu zenuen, gero enperadore izango baitzen, zazpi hilabetez.
- Zazpi hilabetez bakarrik? –espantu Agripinak, benetako ezustean.
- Asasinatu egin baitzuten.
- O! Eskerrak aurretik hila nintzen! –Agripinak alibioz–. Bestela, hura ere neuri ezarriko zidaten.
- Mesalina ere ez duzu aipatu –kinatzen dut.
- Klaudioren emaztea, nire aurretik.
- Zure aurretik ala zuk aurretik «kendua»?

O, Mesalina ederra! –Agripina mintzo–. Dena niri egozten ohituta zeudenek zurea ere egotzi gura izan zidaten, baina, zeure zorigaitzerako, inor ez zenuen behar zeure destinoa erakartzeko. Aitor dut eragin itzela izan zenuela zeure senar Klaudioren erabakietan, helburu pertsonaletatik kapritxo guztietaraino, exekuzioak barne. Hain zinen ederra, gajoa! Klaudio itsu zegoen zutaz.

- Barka, Agripina! Zeu al zara hori guztia dioena?
- Utzidazu jarraitzen, mesedez!

Edertasunari –Agripina mintzo– maila batetik gorako inkontinentzia gehitzen badiozu –ninfomania, garbi esanda–, nahasten zara Erromako nobleekin, soldaduekin, aktoreekin, gladiatoreekin, eta begira datozen guztiekin. Pentsa noraino, Mesalina errukarri! Zeure laszibiaz harro, Erromako prostituten gremioari erronka inauditoa jaurti zenien: zeinek gizon gehiago hartu gau batean. Zeure jauregian antolatuko zen lehia, eta zuk, parte hartzera deitu.

Agripina isildu da, baina badakit zer darabilen buruan. Prostitutek erronka onartu zuten eta ordezkari bat bidali: *Eszila* izeneko siziliar bat, Erromako prostitutarik ospetsuena. Izena bera ere Homerok Odisean aipatu munstro femenino batena. Gau hartan, *Eszila*, 25 gizonen hartua izan ondoren, errenditu zen. Eta Mesalina irabazle atera, kopuru hura gainditua baitzuen egunsentian, eta oraindik jardunean jarraitzen. 70 gizon harturik ere ez ei zen asetzen, 200 gizonen kopuru sinesgaitzeraino iritsiz. Hainbeste gizon al zeuden Erroman halako premiarekin? *Eszilak* esan zuen Mesalinaz: «Emakume dohakabe honek altzairuzko erraiak dauzka».

Okerrena egin zenuen, Mesalina muga gabeko horrek –beronen zerbitzu-neska bat mintzo–, Klaudio Erromatik kanpo zela, zeure maitale Kaio Silio kontsularekin ezkondu. Asmoa pentsa daiteke zein zen: enperadorea paretik kendu eta zeure senar berria tronuratu. Bere emaztearen bigamia eta bere kontrako trama jakinarazi zioten Klaudiori, eta honek maitale biak, zu eta Kaio Silio, suizidatzera kondenatu. Bada hori ere kondena modua gero!

Zuk, Mesalina, ez zenuen kemenik izan puñala behar bezala sartzeko, eta zaintzaile zegoen zenturioiak ezpataz dekapitatu zintuen. Eta ni, zure zerbitzu-neska errukarri, geratu nintzen nor zerbitu gabe. Eta zure bihotzak hartu ezin izan zuen puñala nire bihotzean sartu zen. Zeren zuk eta nik, Mesalina –hau ez zuen jakin inork–, samurtasun handiak gozatu genituen ezkutuan. Delizia bat zinen!

- Ikusten duzunez –eransten Agripinak–, nire bitartekotzarik ez zen behar ezertarako.
- Kasualitatea –diot– zeu izatea Klaudioren hurrengo emaztea!
- Ni Klaudioren iloba nintzen eta Kaio Salustio kontsularekin ezkontuta nengoen.
- Kaio hori, handik laster, pozoiturik hil zen. Beste kasualitate bat?

Kasualitate kateatuek ziurtasun bat osatzen ei dute. Agripina Klaudioren iloba zen. Klaudioren anaia Germanikoren alaba. Hamahiru urte bakarrik zituela, Kneo Domizio erromatar kontsularekin ezkondu zen. Hain ezkontza arraroa izan zen ezen Kneo Domiziok esan baitzuen: «Agripina eta ni batzetik munstro bat bakarrik atera daiteke». Iragarpen hartatik 9 urtera, Luzio Domizio jaio zen, Neron enperadorea izango zena. Agripina, 25 urterekin, alargun gelditu zen. Salbuespen modura, bere senar Kneo berez hil zen, edema batekin.

– Kaligulak, traizioz akusaturik –Agripina mintzo–, heriotzara kondenatu ninduen, baina nire zorionerako, bera hil zen lehenago.

Eta Agripina –diot nik– exekuziotik libratu. Esan bezala, ordea, handik laster, eta ohikoaren salbuespen modura, Kneo Domizio edema batekin hil zen. Seguruenik, Agripinak badaki zerbait edema hartaz, baina ez diot galdetuko, ongi baitago sistema hartan gertatzen ziren salbuespen bakanak halakotzat gordetzea.

- Eta zure neba Kaligula –tentatzen dut– enperadore bilakatu zen.
- Bai! –Agripinak, irribarre ez oso zintzo–. Ni eta nire bi ahizpak, Julia Drusila eta Julia Libila, zenbait pribilegio gozatzen hasi ginen. Baina nire nebaren arreba kutuna Drusila zen. Hau Longinorekin ezkondu zegoen, baina hiru urtera banatu zen, Kaligula enperadorearen bitartekotzaz. Hala zioten, eta ziur naiz, Drusila Kaligularen maitale kutuna zela.
- Kaligularena? Arreba bat nebaren maitale kutun? –txunditzen naiz.
- Bai! –Agripinak–. Eta hiru urte geroago, nire ahizpa Drusila berriz ezkondu zen, bere lehengusu Marko Lepidorekin. Marko honetaz zioten Kaligularen maitalea zela eta beronen eskariz ezkondu zela Drusilarekin.
- Ene aingeruak! Lagundu, arren! Galtzen ari naiz –diot bat ere gezur gabe.
- Galtzen non? Neuk ere izan nituen, ezkondua nintzela, harreman sexualak nebarekin. Eta beste gortekide batzuekin, nire bi ahizpek bezala, hauek ere ezkonduak.
- So! Goazen emekiago. Ez da erraza sare hori guztia kontatu ahala jarraitzea.
- Erroman oso jakina zen barren! –Agripinak–. Ohikoa. Okerrena izan zen Drusila gajoa, Kaligularen arreba kutuna, hil egin zela. Orduan, enperadorea gaixotasun mental bat pairatzen hasi zen, eta ni ere neure nebaren faborea galtzen.
- Faborea galtzen hasi eta Klaudio enperadorearen emazte bihurtu?

Igarri dut Agripinari lerratze hori kontatzeak hozkia bezalakoa ematen diola. Lagunduko diot. Agripinak jarraitu nahi zuen pribilegioak gozatzen, orain Kaligula nebak ematen ez zizkionak. Hala, bere maitale Tigelinorekin, Lantulo Getulikorekin, bere ahizpa gazte Libilarekin, eta bien maitale eta koinatu alargun Marko Lepidorekin, Kaligula derrokatzea planeatu zuen. Denen zoritxarrerako, konspirazioa deskubritua izan zen, eta enperadoreak Lepido eta Getulikoren heriotza agindu zuen, eta bere bi arreba eta Tigelinoren deserria, epaiketa baten ondoren. Agripinak bere seme oraindik mutikoa, Neron izango zena, Erroman utzi behar izan zuen, izeba baten ardurapean.

Agripinak –dio bere ahizpa Libilak– erbestea umiliazio publiko batekin hasi behar izan zuen: bere maitaleetako baten errautsak eskuetan zituela joan behar izan zuen Pandatariara. (Gaur Ventotene). Kilometro karratu eta erdiko uharte koxkor bat, Tirreno itsasoan. Bere zorionerako, Kaligula laster izango zen eraila, konspiratzaile mordo baten 30 puñalkadaz.

– Agripina! –hots egiten diot, lo plantan bera–. Zerorrek ez al zenuen zerikusirik izan zure neba Kaligularen hilketan?

Galdera ez zaio batere gustatu.

Historia da –neure kontura jarraitu beharko–, Kaligula hilda, Agripina Erromara itzuli zela, bere osaba Klaudiok deiturik. Bere seme Neronen alde borrokatu behar zuela tematurik, Agripina berriz ezkondu zen, dirua behar baitzuen gorte inperialean mantentzeko. Norekin ezkondu? Pasieno Krispo izeneko milionario batekin. Aberatsa bezain saskarra. Hau laster hil zen. Zergatia susmatzen ez dago zail. Zurrumurru guztien arabera, bere emazte Agripinak pozoitua.

Kaligularen ondoren, Klaudio bilakatu zen enperadore. Agripina, berriro alargun zegoena, Klaudiorengana hurbiltzen hasi zen –dio beste bere zerbitzu-neska batek–, gero eta era intimoagoan. «Nora zoaz, Agripina?», pentsatu nuen beldurrez –dio zerbitzu-neskak–. Eta Klaudiok, gorago aipatu duzuen bere emazte Mesalinaren infidelitasuna jakin zuenean, hots, Agripinak jakiteko bidea egin zionean, hura exekutatzea eta Agripinarekin ezkontzea erabaki zuen. Ez dakit nola –jarraitzen zerbitzu-neskak–, Agripina azkenean, jokaldi arriskutsu guztietan, beti irabazle ateratzen zen.

– Baina zu, Agripina, Klaudioren iloba zinen! Germaniko zure aita Klaudioren anaia zen!

– Zer egin behar nion enperadore baten eskariari?

– Eskaria ala zeure sedukzioa?

– Non dago ezin-uztartua? –galdetzen Agripinak, benetan.

– Osaba-iloben arteko ezkontza –gogoratzen diot– ilegala eta intzestuzkoa zen Erromako legean.

– O! Hori laster konpondu zuen Senatuaren akordio berezi batek.

– Eta zure azpi-eraginak?

– Hori ere aurreko elementu juridikoen artean doa. Erroman, gorputza era inteligentean entregatzen jakinez gero, zernahi lortzen ahal zenuen.

Bai, nonbait, ze Agripina bere osaba enperadorearekin ezkondu zen. Lorpen horrek beste lorpen handi bat ekarri zuen, bere trebetasun limurtzailea bide. Klaudiok bi seme-alaba izan zituen Mesalinarekin: Oktabia eta Britaniko. Klaudioren ondorengo enperadorea, beraz, Britaniko izango zen, Erroman oso ondo kontsideratua bera. Baina Agripinak lortu zuen bere seme Neron Oktabia arreba-ordearekin ezkontzea. Hori ere ez zen oso legezko Erroman, baina Agripinaren trikimainak arrakasta izan zuen. Baita lortu zuen «enperatriz Augusta» titulua ere. Eta beste hainbat ohore eta pribilegio. Hala, apurka eta bihurki, lortu zuen bere seme Neron ondorengotzat onartua izatea Klaudioren aldetik, honen seme biologiko Britanikoren orde. Hori guztia lortuta, errematea falta zen: Klaudio akabatu. Afari batean, agindu zuen bere senarrari janarazteko platerkada bat perretxiko, tartean oso ale pozoitsuak zirela. Goian bego! Batzuek diote ez dagoela froga historikorik, baina Agripinaren historialean dena da sinesgarri. Galdetu diodanean, doi-doi erantzun du:

– Egin banu bezala gertatu zen.

– Eta nolakoa izan zen Klaudio, gorago aipatu duzun «gorputza era inteligentean entregatzearen» kontu horretan?

– O! Ez zuen lan handirik ematen –Agripinak, barrea puztuz–. Hark jan-edana maite zuen, eta nik hortik ematen nion lehen asean. Gero ohean, aroltasun bertan beherako bat zen. Igurtzi lorrin batzuk egitea nahikoa zuen zurrungan hasteko. Korritu ere egiten zen, baina bera ez zen konturatzen. Batzuetan nahi izaten nuen sobrietate argian jardun zedin, maite nuela pentsa zezan. Orduan dortoka bat gainera etortzea bezala zen.

Klaudio hilda, Neron enperadore izendatua izan zen, 16 urterekin. Agripina bere seme oraindik gazteegiaz baliatu zen Erroma gobernatzeko.

– Semearekin ere harreman sexualak izan ei zenituen –jaurtitzen diot.

– Denerako prestaturik egon zedila nahi nuen –Agripinak lasaiki–. Hainbeste mari-musker zebilen Erroman!

– Zeure seme-orde Britaniko ere «maneiatu» ei zenuen.

– Hark ere prestakuntza berdina behar zuen. Mutil noblea eta gozoa zen!

– Mutila eta ala mutikoa? Hamalau urte egin bezperan hil baitzen.

– Bai, gizajoa!

– Gizajoa... pozoiturik hil zen. Badakizu nola, ezta?

– ...

– Zer diotsu *Lokusta* izenak?

– Esklaba gajo bat.

– Ala zure agindupeko «pozoitzaile» esanekoa? Klaudio senarra bezala, Britaniko zure seme-orde «gozoa» ere berak pozoitu zuen, oturuntza batean. Eta egun batzuk aurretik, *Sosidio*, mutikoaren tutorea.

– Gauza batzuk ez dira norberak zuzenean egitekoak –aitortzen du, arrazoiaren sufizientzia tonuan.

– Agripina! Gauza izango al zinateke kontatzeko zenbat izan ziren zure aginduz pozoituak?

– Izan gabeak ere neuri ezartzen zizkidaten.

– Fama hori edukitzeko, oinarri erreala ere dezentea behar da, e!

– Britanikorenaz damutu nintzen.

Ez, Agripina! –saltatzen du bere ahizpa Libilak–. Zure damua ez zen morala, baizik Britanikoren hilketaren ondoren, zure eragina nabarmenki jaitsi zela. Eta batik bat, geroz gaitziago zintuen seme Neronek jauregi inperialetik bota zintuela.

Beste motibo askoren artean, Neronek bere amaren maitale bat asasinatu zuen, Aulo Plauzio, susmatu baitzuen ezen amak, Agripinak, gazte harekin ordezkatu nahi zuela bera. Neron zulora eta Aulo tronura. Erroman zabal zebilen Neronek, Auloren bizia erabat amaitu aurretik, felazio bat eginarazi ziola, esanez: «Orain betor nire ama eta eman deiola musu nire ondorengoari».

– Agripina! Horrenbesteko deprabazioan bizi al zineten Erroman?

Aurpegia albo-atzerantz makurtu zaio, bere estatua batean bezala. Estatuek ez dute hitzik egiten.

– Agripina! –ia oihiu egiten dut–. Gogo baten hondoraino murgiltzen saiatuta ere, buruak ez dit ematen nola seme batek erabaki dezakeen bere ama hiltzea.

– Ene semea! –Agripinak hasperen–. Obsesioen gaitzak jo zuen. Amesgaitzak egiten hasi zen, eta...

– Eta?

– Popea Sabina! Ez dakit badakizun –Agripinak–, baina, ni gaiztoa banintzen, hura satanikoa zen.

Zerbait badakit, bai. Popea Sabinak bere amaren edertasuna heredatu zuen, Erromako ikusgarrienetakoa. Eta enperatriz eta Augusta izatea lortuko zuen. Lehenik Rufrio Krispinorekin ezkondu zen eta seme bat izan zuen. Gero Otonekin ezkondu zen, eta honek –harrigarria!– Neron enperadorearen maitale izatea konsentitu ez ezik, berak bultzatu zuen hartara, hiruren intereserako. Neron, bere lagun Otonen etxeko afari batean, itsuki maitemindu zen Popeaz, eta erabaki zuen berau izatea bere maitalea. Popea geroz eragin handiagoa hartuz zihoan enperadorearengan, hainbestean ezen Neron konbentzitu baitzuen honen ama Agripinaren hilketa agintzeko. Eta lortu zuen. Neronek bere ama traizioz inkulpatu eta erail zezatela agindu zuen.

Baina Popeak bazuen beste aurkari bat: Neronen emazte Klaudia Oktabia. Popeak enperadoreari proposatu zion dibortziatzea, Oktabia erbesteratzea eta haren exekuzioa agintzea. Eta hori ere lortu. Hala, Neron eta Popea ezkondu ziren, eta berau izan zen Erromatar Inperioko enperatriz berria. Popeak, hain eder eta ederzale izanik, eder-metodo berriak ezarri zituen, hala nola astemearen esnetan bainatzea. Aurreko enperatriz guztiek bezala, bere aginpideaz abusatu zuen, azpijana eginez. Adibidez, Neron haurraren tutore izana zen Senekaren aurka, zeina gero Neronek suizidatzera behartu baitzuen.

– Suizidatzera «behartu»? –ikaratzen naiz.

– Ohiko era bat Erroman –Agripinak–. Hilketa baten erantzule agertzea saihestuz, akusatua bere buruaz beste egitera kondenatzen zen. Horretarako kemenik ez zutenen kasua zaintzailearen ezpatak erabakitzen zuen.

Popeak eta Neronek haur bat izan zuten, Klaudia, lau hilabeterekin hil zena. Popea berriz haurdun gelditu zen. Behin, Neronek, mozkorturik, ostikada bat eman zion sabelean, eta Popeak abortua izan zuen. Eta bera ere, Popea, bertan hil. Enperadorea, damaturik, hainbestean obsesionatu zen ezen Esporo esklaboarekin liluratu baitzen, honen fisikoa Popearen oso antzekoa zelako. Neronek «ene Popeatxo» deitzen zion, eta agindu zuen esklaboa irentzeko eta emakume bezala jantzi zedila. Laburki, Popea Sabinaren iritsiera Agripinaren azkena izan zen.

– A zer hirukoa! Mesalina, Agripina, Popea Sabina.

– Ez ni sar konparazioetan! –Agripinak suminez.

– Baina kontsola zintezke zeure azkena kontatuz.

– Kapritxo hori behar duzu?

Lehenik –Agripina mintzo–, Popea Sabina behin baino gehiagotan saiatu zen ni pozoitzen. Ez zuen lortu, ze nik, semearen eta errainaren asmoak susmaturik, pozoï-dosi txiki bat hartzen nuen egunero, immunizaturik egoteko. Gero, Neronek nire logela eraistea ideiatu zuen, barruan lo nengoela, baina hori ere deskubritu nuen. Gero, bere eta nire arteko harreman txarra baliatuz, itsasontzi batera gonbidatu ninduen, «bakezkoak egiteko». Onartu nuen, baina ni erne. Berriz deskubritu nuen Neronen asmoa: ontzia hondoratu, ni barruan nintzela. Barruan nengoen, baina operazioa hasi zenean, igerian ihes egin nuen. Desesperaturik, Neronek konjurazio faltsu batez akusatu eta exekutatu egin ninduen.

– Agripina! –hots egiten diot dardaran–. Gaizkiaren gorenean ere, ezin dizut ukatu erruki-tanta bat.

– Errukia ez zait inoiz interesatu! –Agripinak garratz.

– Milesker! Asko laguntzen didazu aurretiko sentimenduen posizioari eusten. Egia al da astrologo batek, zure haur Neronez kontsultaturik, iragarri zizula: «Errege izango da, baina bere ama hilko du»?

– Eta nik erantzun: «Hil nazala, agintzeko bada».

– Asmatu zenuen!

– Odolean bainekarren marka –Agripinak–. Tiberiok hil zuen gure aita, Germaniko jeneral ospetsu eta zintzoa, eta eragin zuen gure ama Agripinaren heriotza, Pandataria uharteko deserrian goseak hilaraziz. Gure amak ere Agripina zuen izena.

– Andere! Erroman inork ez al zekien berez hiltzen?

– Salbuespen batzuk ezagutu nituen. Gehienak garrantzi txikikoak.

– Utziko al zenidake zure senblantza labur bat egiten?

– Uste al duzu dagoeneko ezerk ardura didala?

Honela osa daiteke deskribapena: nortasun krudel, emakume oso anbiziotsu, azpijale, libertinajea gainez, maltzur, estafatzaile, gizon «gaiztoenganako» joera obsesiboa, inguruko plazer guztien zurrupatzaile goren, konspirazioan eta bere interesetan ezin gailenago, eta bere helburuak lortzen ahal guztiak eta era guztietakoak egingo zituen. Tazito erromatar idazleak era bigunean laburtuko zuenez: «Gaitasun guztiak zituen, zintzotasuna izan ezik».

– Ez nauzu gehiegi iraindu –Agripinak burlaz.

Batzuek diote bere amagandik jasotako edertasunak eragin zuela haren nortasun fatala. Haren ama, Agripina izenekoa bera ere, edertasunaren ideala izan zen. Alaba ere, gure Agripina, bazen zerbait, bere begi handi eta zutabe erako ile kizkurrez. Bazuen sudur luze eta mako bat, kanon ideala jaisten zuena. Hala ere, behin zintzoki aitortu zuen sudur harixe zor ziola bere arrakasta nagusia. Hagin estra bat ere bazuen, eskuin matrailaren goi aldean. Umetan kezkatu ei zuen, baina gero ikasi zuen disimulatzen. Maitaleren bat ikaratu nahi zuenean, aski zuen hagin hura erakutsi eta esatea: «Hau heurtzat gordea diat».

– Agripina! –jasotzen dut tonua–. Zure historiaren laburpen txikiegi hau ezin dut amaitu galdera delikatu bat egin gabe.

– Ez didazu galdetuko umiliatuko nauen ezer.

– Garaiko idazleek diote, zure seme Neronen borreroak zu erailtzeko ezpata jaso zuenean, esan zeniola: «Emaidak ostiko bat bera sortu zen sabelean».

– Izatez, berak horrelaxe eragin zuen bere «Popeatxo»-ren abortua. Eta heriotza! Baliteke nik hori esatea, baina ezin dut gogoratu, lehen ezpatakadan hil bainintzen.

– Oker zaude, Agripina.

– Bigarreanean orduan.

– Ez bigarreanean, ez laugarrenean. Neuk hilko zaitut!

– Zuk hil ni? Zergatik?

– Neuk ere badakidalako hiltzaile izaten.

– Nola baina, hila banaiz aspaldi? Historian...

– Agripina! Badakit esatera zoazen guztia. Zure memoria gogoangarri bada ezertan, hiltzen zaitut hantxe bertan. Gaurtik izango zara giza historiako kriminalik handienetakoa.

JULIO ZESAR

- Ni, Julio Zesar.
- Hau poza! –ateratzen zait barru-barrutik–. Banuen gogoa zurekin aurrez-aurre bat izateko.
- Beti laketu nau miresle bat gehiago aurkitzeak.
- Lehen ere ez zenuen izango miresle faltarik.
- Bat gehiago beti da asko! –Zesarrek, aurkikuntza baten aurrean lez.
- Beti egin zait bitxi zure izena. Julius! Julio!
- Hara! –harritzen Zesar–. Izen baten atzetik al zentozen?
- Gaio edo Zesar, tira. Baina Julius?
- Inoiz ez dut pentsatu. Arrazoi sendoa dirudi.

Gure joko komunitarioak bi taldetan banatu ohi ziren. «Aurrera A taldea! Aurrera Z taldea!». A zen Anibal, Z zen Zesar. Anibalen guardiakoak Zesarren guardiakoen aurka. «Adi legionarioak!». Hauek baloia zelai-hegaletik ez irteteko hesia egin behar zuten. Gehienetan, baloia gainetik pasatzen zitzairen, eta orduan ekarri egin behar. Ni ez nintzen legionariora iristen. «Noiz lortuko ote dut maila hori?». Behin edo behin, baloia bera jausten zen nire eskuetara, baina alferrik. Legionarioak basa-txakurrak lez oldartzen zitzaizkidan.

- Zergatik ezin dut baloia neuk itzuli?
- Kendu dizugulako!

Mendi-txangoak ere bi talde horietan egiten ziren. Gailur batera igotzea bazen, Anibalen taldeak hegoatik eta Zesarrenak iparretik saiatu behar zuen gaina hartzen. Taldeak irabazi, taldeak galdu. Banakoak ez zuen balio. Hartarako, partaide kopuruak ere orekatuak behar ziren.

Batzuek beti Anibalen taldean leihatu nahi zuten. Zesarrenak ez zeukan partidario finkorik. «Baina neuk jo dut gailura lehenen!». Esan dizuegu ezetz! Taldearen batezbestekak bakarrik balio du. Hezkuntz sistema baten aplikazioa. «Lelokeriak! Talde-lana ondo dago, baina irabazi, neuk irabazi dut!». Horrelakoa «hezkuntzatik at» zebilen. Sarritan, irabazle indibiduala talde galtzailekoa zen. Orduan are sutsuago defendatzen zuen bere lehentasuna.

- Irakasle jauna! Zein batailatan enfrentatu ziren Zesar eta Anibal?
- Zozoa! –irakasleak–. Zesar jaio zenerako, Anibal hila zuan aspaldi.
- Niri Anibal gehiago gustatzen zait.
- Hemen ez gaituk gustuez ari –irakasleak, «neuri ere bai» pensatuz.
- Eta hobe ere bazen.
- Hik zer dakik gerrez?
- Gerrez jakin behar al da –beste ikasle batek–, kurtsoa aprobatzeko?
- Nota hobetzeko bai –irakasleak–. Baina hemen testuez ari gaituk. *Galiako Gerra*, bigarren liburua.

Orduan Butroeko gaztelua bertan behera zegoen. Komunitate oso batek hura «asaltatzen» genuen. Anibaldarrak itsas aldetik trepatzen ziren, Zesartarrak lehor aldetik. Haiek Kartagotik, besteak Galiatik. Erdian Butroeko gaztelua, madarikazioren baten hondakin. Han ere beti zen norbait azken dorrea lehenen harrapatzen zuena. Eta betiko gatazka: banakoa ala taldea izabazle? Dorpeagoen batailoia beti gehiengo zenez, taldearen balioa nagusitzen beti. Horrek ez zuen lortzen frenatzerik banako irabazleen amorrua. Hauen garaipena beti ezeztatzen zen, baina harrotasuna inork ez zien kenduko. Eta galtzaileen inbidia ere ez. Hezkuntz sistemaren indarra ez zen iristen sentimenduak menperatzera.

Zesar! Adjetibo bat ezartzeko baino izaki harrizkoago hori! Nik uste dut latina ikastera behartu gintuzten gehienak zurekin hasi eta zurekin amaitu genuela. «Estilo kontzisoa, elegantea, zehatza, praktikoa». Zertarako behar dugu latina? Erromatar klasikoak. Eta zertarako... «Amaitu da galdera!». Azkenean, Zesar, zuri gustua hartzerako, latinaz aspertu ginen. «Sentimenduek ez diate axolarik –irakasleak–. Hau auzi intelektuala duk. Bihar Galiako hirugarren liburuan jarraituko diagu». Handik urteetara geratu zaigun bakarra: «veni, vidi, vici». Merezi izan zuen. Jarraitzen, Zesar? Nola ez, ba? Gaius Julius Zesar naiz!

- *Patrizioak* izeneko familiakoa –ari zaigu irakaslea.
- Zer dira *patrizioak*? –ausartu nintzen galdetzen.
- *Pater, patris, patres*. Erroma fundatu zutenen odola.
- Eta guri zer Erromaren fundatzaileak?
- Gero inperio bat izan zirelako.
- Hori duela 2.500 urte gertatu zen barren! –ikasleak.
- Ba, hortxe gaude! Goazen laugarren liburura.

«Kontzisoa, zehatza, dotorea» diozue? –galdetzen Zesarrek–. Nire aita senatari pretorioa izan zen. Ama ere, Aurelia, nobleziaren goi familiakoa, nahiz bera plebeioa izan. («Goi» eta «plebeio» ez al dira kontraesankor?). Biak izan ziren nire euskarri handiak. Eta handiena, beharbada, osaba Gaius Marius, aitaren aldeko nire izeba Juliarekin ezkondua. Gaius Marius, garaiko lider handia. «Alderdi Marianoa» sortu zuena. (Ama Birjina oraindik ez zen existitzen, ezta? Ama eta birjina... Ez dakit. Gauza insolitoak ez dira behin bakarrik gertatzen). Gaius Mariusen ospea alazo etorri zitzaidan hasieran, herriaren ederra irabazteko. Odolak zortea ekarri zidan. Hots, jainkoek begiko izan ninduten.

- Jainkoak eta zortea batera al doaz? –galdetzen nik.
- Zortea jainkoak alde edukitzea da –erantzun Zesarrek.
- Esan al daiteke jainkoek ematen dutela zortea?
- Bai, alderantzizkoa ezina den neurrian.
- Esan daiteke, beraz, jainkoek zortea ezberdinki banatzen dutela –tentatu nik.
- Ez doi-doi –Zesarrek–. Jainkoek zorte ezberdinak banatzen dituzte.
- O! Diferentzia ez dut argiegi atzeman, baina Jainkoen izaera azaldu duzula dirudi –makurtu nintzen.

Kornelio Silak diktadoreak argituko gaitu, galdetzen baitu: «Ikusi al duzue jainkoak haurtzarotik alde dituela esaten ari den gazte harrosko hori? ». Jauna! Zuk gazte horren izena jakin behar duzu! «Julio Zesar delako hori?». Ba, bai! «Bazakiat nor den eta zer egin duen. Kornelio Zinnaren alabarekin ezkondu!». Bikote hori, jauna, apar osoan dabil Erroman. «Bazakiat hori ere, eta erraiak erretzen ari zaizkidak». (Hau ez zuen Silak ozenki esango. Pentsatu bakarrik. Maite zuen «pentsatzea», zer zen jakin gabe).

– Nik –Zesar mintzo orain–, sen militarra jada aski garatua izanik, sumatua nuen Sila diktadorea hasia zela kezkatzen, aurkari arriskutsu bat ikusten zuelako niregan. Silarentzat burutazio soil bat nahikoa zen bere suntsimen guztia abiatzeko. Astelehen batez, bere jauregi inperialera gonbidatu gintuen ezkonberriok. «Zorionak emateko» eta zer bikote liraina egiten genuen «bere begiz ikusteko». Neuk ere begien ahal osoz begiratu nion. Silari zuzen begiratzea ez baitzen erraza. Baina begiradari finkotasun zerbaitez eusteko gauza bazinen, haren bekokian gauza asko igartzen ziren. Benetan pozturik zirudien, baina nik banekien Silaren «benetako poza» erabaki tragikoen premonizioa izaten zela.

Audientzia hura elkar-ikuste soil bat bezala hartuko zukeen Zesarrek –hau neuk diot–, baldin Silak, handik astebetara, Palatino mendiko bere villa pribatura gonbidatu ez balu, «zeu bakarrik». Hots, emazte gabe. Eta igandez. Zesarrek mandatari bat bidali zuen bere ezin joana adieraztera. Ondoezik zegoela, egun guztia botaka egin zuela, eta horrelakoak. Erroman, orduan, oso ohikoa zen «botaka egitea». Batzuk, ez gutxi, trantze horretantxe hiltzen ziren. Pozoia. Mandatariak itzuleran kontatu zion Zesarri zaintzaile ofizialez beste era bateko paisanoak hauteman zituela inguruetan. Hauek Zesarrez galderak egin zizkiotela, haserre puntu batez. Puntu bat baino gehiago ere bai.

– Baina nola ez duk bera etorri, gurdian bazen ere? –Silak.

– Esan dizut, jauna, ondoezik dagoela –mandatariak–. Ohetik jaikitzeke ere ez da gauza.

– Joan zaitezke! –Silak mandatariari–. Esan Zesarri osatzeko aguro eta egongo garela. –Eta ahopean bere asistente eta konfidente nagusiari: – Ez hintzen, ba, aurreratuko «zerbait egiten» gazteari!

– Ez, jauna! –asistenteak ere ahopean–. Nola ausartuko nintzen ezertan, zure agindu bat gabe?

– Emazte ezkonberri bat ezin jaikitzea ulertzen diat, baina senar militar bat? –Silak ozenki inguruko guardia guztiari.

Denak isilik. Silak zerbait argia, zehatza galdetzen ez bazuen, inor ez zen ausartzen erantzuten. Argi eta zehatzetan ere, haren galdera batzuek –adibidez, «nola duk izena?»– beldurra ematen zuten. Pentsa galdera difuso samarrak zirenean!

Kontuz ibiltzea erabaki nuen –Zesar mintzo–. Bai Silaren gonbitak, agindutzat hartu behar zirenak, bai beste azpi-informazio batzuk, jazarpen argitzat ulertu nituen. Ez neukan zalantzarik. Silak harrapatzen baninduen, nireak egin zuen. Haren sikario ugariak sari ederra galdu zuten eta alimaleko sumina irabazi, ni, Julius Zesar, Asian eta Zilizian nenbilela egiaztatu zenean.

– «Jainkoak alde» esan duzu, Zesar, baina Silak ez zituen hain alde eduki –ñabartu nuen.

– Jainkoek batzuetan badakite gauzak zuzen egiten –erantzun Zesarrek.

– Arazoa da, alderantziz egin balute ere, jainko izaten jarraituko zutela.

– Jainkoek ez dute arazorik. Arazoak gizakienak dira.

Gauzak argiago eta osoago uzteko –kontatuko dizuet–, esan behar da Zesarren aitagarreba izango zen Luzio Kornelio Zinnak, lehenago, Flamen Dialis izendatu zuela Zesar. Jupiterren apaiz. Hiru «flamen» edo apaiz zeuden Erroman orduan, eta Zesar bat, Jupiterrena, 16 urte bakarrik zituela. Ohoreak apur bat zanpatuko zuen, baina bai hanpatu ere! Eta finkatu bere asmo sendotetan.

Titulu hark bazituen –Zesar mintzo– nire gaztetasunaren kontrako murrizte eta gabetze zorrotz batzuk, hala nola: ezin hiritik kanpora gau bakar bat ere egin; ezin neure ohetik kanpora hiru lo jarraian egin; ezin biluztu toki irekietan; ezin mahatsez hesituriko bideetan ibili; ezin gorpurik ukitu, ez hilobietan sartu, hileta bat ofiziatzean izan ezik; ezin txakurrik, ez ahuntzik ukitu, ez babarik, ez haragi gordinik; nire ile-xerloek eta atzazal moztuek *felix arbor* izeneko zuhaitz baten azpian ehortziak izan behar; beste inork ezin lo egin nire ohean. Eta abar. Pentsa zenbat esan ditudan, eta oraindik «eta abar». Kostatu zitzaidan araudi amaigabe hura ikastea.

Geldi apur baten! Ez utzi gehiegi korritzen errukiari. Zesarrek, titulu horrekin, bazituen abantaila handiak ere, bere gogo gazte baina anbiziotsua tiratzen zutenak. Apaiz guztien artean bakarra zen. *Apex* izeneko bonatea janzen zuen. *Lictor* izeneko polizia batek eskoltatzen zuen. *Toga praetexta* izeneko toga eraman ahal zuen. *Aulki kurula* izeneko sitialean eseri ahal zen.

Eta batez ere, garrantzitsuena: Senatuan eseri ahal zen, bere tituluari esker. Hantxe behatzen zituen Erromako eta inperioko gain-korronteak, eta usnatzen azpikoak. Harik eta Sila diktadoreak, haren propulzio arriskutsuaren errezeloz, kargutik kendu zuen arte.

Eta nituen ondasun guztiak konfiskatu! –haserretzen biziki Zesar–. Bizitzatik ere erauzi nahi izan ninduen. Eta mingarriena, gero jakin nuenez, nire buruari prezio zirtzil bat jarri ziola: bi urre-talentu. Prezio txatxu horri esker, nire hiltzaile izan beharreko sikarioak sobornatzea ez zitzaidan askorik kostatu. Beharbada esan beharko nuke jainkoen babesak Silaren sikarioetatik mirariz libratu ninduela. Zorionez, zeren gero, amaren ahaideen bitartekotzari esker, eta berriz ere jainkoak lagun, barkatua izan bainintzen eta Asiara translata, hango gudueta borrokatza.

– Ikusten dut jainkoei lan ugari eman zeniena –diot.

– Jainkoen lana entretenitzea da –erantzun Zesarrek irriz–. Haiek ere igaro behar dute denbora, gurea baino askoz luzeagoa.

– Baina zu, 16 urterekin, apaiz ...

– Harritzen?

– Gehiago harritzen naiz hain buru argiro militar bat ikusiz erlijioaren gailurrean.

– Gailurrek elkar ondo ikusten dute –Zesarrek–. Non dago kontraesana?

– Jainkoen eta armen moralek ez dirudite oso elkargarri –saiatzen naiz zeporutzen.

– Zergatik ez? Armak jainkoen jostailuak dira.

– Jakina! Pentsatu behar nuen Julio Zesarrekin ari nintzela.

Zerbait argitu zitzaidala pentsatu nuen Julio Zesarren «esprikazioan», baina haren heriotza ez zitzaidan ondo koadratzen. Beti harritu nau «Erromako pertsonaiarik ospetsuenak», «historiako militarrik gorenak» halako amaiera izateak. Badirudi berak ere azken unean horixe pentsatu zuela, baina ez zuela izan astirik pentsamendu hura esaldi batean uzteko. Zortea izan dut, esateko prest dagoela baitirudi, neuk galdetu gabe. «Veni, vidi, vici». Eta bertan hil!

Gaius naiz. Julius naiz. Zesar naiz. Gaius Julius Zesar! Gehienentzat *De bello gallico* naiz. Latinaren hiltun eta ikasle guztiak hortik hasten dira. Pentsatzen dute, pentsarazten diete, nirea dela latinik errazena eta elegantea. Hortik ateratzen dute halaxe menderatu nituela Galiak, erraz eta elegante. Ba, niretzat, Asia izan zen garrantzitsuena. Lesbos uharterko Mitilene hirira translata izateaz zortea izan nuen. Jainkoen mesedea, duda gabe.

Badakit «mesede» horren zergatia –argituko dut–. Marko Termo zen hango buruzagia, eta Zesar haren legatu edo jeneral jarri zen. Hantxe izan zen bere benetako inimizio militarra. Historiak dio Marko Termok uhartea konkistatu eta Mitilene arpilatu zuela. Izatez, Marko hori boraza bezain kamutsa zen, eta operazioen gidaritza Zesarrek hartu zuen. Irrikaz zegoen bere grina militarra gudu-zelaian estreinatzeke. Baita bere buruzagi-dohaina probatzeko ere. Eta frogatzeko, zeren garaipen modelikoa izan baitzen alde guztietatik. Marko nagusiari, garaipen haren ondorioz Erromako eskalan igoera ikusgarria itxaroten zuenari, zorionak ematea nahikoa izan zen, guztia berak eginik bezain kontent eta harro gelditzeko.

Izatez, zuk kontatu duzuna –Zesar mintzo– ez da guztiz horrela. Marko Termo ez zen hain estrategia kamutsa. Soil-soilik, zorrotasun militarra beneratzen zuen, beharbada sineskorregi. Marko Termok zehaztasun osoz diseinatu zuen Mitileneren konkista. Mapak eta hiriko kale-izendegia berehala marrazten zituen, ezker eskuz. Nik harriduraz obserbatzen zuen guztia. Egutegia ere xeheki zehaztu zuen, idatziz. «Lehen egunean, hau. Lehen gauean, hori. Bigarren eguneko goiz argian ontziak mugitu, badoazelako plantan. Arratsaldean ...».

Eta hala, bost eguneko plana. Noiz hasi? «Hamabost egun barru, martxoko idusean. Bitartean, hik, Zesar, beharrezko prestakuntzak antolatu». Horixe agindu zidan. Hisiatu nintzen, bai, prestakuntzak burutzen, baina ez hamabostekoan, astebetean baizik. Eta? Zapla jo nuen eraso. Hamabosgarren egunean hasi beharrekoa hamahirugarrenean amaitua zen, Marko Termo ia lotan zegoela bere mapen gainean.

Nola egin zuen hori? –galdetuko duzue–. Zesarrek bazituen antolatuak, bere kabuz, komando berezi batzuk, zeinetako bat baitzen *Giza Ehiztariak*. Hauek, hierarkian, maila militar goi samarrekoak ziren, etsaiaren lurrean susmo txar gabe sartzeko modukoak. Zesarrek agindu zien:

- Sartu Mitilenen eta konbentzitu hango bikote bat, gozo-gozo. Edo bahitu, beharrezko bada, eta ekar nire aurrera.
- Nolako bikotea? –galdetu zioten.
- Bi anaia, adibidez. Edo anaia-arrebak, edo aita-semeak, edo aita-alabak...
- Elkarregandik banatuak izateko baino lotura sentimental handiagoa dutenak.
- Senar-emazteak izan daitezke?
- Ondo konpontzen direnak badira, bai.

Aita-seme batzuk lortu zituzten, konbentzituak izan zirenak bahituak izateko beldurrez. Saiatu ziren harrapatzen emakume bat tartean zen bikoa, baina oso zaila zen hauek garbi harrapatzea, Mitileneko emakumeak eremu sozialetik aparteegi bizitzera beharturik baitzeuden. Aita-semeak aurrean zituela, Zesarrek aitari agindu zion:

- Eraman zure hiriko buruzagiari dokumentu hauxe.
- Nire semeak buruzagi horren...
- Ez, ez! –moztu Zesarrek–. Semea hemen utziko duzu.
- Baina nola joango naiz neu bakarrik?
- Joango zara! –agintzen Zesarrek–. Egitekoa egingo, eta zantzu argi bat ekarriko, egitekoa burutua izan dela frogatzekoa. Orduantxe bakarrik elkartuko zarete berriz aita-semeok. Eta sarituak izango, oparo gainera.
- Eta bestela? –aitak.
- Bestela, pentsatu duzuna.
- Zer pentsatu dut, ba? –aitak, tonto plantan.
- Ez duzula semerik gehiago... Badakizu!

Horixe izan zen, bai, aita mezulariak pentsatu zuena, eta pentsatu zuen bakarra. Hala, gudu-orriaren kopia bat –«mirariz ostua» esan behar zuen–, Marko Termo eta Julio Zesarren sinadurekin, helarazi behar zion Mitileneko buruzagiari, non zehazten baitzen halako egun eta ordutan hasiko zela eraso. Gizonak bere eginkizuna arrakastaz burutu zuen, eta itzultzean, urrezko txanponekin sarituak izan ziren aita-semeak. Eta Zesarrek gudu-orriak zioen eguna baino astebete lehenagorako prestatu zuen eraso. Eraso azkarra eta fulminantea, Erroma guztia txunditurik utzi zuena. Marko Termori poztea zegokion, baina galdera kezkarriak geratu zitzaizkion dilindan.

Uharte bera –Zesar mintzo– ez zen hain prosperoa, baina Mitilene hiri aberatsa zen. Gure soldaduak gose ziren beti bezala, bai premiagatik eta ez gutxiago, grinagatik. Erromatar soldaduak izaera asegaitz horretan heziak eta jokatuak ziren, eta barruak eman zidan Mitilene izango zela nire etorkizunaren augurio triunfal bat. Kontua da hiria erabat lumatzen utzi niela soldaduei, menperatuek betiko jakin zezaten Erroma gainetik pasatzea zer zen. Alegia, Erroma gainetik pasatzean, Erroma bakarrik gelditzen dela. Nahiz eta hartarako ohitura handirik ez neukan, errukia ere banatu nuen, bizirik gelditu zirenak gosez hiltzeraino ez behartuz. Tokian-tokian, langile esanginak ere behar dira.

- Grinak eta premiak ulergarri izanik, halako txikizioa behar al zen –galdetzen dut–, uharte koxkor bat menperatzeko?

– Motiboak baziren –erantzun Zesarrek–. Mitridates VI.ak, Anatoliako penintsularen mendebaldea konkistatzean, han bizi ziren 80.000 erromatar hiritarren hilketa agindu zuen, gizon, emakume eta haur.

– Zer egiten zuten han 80.000 erromatarrek?

– Erromatarrek, Magnesiako guduan, Antioko III.a menperatu zutenean, bidezko zen populazio handi bat han gelditzea.

– Zuk «menperatu» diozun lekuan, nik «masakratu» irakurri dut kroniketan.

– Hitzak! –Zesarrek hanpatuki–. Menperatzea, militarki, nola da masakratu gabe?

– Baina zu ez zinen Mitridates VI.aren aurka borrokatu.

– Baina banekien zer egin zuen eta nolakoa zen. Haren aita pozoiturik hil zen. Berak ama Laodize eta anaia Krestus tronutik eraitsi eta espetxean hilarazi zituen. 16 urteko bere arreba txiki Laodize hartu zuen emazte. Eta azkenean, seme Farnazes II.ak bera ere suizidatzera behartu zuen. Begira nolako alea!

– Izenak aldatuta, Erromako episodioak dirudite –ñabartzen dut.

– Julio Zesarren jokaeran ez da sartzen hainbesteko deprabaziorik.

– Segi dezagun eta ikusiko.

Mitileneko azaina militarren aitormenez, Erromako kondekorazio militarrik gorena eskuratu zuen: Koroa Zibikoa. Distintzio horrek ematen zion pribilegiozko ahala, kondekorazio hura buruan publikoki erabiltzeko. Eta haren berdin bat, haritz- edo arte-hostoz egina, etxeko atalburuan esekitzeko. «Mitilenen ez nintzen hasiko erakustaldi harro horiek egiten», dio. Baina bizien eta hilen jabe zen Sila diktadorea hil zenean, Erromara itzuli zen.

– Pobre baina gailen, Erromatar Foroko abokatutza ikasten hasi nintzen. Hogeita bi urte nituen eta ...

– Barka, Zesar, baina ez al duzu zerbait saihestu kontaktetan, halako Bitiniako errege...

– Badakit nora zoazen! –Zesarrek trabeska–. Senatari eta erromatar jende jeloskorren faltseria txepelak. Huskeria soil bat nire gaztetasun oldartsurako.

– Errege barbaro batekin prostituitzea huskeria soil bat al da?

– Hitzak berriz ere! –Zesarrek, orain burlaz–. Ni ez nintzen izan Nikomede IV.aren kopari soil bat bakarrik. Hura koparekin mozkor eta ni miresle guztien itu, denek nahi zuten Julio Zesar dionisiakoaren igurtzian ibili. Eta bai! Argi entzun nahi al duzu? Ba, nahi nuen guztiekin nahi nuen moduan harremandu nintzen, jauregi hartan adin eta bizio guztietako jende-modua nahasten baitzen.

– «Nahi zenuen moduan» batez ere? Entzuna baitut, Erromako ospakizun handietan, zure soldaduek koplak kantatzen zituztela Nikomederekiko zure harremanez, gaitzizen infamante honekin: «Bithynica regina». Kostatzen zait bi kontzeptu horiek bat egitea: Julius Zesar = Bitiniako erregina.

– Nire etsaiek asmatutako zerrikeriak!

– Erregearen alabena eta emazteena ere asmakeria izan al zen?

– Ez naiz jendeak partikulariki gogoratzearen zale. Aski dut gogoratzea gau zoragarriak izan zirela.

Hogeita bat urte, erromatar ni –Zesar harro mintzo–, azaina handi bat lor berri, kasik ez zegoen katurik ere, nirekin zerbait nahi ez zuenik. Baina ni kontu handiz beti, gorteetan ez baitakizu zenbatgarren segadan edo nolako piztien esku zauden. Jostatu nintzen gogotik, baina jainkoek bakarrik dakite zenbat eskapaldi egin nuen ataka mortaletatik. Asko ikasi nuen gozatzen eta, aldi berean, neure burua babesten. Eta txandako etsaien ahulguneak atzematen. Militar on batek oso grina kontrakoak konbinatzen jakin behar du.

Horretarako hasiko zen Julio Zesar abokatutza ikasten. Nahi zuen Erroman nabarmendu. Baita mendekatu ere Silaren garaian pairatu jazarpenak. Eta, noski, konfiskatu zizkioten ondasunak berreskuratu eta gainditzeko bidea egin. Abokatutzak Erromako hiritarren eta politikari gorenen aurrean hitz egiteko aukera emango zion. Inork nahi ez zituen kasurik zailenetan sarturik, epaiketa batzuk galdu zituen. Ongi kobratuz beti ere, hala nola Kneo Kornelio Dolabela kontsul ohiaren kontrako kasua. Eta beste batzuk irabazi, hala nola Gaio Antonio Hybridaren kontrakoa. Hau ere kobrantza mardulez. Oro har, abokatutzan dirutza handiak pilatu zituen, baina guztiak ere gutxi izan haren gastu handiegiak berdintzeko. Iritzi publikoa irabazteko nahikoa izanik bere berezko balioa, saiatu zen premia gabeko ostentazioan, nondik ateratzen baita bere buruarengan konfiantza arazoak zituela, edo, soilik, bizioa maiteegi zuela. Bere zorionerako, bizioa ez zen akats handia Erroman. Denen gainetik, hala ere, abokatutzak balio izan zion bere oratoria zehatz eta gupidagabea garatzeko, Erromako entzulego gailena harritu eta beldurtu zuena. Beldurgarria izatea dohain handia baitzen Erroman.

– Zuk, Zesar, partekatu edo disputatu al zenuen kasurik zeure garaikide eta ofizioan kide edo lehiakide behar zuen Zizeronekin?

– Eskertuko nukeen, eta irrikaz ere banangoen, baina Zizeron ez zitzaidan inoiz parean gertatu.

Zizeron –Zesar mintzo– ospe handirantz zihoan nire abokatu garaian. Nik uste dut –argi esanda, ziur naiz– Zizeronek oso jakinki saihestu ninduela. Bere baitan segurutzat jotzen zuen nirekin edo nire aurka lehiatzeak nire ospea igotzeko eta berea ahultzeko bakarrik balioko zuela. Gero, politikoki ere, ahalegin guztiak egingo zituen nire aurka. Uste dut dena zetorrela oratorian eta jende aurrean nire azpitik ikusia izateko beldurretik, batez ere Erromako hiritargo zabalaren aurrean. Goi publikoan, senatuan-eta, badakigu elokuentziak baino gehiago axola duela interesak. Arrazoizko beldurra zen harena. Zizeron gizon anbiziotsua zen, baina koldar samarra. Pentsamenduaren eta zuzenbidearen lanketan eta oratorian zentratu izan balitz, izan zena baino handiagoa izango zen. Politikan nabarmendu nahi izateak haren izaera zalanzkorra trabestu zuen. Kontua da beti saiatu zela nirekiko lehiatik urruntzen. Behin esan ere egin nion:

– Zizeron! Zergatik elkar ikusten dugu beti zoko bakartietan edo ilunetan, labezomorroak bagina bezala?

– Argia beldurgarri den garaietan bizi garela esango nuke –erantzun zuen era difuso batean.

Ez! –Zesarrek biribilki–. Hark abantailan zegoela jakinik bakarrik garatzen zuen bere artea, baina beti ez zituen ondo kalkulatu egoerak.

– Eta zeuk –galdetzen diot Zesarri– zergatik utzi zenuen abokatutza, Zizeron bezalako batek zu saihesteko ospera iritsia izanik?

– Garbi esatea nahi al duzu? –ihardesten Zesarrek–. Kontrariorik ez neukalako! Bide hartatik ez nuen ikusten zer gainditurik.

– Sinesten dut zure arrogantzia, baina txintxin hotsak ere izango zuen zerikusia, beharbada handiagoa.

– Hori ere argi esatea nahi al duzu? –Zesarrek, gorputz osoari eraginez–. Kausa ezberdinak bide, dirutza handiak egina nintzen, eta pentsatu nuen aisiazko itsasaldi bat egitea.

Pentsatu zuen, eta filosofia eta erretorika amaitzeko aitzakian, Rodasera bidaia bat antolatu. Bidean piratek atxiki zuten haren ontzia, eta 40 egunez gatibu eduki zuten. Hauek ez susmatzen nor zeukaten bahituta, eta 20 talentuko erreskatea eskatu zuten. Talentua 31 kilo zilar izanik, 620 kilo zilar. Ez zen prezio txikia. Julioaren urguilu medularra hanpatu zen eta hots egin zuen:

– Hogeit talentu bakarrik nigatik? Eska itzazue, gutxienez, berrogeita hamar!

Eta hala, 1.500 kilokoa izan zen zilar eskaria. Zesarrek mehatxu egin zien egunen batean damutuko zirela. «Libre uzten nauzuenean, itzuliko naiz guztiok hiltzera eta diruak doblean berreskuratzen». Bahialdian, Zesarrek diskurtsoak idazten eta bahitzaileei deklamatzeko zizkien. Hauek, goratu beharrean, muzin egiten zioten, eta Zesarrek irain egiten, «barbaroak» deituz. Hauek txantxan hartzen zioten guztia, burutik eginda bailegoen. Behin libratu eta talentu kopuru izugarri hura bahitzaileei ordaindurik, Miletora jo zuen, non ontzi mertzenarioen flota bat azkar ekipaturik, uhartera itzuli baitzen. Bahitzaileak han zeuden oraindik. Atzitu zituen gehienak, botinik gehiena, ez guztia, berreskuratu zuen, eta piratak herrialdeko gobernadorearen esku utzi zituen. Gobernadorea Zesarrek lortu gabe utzitako diruaz gehiago arduratu zen, eta piratak Zesarren eskura itzuli zituen berriz. Zesarrek, ondo ikasia zuen metodoan, pirata guztiak gurutziltzatu zituen.

– Orduan erabaki al zenuen –diotsat kokospeko irribarrez– Erromako Jokoak antolatzeko kargura aurkeztea?

– Eta lortu! –Zesarrek gailenki–. Iritsia nintzen aurkezten nintzen edozertan onartua izateko beldurgarri-mailara. Senatari eta abarren artean zenbat eta kontrario gehiago eduki, hainbat gehiago gotortzen zen nire posizioa.

Curullis aedilitas. Edil kurula. Kargu honek ematen zituen betebeharren eta pribilegioen artean, Erromako Jokoak antolatzeko eskumena zegoen. Zesarrek horixe nahi zuen, aurreikusten baitzuen urtean behingo ospakizun handi haiek (10 egun, berak 15era luzatu zituenak) bere ospea eta itzala asko handituko zituela, baldin bere asmoa ondo burutzen bazuen. Eta bazuen horren segurantzaz, Zesarrek ez baitzekien bere gaitasunaz dudatzea zer zen. Erromako Jokoak urteko gerkararirik handiena ziren Erroman, eta hiritar guztien artean ikusmin eta xarma gorena sortzen zuten. Inauteri nazional batzuk bezala. Erljioa, jolasa, jokoak, ikuskizuna, dena biltzen zuten Erromako Jokoak: gladiatoreak, kuadrigak, boxeok, pilotak, borrokak, animalia exotikoak, deneriko norgehiagoak. Eta badirudi Zesarrek antolatu zituenak luzaro gelditu zirela erromatar txundituen gogoan. Horixe nahi zuen berak eta mukuru lortu zuen helburua. Eta haren izenak maila asko igo zituen erromatarren balorapenean.

Neu ere harritu nintzen halako arrakastaz –Zesar mintzo–. Pentsatzen jarrita, ikuskizunak ondo eta zehatz antolatzea bakarrik ezin zen izan arrazoia. Zehaztasunak onespen aitzakiagabe bat ekar dezake, baina entusiasmo kolektibo bat eragiteko, berritasun gogoangarri batzuek gertatu behar dute. Nik uste dut programatu nituen berritasun exotiko batzuk izan zirela ohiko handitasunei ukitu xarmagarri bat erantsi zietenak. Adibidez, esklaboei eragiten zitzaizkien harri-zulaketak («harri-zulatzailak» ofizioz), hain gogorrak bezain beharrezkoak Erromako eraikuntzetan. Haiek, bat-batean, kirol bihurturik ikusteak erromatarren sutu egin zituen.

Esklaboak ziren gehien lehiatzen zirenak. Eta hain suharki saiatzen ziren, irabazleei hiritar bihurtzeko saria agintzen baitzitzairen, ezen batzuen balankak aurpegiaraino okertzen baitziren. Beste batzuk bertan itotzen ziren hustuta, edo odolusten, balanka puntak oinak edo bernak zulaturik. Araua zen jokoan egindako zauriari ezin ziola kanpoko inork ukitu, jokoaren denbora amaitu arte.

Sarritan, pentsatzekoa zenez, jokalaria ez ziren iristen denboraren amaierara. Beharbada, horrexek erotzen zituen gehiago erromatarrak, kirol berriak berak baino.

Harriez ari naizela, harri-jasotzea ere programatu nuen, jakina baitzen harrien eraman-ekarria zer garrantzitsua zen erromatar konkisten garapenean. 300 kilotik gorako harriak jasotzeraino iritsi ziren. Hor ere batzuk harripean hil ziren, edo oinak edo gerriak birrindu zitzaizkien, gerritik behera biluzik jokatu behar baitzuten. Norbait harripean luze lehertzen zenean, erromatarrek senetik irteteraino berotzen ziren, «gora Julius Zesar!» oihuka. Ikusizun hura abian zen bitartean, alferrik zen beste edozein proba aldiberetzea, denak harrien plazan biltzen baitziren. Eta, noski, irabazleak ez ezik, sailkapenean askoz beherago geratzen zirenak ere «civis romanus» (Erromako hiritar) izendatzeko egin nuen proposamena gora-goraka txalotu zuten ikusleek, senatari asko erremindu baziren ere.

Hala ere –Zesarrek geroz beroago–, nik sartu nuen berritasun ikusgarriena aizkora-jokoa izan zen. Esan beharrik ez dago zer tresna garrantzitsua zen aizkora Erroman, batez ere inkurtsio eta inbasioetan. Enborrak plazaren erdian lerroka kokaturik, milaka ikusle zirkuluan pilatuak ziren, zer ikusiko. Txistua jo nuen eta han irten ziren aizkolari lerdenak, binaka, euren tresnak sorbaldetan. Hauek ez ziren esklaboak, erromatar soldaduak baizik. Jo nuen berriz txistua, eta aizkorak goratu ziren. Bat-batean, ulu orokor bat altxatu zen, lehoi-talde bat hutsetik agertu bailitzan. Hirugarren txistua jo nuenean, plaza erdira ziztuan jauzi egin behar izan nuen, «geldi!, geldi!» oihuka. Aizkolari batzuk aizkorekin borrokan hasi ziren, gladiatoreak ezpatekin bezala. Nire agindua entzuterako, batzuek eratzana zuten aurkaria, burua erdibiturik.

- Hori ez! Zertan ari zarete? –agiraka egin nien aizkolariei.
- Nik uste nuen jokoa horrelaxe zela –desenkusatu zen bat.
- Zertarako dela uste duk aurrean duan hiru kanako enbortzar hori?
- Nik uste nuen irabazleak galtzailearen hilkutxa egiteko zela.

Enbor haiek mozteko zirela azaldu nienean, ikuslegoak «uuu!» bat egin zuen, dezepzioz bezala. Azkenerako, jokoa ulertua eta biziki baloratua gertatu zen, beharbada edozein unetako borroka odoltsu baten arriskuagatik. Mozketa hasi eta gero ere, arreta handia behar zen aizkoraren bat enborretik burura ez desbidetzeko. Kontua da, dela joko tradizionalen mailagatik, dela aipatu berritasunengatik, ikuskizun haiek erromatarren gogoan iltzatu zirela betiko. Eta ikuskizunekin, nola ez, Gaius Julius Zesar. Senatu osoa baino popularrago bilakatu nintzen.

Hiriko hierarkek haren arrakasta hausnartzeko astia izan zezaten –gehitu nahi dut nik–, eta berak ere hurrengo kolpea ondo kalkulaturik eta, batez ere, bere izenak indar gehiago har zezan, Zesar Hegoaldeko muturrera aldatu zen, lehenago Ekialdera bezala. Hispaniako propretore. Gadesen zegoen (Kadiz), eta han topo egin zuen Alexander Handiaren eskultura batekin. Aldi berean kikildurik eta amorraturik gelditu zen, pentsamendu bortitz batek jota. «Alexander Handia 33 urterekin hil zen, munduko inperiorik handiena osaturik. Nik 33 dauzkat eta oraindik ez dut ezer garrantzizkorik egin». Eta aitortzen dit:

- Lehoiaren atzaparkada paparrean itsatsita geratzea bezalakoa izan zen.
- Horrek esan nahi al du zure anbizioa ez zela ospea bakarrik, agintearen gailurra baizik?
- Ni ez nintzen munduratu erromatarrek dibertitzeko, erromatarrei inperio mugagabe bat eskuratzeko baizik. Julius Zesar naiz!

Neuk ere badut izen bat, baina horrelako eginkizun planetariorik sekula ez zait bururatu. Bakoitza delako espeziekoa dela, kontua da Zesarrek, txanda ezberdinetan, Hispania osoa menperatu zuela, bere aurkari belikoak ziren Ponpeio eta beste erromatar buruzagien indarrak barne. Hispaniako bando eta etnia ugarien arteko gatazkak bere ezpatapean berdindu zituen. Badirudi aurretik ezinezkoa zen prosperitate bat ere abiatu zuela, baina helburu nagusia konkista gordina izanik, beste kontsiderazio guztiak operazio horrexen azpian agonizatu ziren.

Iberiako penintsulan lortutako arrakasta handiari esker –Zesar mintzo– (handia benetan orduan, munduaren alde bateko muturreraino iritsi baitzen), hor jakiten dut Erromako kontsul izendatu nautela, Ponpeio handiaren eta Krasoren babesarekin. Nire kontsulvide zen Marko Kalpurnio Bibulo erretiratu egin zen, pentsatuz, horrela, nire kontsulgoa eragotziko zuela. Niretzat, bakarrik gelditzea aukera aproposa izan zen neure neurri legalak aurrera ateratzeko. Nik, hala ere, kontsul baino gehiago izan nahi nuen, eta Ponpeiori eta Krasori proposatu nien triunbiratu bat osatzea. Haiek ere goia nahi, eta halaxe osatu zen Erromako «Lehen Trinbiratua» izenekoak. Baina ni, argi esanda, hirukotean ez nengoen eroso. Galiatar joan nintzen, prokontsul gisan, bai bainekien, oraindik gorena jotzeko, balentriarik garrantzitsuena falta nuela.

– Eta horrela heldu da –diotsat– zure *De bello gallico* maitea.

– Bai! –darantzu sendoki–. Nire gogoan, Galiak irakiten ari ziren aspalditik.

– Anatoliatik Iberiako muturreraino zihoan inperio baten agintari ia absolutua izanik, zer premia zenuen Ipar ilun eta gatazkatsurantz menturatzeko?

– Erromako Inperioak beti handiagoa izan behar du –Zesarrek biribilki.

– Artean bazen handiena.

– «Beti handiagoa» esan dut.

– Eta hori ideal eder bat al da? –galdetzen dut iseka tonuan.

– Julius Zesar naiz! –darantzu zutituz, ukabila goian, ezpata ikusezin bat astinduz.

– Ondo dago! –pentsatu nuen–. Arrazoi totala dirudi.

Galiatar kanpaina –Zesar mintzo– ez zen izan «veni, vidi, vici». Hura mundu modua! Hura etnien labirintoa! Hura tribuen ugalmena! Galoak eta germanoak, helvezioak, sueboak, zeltak, sekuanoak, heduoak, boioak arraurakoak, tulingoak, latobikoak, alobrogeak, anbarroak, tiburinoak, verbigernoak, arvernoak, belgak, usipeteak, tenkteroak, britanoak, katuvelaunoak, karnuteak, belovakoak, vitureak, atrebateak, atuatoak, kaleak, eburoak, menapioak, morinoak, nervioak, sozioteak, suesoak, venetoak, velioak, viromanduak, aduatoak, harudeak, markomanoak, tribokoak, vangioak, nemeteak, sikanbriak, ubioak... Buruzagietan, berriz, Orgetorix, Divikon, Ariovisto, Anbiorix, Verzingetorix, Komio, Kasivelauno, Dumnorix, Verkasivelauno, Boduognato, eta aurpegiak ikusi ez nien beste ehunka.

Bi estrategia bateratzea zen ahalbide bakarra: tribu ezberdinekin aliantzak egin, eta hirugarren batzuei eraso. –Zesarrek entusiasmoz kontatzen ditu bere egintzak–. Eta eraso, ahalik ferozkien beti, eskarmentuaren hotsa aurretik joan zedin. Hienen familia bat txikiturik bidaltzea bezalakorik ez dago beste hiena-familiak uxatzeko. Hienengan ez dakit horrela den, baina gizakiengan baietz egiaztatu nuen, barbaroenak izanik ere. Eskuzabalak eta biguntasunak –norbaitek «clementia cesariana» izendatu zuena– batzuetan oso taktika baliosak ziren. Baina funtsean, beti, inpietate bortitza eta arpilaketa osoa ziren prozedura garaileak.

Ez gutxi kostata! Zazpi urte behar izan nituen Galiak menperatzen. Zazpi urte, noizbait ere, Verzingetorix-ek, galiar tribu aliatuen jeneral gorenak, armak entrega zitzan nire aurrean. Jo itzazu urteko 300.000 lagun inguru, hilen eta esklaboen artean, eta baduzu gutxi gorabeherako bat. Biderkatu zazpiz, eta baduzu totala. Gehi itzazu goseak hilko zituenak, nork jakin zenbat, eta atera gutxigorakoa. Erromatarren bandoan, galera askoz txikiagoak izan ziren, baina sekula ez dut izan gogorik kalkulatzeko. Erorien kontaduriak ez du laguntzen aurrera egiten.

– Zu idazle eta pentsalari bikaintzat zaude. Zer pentsamenduk kinatu zintuen konkista alimaleko hartan tematzera?

– Erromatar inperioari dena zor zaio. Jainkoez borondateari ere bai.

– Ziur al zaude erromatar inperioa aski arrazoi dela edozertarako?

– Bestela, nola uste duzu menturatuko nintzela halako lantegi batera?

– Ba, adibidez, zeure ondarea infinituki handitzeko eta zeure menpeko buruzagiak arabera onuratzeko.

– Hori ere gerra baten azpi-helburu nahitaezko bat da. Edo dena galtzen duzu, edo dena irabazten.

– Hori ulertzen dut, baina esan duzun inperioaren ideia hori ez dakit norainoko arrazoiak den.

– Egia nahi baduzu, neuk ere duda izan nuen, jakin nuenean Erromako senatuan Galietako aginpidea eta, oro har, aginpide guztiak niri kentzeko burubideetan zebiltzala. Odola irakin zitzaidan eta laster ehortzi nituen dudak.

Galiek Erromari handitasun eta aberastasun itzela ekarri bazioten ere, Julio Zesarrek goietan inpopularen izaten zerraien, eta parekoak beldur ziren haren anbizioaz, eta beldur, batez ere, euren buruaz. Konspirazioa abiatua zen eta berehala eratua, hari Galietako agintea kentzeko eta gainerako gorabideak mozteko. Zesarrek, mugida horren berri jakitean, legio bat batu eta bere oratoria kontudenteaz konbentzitu zuen berari jarraitzeko, Erromaren gainera. Baietz soldaduek, eta Zesarrek Rubikon ibai mitikoa zeharkatu zuen, «alea jacta est» hots eginez («dadao jaurtia da»). Gerra zibila abian zen. Arerioak menperatu zituen eta lau aldiz diktadore izendatua izan zen. Laugarrenean, bizi guztirako.

Tazitori galdetu diot, eta isil-keinu bat bakarrik atera ahal izan diot. Tiberioz-eta nazkaturik, nonbait, ez du nahi bere luma mingotsa gehiago ezertan erabili. Badakit zer idatziko zuen. Honakoa, gutxi gorabehera:

«Zesarren bizitza politikoa laburtzeko, aski da esatea eten gabeko gerran jardun zuela. Heriotzaren bezperetan ere, bi kanpaina militar pentsatuak zituen. Bata Partiarren aurka eta bestea Daziaren aurka. Tamaina hartako konkista-plana ezin zen besterik izan mundua konkistatzeko gogoia baino. Zesar menperagaitz sentitzen zen, eta orain Ekialdea konkistatu nahi zuen, Alexander Handia berdintzeko. Bere lorpen handiak ez zituen bizi asetasun bat bezala, baizik ekintza handiaren diseinu bezala. Loria amaituek loria handiaren irrika pizteko bakarrik balio zioten».

Tazitok aipatu «eten gabeko gerran», guduak ilaran jokatu zituen. Bat edo beste galdu zuen, Dirrakium izenekoa, adibidez, baina beste guztiak irabazi, nola baitira: Alesia, Kartaia, Kurikta, Farsalia, Hipona, Ilerda (Lleida), Lauro, Munda, Nilo, Bragada, Ruspina, Apamea, Brindisi, Korduba, Korfinio, Gonfos, Massilia, Tapso, Utika, Zela. Eta konstatzeke gelditu zirenak. Zesarrek nekez bete zezakeen latinezko esaera ospetsu hura, «si vis pacem, para bellum» (bakea nahi baduzu, presta gerra), ez baitzuen izan bake-unerik bere bizitza militar guztian. Haren gerra-prestakuntza aurreko gerra zen. Eta ez gutxitan, aldi bereko gerrak.

Horrela ez zen zaila lagun hainbat etsai edukitzea bere agintean bertan, haren anbizioarentzat goizegi iritsi zen heriotzak frogatu zuenez. Egia esan, Erroman ohikoa zen inor inportanterik ez bizitzea luzaro. Alegia, ez hiltzea berez.

- Kronistek diote, Zesar, zure ase-ezin milatarra zeure zor handien eragina zela.
- Nik ez nekien gauza txikirik egiten –dio gailenki.
- Zorrak ere bai?
- Zorrak... Bai! Zorrak ere bai.
- Zerenak? Nori? –tiratzen diot.
- Erroman, izen handi bat izateko, harrapari handia edo zordun handia izan behar zen. Nik zorrak hautatu nituen, bai bainezien, partu ez ezik, dena sobera gaindituko nuela, militarki.
- Horrela iritsi al zinen Erromako aberatsena izatera, berriz ere zordunik handien bilakatzeko?
- Galdera ona iruditu zait –Zesarrek, biguntasun itxuran.
- Nola lortzen zenuen kontraste ulertezin hori?
- «Egizu klementzia eta zabaldu beldurra». Horixe egiten nuen nik. Ez nuen beldurra zuzenki eragiten. Beldurra zidaten, kapaz ikusten nindutelako. Eta kapaz denak zernahi egin dezake.
- Arrazoi horri gehiago irizten diot oradore baten saihesbidea, ekile baten argudioa baino.
- Ez daukat beste argibiderik. Neu naiz nire esplikazioa –Zesarrek paparra joz.
- Esplikazio hori eman al zenion Kleopatrari? Izen hori ez baitugu aipatu.
- Kleopatraren izena –Zesar mintzo samurki– ez dut inoiz ezkutatu inperioaren bazterretan. Izatez, Erroman bertan aurkeztu nuen, ohore guztiekin. Urtebetetik gora egin zuen Erroman, bere familia eta gorte zati batekin, Tiber ibaiaren ondoan neukan villa batean. Noble batzuei ez zitzaien askorik gustatu exhibizio hura, baina guztiek pairatu zuten inbidia har korrosiboa. Bisita printzipal asko iristen ziren ikusmiran, Kleopatrari opariak eskaintzeko aitzakian, eta seguruenik, nire mesedeak irabazteko itxaropenean. Zizeron bera ere hantxe azaldu zen txakurtxo leial baten moduan, nahiz eta gero bere idazkietan irakurriko zenuten emakume harroa eta gorrotagarria iruditu zitzaiola.
- Zuretzat maitagarria izan zela dirudi. Liluratu ei zintuen.
- Bai eta ez. Maitagarria, noski, ederrean paregabea baitzen. Eta gaztea, Zesar bezala burusoiltzen hasitako batentzat. Baina nahi al duzu egiaren hezurra probatu? Nik ez neukan edertasun paregabe baten beharrik, artean erakarriak baintuen, aspalditik, Erromako edertasun gorenak.
- Hirugarren emazte «ezagunarekin» zebilen buruzagi batentzat harrokeria sinesgarria dirudi –onartzen diot.
- Niretzat Kleopatra maitale bat gehiago izan zen, nahiz eta bat berezia.
- Berezitasun sinesgarria hori ere, Nilo ibaian egin zenuten bidaia gozoa lekuko.
- Ba, bai! Nire militargo luze eta lantsuan, eta luxuzko erret gabarra batean, atsedenaldiroragarria izan zen.
- Zoramen milatarra izango, egia bada 400 ontzik babesten zintuztela.
- Ez nituen kontatu, baina izan zitezkeen gehiago.
- Oso oparo ikusten zaitut aitortzetan –tentatzen dut.
- Nahi al duzu aitortza esentzial bat?
- Hara! Zer nik nahiago?

– Kleopatrarekiko nire harremanaren gako nagusia Egipto konkistatzea zen. Armarik gabe, ahal bazen. Erromatar Inperioak itsasoaren inguru guztia izan behar zuen, Mauritaniatik Britainiraino eta Hispaniatik Partiaraino.

Zesar saiatzen da amodioari ere zentzu militarra ematen, beharbada horixe delako berak menperatzen duen hizkera bakarra, baina ez guztia sinetsi, amodioetan ere gailurretik ibili baitzen. Seduzitu zituen: Postumia (Serbio Sulpizioaren emaztea), Lolia (Aulo Gabinioren emaztea), Tertula (Marko Lizinioren emaztea), Muzia (Ponpeioren emaztea), Servilia (Junio Brutoren ama), Eunoe (Mauritaniako erregearen emaztea), eta nola ez, Kleopatra. Hauek Suetonio historialariak aditzera emanak. Nork jakin beste zenbat!

- Zertatik zectorren –galdetzen diot– zure inkontinentzia emakume ezkonduengana?
- Besteak ez dira errelato amorosoan sartzen.
- Denak jota, beraz, denetik nahi beste?
- Astiak ematen zuen beste.

Ez zitzaion dena gratis joan. Galiako kanpainengatikoa garaipena Erroman ospatu zuenean, soldaduek honako koplak kantatzen zituzten:

*Hiritarrok! Egin emazteei kargu!
Adultero burusoil bat dakargu.
Galian jardun zara larrutan
Erromak prestatu zizun urretan.*

Buruan ere, ordea, ezer ez baita gertatzen debalde, Zesarrek itzarrik gozatu zuena lotan sufritu zuen. Trastornaturik ibili zen amets bategatik, non bera agertzen baitzen bere ama bortxatzen. Aztiengana jo zuen, eta hauek augurio onak iragarri zizkioten, interpretatuz ezen amak Lurra sinbolizatzen zuela, gauza guztien ama, eta horrek esan nahi zuela bera munduaren jabe egingo zela. Eta hein batean halaxe gertatu zen. Ipuinei ere historia kanonikoekin batera joatea gustatzen zaie.

Haize freskoa behar nuen eta Zesarren villaren jardineran irten nintzen. Pentsamendu «inperialak» ezin burutik atera, eta ezin asmatu non kokatu. Parradun leiho bat emakume baten burua iruditu zitzaidan. Kleopatraren orrazkera zirudien.

- Zuk Kleopatra izan behar duzu –diotsat.
- Ez da derrigorra, baina banaiz –erantzun parrak.
- Entzungo zenuen Zesarrek zioena. Zer deritzozu?
- Egia apailatu bat. Nik Zesar behar nuen. Zesarrek ni behar ninduen. Baina nik Zesar behar nuena baino gehiago itsutu zen hura nitaz.
- Eta zu hartaz?
- Itsutzeraino ez –Kleopatrak–. Ni ofizio horretan trebatua nintzen.
- Sinestekoa, gero Marko Antoniorekin batu baitzinen.
- Zesar hil baitzuten!
- Baina ez zenuen zeure burua hil, Marko Antonio hiltzean bezala.
- Erroman ez zen geratu merezi zuen inor.
- Baina zuk aurreko berri ondo dakizu.
- Jakingo ez dut, ba!

Julio Zesar –Kleopatra mintzo– Ponpeio Handiaren aurkako gerran zebilen. Hau, galtzaile sentitzen hasirik, Egipton babestu zen. Eta Ponpeio hantxe hil zuten. Baina Egipton ere gerran ari ginen, nire eta nire neba Ptolomeo XIII.aren artean. Zesar Alexandrian kokatu zenean, bere lehen ekimenetako bat izan zen gu bi neba-arrebok bere aurrera deitzea, tronua bakez parteka genezan, gure aita Ptolomeo XII.aren

nahiaren arabera. Berez, nire neba Ptolomeo egoera hobean zegoen, bera izan baitzen Ponpeioren heriotzaren egile. Zesar poztu zen Ponpeioren heriotzaz –neu ere bai apur bat–, baina ez zitzaion batere gustatu Ptolomeo batek hori egitea. Ni, argi badaezpada, siriar Palestinako erbestean nengoen. Zesarren deiaren berri jakin baikoz, neure tropak utzi eta azkar eta isilki abiatu nintzen Alexandriara. Eta ahalik eta erarik magikoenean agertu nintzen Zesarren aurrean. Zesar xarmanki txunditurik utzi nuen, eta nire neba Ptolomeo iritsi zenerako, Zesarren gogoa nire alde makurtua zen. Eta bai. Egipton, bi neba-arrebon aginte partekatua berrezarri zenerako, Zesar eta ni maitaleak ginen. Ponpeio derrotatua eta hila izanik, Nilo ibaian ospatu eta gozatu genuen egoera berria. Gero Zesarrek Erromara eraman ninduen, eta haren azken gogoa, Egipto bakez konkistatzea, oso ondo bideratua zegoen. Zesarrek nahi duena esango du, baina kasu hartan, grina militarrek eta amorosoak salda berean zeuden.

– Zure aldetik ere bai?

– Nork sinetsiko lidake, ezetz esango banu?

– Baina Zesar Kalpurniarekin ezkontuta zegoen.

– Uu! Erroman ezkontzak izotz-pistak ziren.

Hurrengo Zesarri berari galdetu behar diot, pixka bat galtzeko zorian nago eta.

– Aizu, Julio! Kleopatra, Kalpurnia... Zure emazte Ponpeiagandiko dibortzioa ere zure operazio amorosoetan sartzen al da?

– Et, et, et! Geldi hor! –Kirio sakonen bat jo dut, antza, kapa barrenari gogor heldurik jaso baitu besoa–. Pista sakratua jo duzu.

– Barka, Zesar! Ez zaitut horren sumin inoiz ikusi.

Nire emazte Ponpeiak –Zesar mintzo– memoria justua merezi du. Esango dizut zergatik eta nola. Bagenuen *Bona Dea* izeneko jainkosa bat, oso maite genuena eta errespetu itzela geniona. «Jainkosa ona». Fertilitatearen jainkosa. Urtean behin, Erromako emakume nobleak erritu sekretuan biltzen ziren jainkosaren omenez eta esker onez. Erritu hori, sekretua izanik, ez zen egiten Aventino Mendiko jainkosaren tenpluan, baizik goren magistratuetako baten etxe pribatuan. Urte hartan, ekitaldia neure etxean egitea pentsatu zen. Zesarren etxean, baina Zesar gabe, emakume hutsen ekitaldia baitzen. Hain zorrotza zen araua ezen ate-leihoek erabat itxiak behar baitzuten, ezein gizonezko ezin zezan kanpotik ezer ikusi. Animalia harrik ere ezin zen etxean egon. Berez, anfitrioi bezala, nire emazte Ponpeiari zegokion ardura. Baina gure ama Aurelia, oso zorrotza, bera arduratu zen antolakuntzaz. Bien artean egin zuten.

Ekitaldia aurrera zihoala, hara non deskubritzen duten gizonezko bat tartean. Erromako andere handi gisan jantzirik bera, ilajea eta aurpegia estalirik. Nor izango isilpeko figura misteriotsu hura, eta Publio Klodio. Erromako gazte oso aberats bat, ganberro txoriburu eta xahutzaile petoa. Izatez, Klaudio zen, baina Klodio bilakatua, Klaudioren aldaera popularra berau. Horretantxe irabazi zuen populartasuna, ze, gainerakoan, Erromako entzuterik biziosoena zeraman. Zurrumurruek zioten Klodio horrek nire emazte Ponpeiarekin harreman adulteroa zeukala. Banekien, baina ez nion garrantzirik ematen, Erromako goietan normala baitzen.

Zertarako egin zuen hura Klodiok? –galdetzen dut–. Ganberrokeria soil bat? Inpunitatearen erakustaldi bat? Ponpeiarekiko harreman sexualak? Hain profanazio handia, erromatarrentzat sakrilegiorik larrienetakoa, ezin zen espazio gabe gelditu, eta Klodio epaitua izan zen. Baina Kludioren familiak, oso aberatsa izanez gainera, epaimahaiekin konexio handiak zituen. Nahiz eta Zizeronek ere kontra deklaratu, Klodio kargu guztietatik absolbitua izan zen. Hori ere normala Erroman.

Zesarren emazteak zin eta zin egin zuen egun hartan ez zuela Publio Klodiorekin harremanik izan. Eta Zesarrek sinetsi zion. Baina Ponpeia gaztearengandik dibortziaztea erabaki zuen, esanez: «Zesarren emazteak ez du bakarrik *izan* behar. Halakoa *irudit*u behar du».

- Zure Kleopatra maiteak badirudi ez zeukala ez izaterik, ez iruditzerik.
- Ba, ez nion alferrik egin urrezko estatua bat Venus Genetrix tenpluan, jainkosaren ondo-ondoan. Zergatik esan duzu hori?
- Zure heriotzak Erroman sortu zuen iskanbila guztiaren erdian, Kleopatrak berehala alde egin zuen Erromatik Egiptora.
- Hori ezin dut jakin, baina bidezkoen iruditzen zait.

Bidezko ala ez, Kleopatrak lortu zuen Erromatik Alexandriara ihes egitea. Hemen bere neba eta agintekide Ptolomeo XIV.a erail zuen, bere seme Ptolomeo XV.a tronuratzeko. Ekialdean zebilen Marko Antoniorekin ezkondu zen, eta hiru ume izan zituen. Gatazka gurutzatu asko laburbilduz, Antonio geratu zen Augustoren mende. Kleopatrak, larrialdi batean erdi ezkutuan zegoela, zabaldu zuen, gezurrez, bere buruaz beste egin zuela. Antoniok sinetsi zuen eta, militarki galduta sentiturik, bere buruaz beste egin zuen, benetan. Handik laster, hori jakitean, Kleopatrak beste hainbeste egin zuen, oraingoan benetan, *aspidistra* izeneko sugearen pozoia edanez. Eta artean, zirkulua ondo ixteko, Zesarrek aitatasunik aitortu nahi izan ez zion bere eta Kleopatraren seme gaztetxoa, Zesarion, harrapatua eta eraila izan zen, Augustoren aginduz. Eta azkenean, Egipto Erromako Inperioaren probintzia bilakatu zen.

- Hori guztia ezin izan nuen ezagutu –dio Zesarrek–, baina nire azken helburua, Egipto, betea izan zen.
- Zure azken helburua bai, baina ez zeuk betea.
- Horrek amorratzen nau, noski. Inperioa handi gelditu zen, baina Zesar, ez behar bezain handi.
- Hunkitzen nau horren apaldurik ikusteak harako militar oroahaltsu hura!
- Oroahalak ere baditu ahulguneak. Zuk kanpaia jo duzu, baina ez dakizu zerena.

Senatari talde batek senatura joateko eskaria egin zidan, proposamen bat egin nahi zidatela eta. –Zesarren mintzoak beste mudukoa dirudi–. Nola hasi nintzen senatuko eskailerak jaisten, neu bakarrik? Marko Antoniok ohartua ninduen ez joateko senatura. Nire emazte zintzo Kalpurniak disuaditu nahi izan ninduen, amets batean augurio txarrak izan zituela eta. Zenbait zurrumurru ere jasoak nituen. Baina nire urguilua igoa zen benetan ukiezin nintzela sinesteraino. Hirurogei bat senatarik osatua zuten, nonbait, «tiranoa» akabatzeko konspirazioa. Kaio Kasio eta Junio Bruto ziren buru. Bruto! Beti nire konfiantzazko izana. Bere ama maitale leial izan nuena. Konspiratzaileen ideiak eta interesak ez ziren inondik ere berdinak, baina egun hartako azioan denak zetozen bat. Martxoaren Idusean, 15ean, senatari talde batek, Ponpeioren Antzokirantz nindoala, geratu eta arkupearen ondoko gela batera eraman ninduen, non proposamen bat eskuratu baitzidaten. Irakurtzen hasi nintzenean, entregatzaileak, Tulio Zinberrek, tunikatik heldu zidan. Suminki hots egin nuen: *Ista quidem vis est?* (Zer da indarkeria modu hau?). Neure graduz, ukiezina bainintzen. Hartan, Kaska senatariak ezpata atera eta lepoan ebaki bat egin zidan. Ziztuan biratu nintzen eta, lumaren puntarekin agresorearen besoa joz, esan nion: «Zer dagizu, Kaska doilor?». Sakrilegioa baitzen Senatuaren bileretan ezein arma eramatea. Kaskak, ikaraturik, oihu egin zuen: «Lagundu, anaiok!». Orduan denak nire gainera oldartu ziren. Hogeita hiru sastada jaso nituen, zeinetatik bat bakarrik izan baitzen hilgarria, paparrean hartu nuen bigarrena. Zoruko odoltzan luze, begiak irekitzeko gai izan nintzen, eta hor ikusten Marko Junio Bruto. «Tu quoque, fili mi?». Zu ere bai, ene seme?

- Geldi, Brutus! Hau utzi neuri! –oihu egin dut.
- Utzi zer? –harritzen Zesar.
- Neu izango naiz zure hiltzaile.
- Zergatik?
- Neuk ere badakidalako hiltzaile izaten.
- Zorua! Bi mila eta ehun urte dituk nire hilketa burutu zela!
- Hura anulatua da.
- Eta nik zer? –Brutusek.
- Zuk ikasi zergatik hil behar duen Zesarrek.
- Munduko psikiatrak! Zatozte ikuskizunera! –Zesarrek.
- Bai, Zesar! Beto munduko psikiatrak lekuko, nola hiltzen dudan zure memoria.
- Zorua baino zoroago! Artista guztiak ezabatu behar al dituk?
- Arteak asko kolaboratu du krimenean, baina hau ez da arte kontua. Hau memoria da.
- Nola egin behar duk hori, historia guztia hil ezik?
- Oso erraz! Orain arte, historiako pertsonaia miretsienetakoa izan zara. Aurrerantzean, historiako kriminalik handienetakoa izango zara. Eta zuri eta zure modukoei esker, *Gizadiaren Historia* deituko da *Gizadiaren Historia Kriminala*.

KLEOPATRA

- Ni, Kleopatra Filopator.
- Entzunak dituk, bai, zure graziak: Egiptoko faraoi-erregina, Julio Zesarren maitalea, Marko Antonioren emaztea.
- Handiena ahaztu zaizu.
- Horiek baino handiagoa? –ikaratzen naiz.
- Antzinateko emakumerik ederrena. –Puzgarri hustu bat bezala gelditu da.
- O! Ez zara edertasun gorenaren bindikatzaille bakarra, baina bai. Historia alde daukazu.
- Ondo hasi gara orduan! –Kleopatrak atseginez.
- Ez hain ere. Nik uste nuen edertasunaren gainetik beste grazia batzuk nabarmenduko zenituela.
- Alegia?
- Zure figura aztoragarri egiten zait. Ez daukat argiegi zergatik hautatu zaitudan.
- Ba, ez dakit nola lagundu ahal dizudan.
- Kleo! –igotzen dut tonua–. Zu izan zinen Filostrato ospetsuaren ikasle partikularra, tratatu medikuen idazle, hizkuntzalari eta hainbat hizkuntzaren jakile: etiopiera, troglodiera, hebraiera, arabiera, siriera, mediera, partiera, latina eta zeure grekera koinea. Horren argia eta jantzia izanik, nola esplikatzen da zure historia?
- Orain esango nuke txarto hasi garela –Kleopatrak ondoezki.
- Ez hain ere. Zeu izan zinen dinastia baten azken faraoia eta egiptoera ikasten lehena.
- Zerbaitegatik nintzen Ptolomeo XII.aren alaba.
- Hara! Hasiera txarrean goaz, bai!
- Zer esan dut txarrik?

Ptolomeo I.a Alexander Handiaren jenerala eta lagun mina izan zen. Begira nolakoa izan zen hau, eta atera nolakoa izango zen hura.

Ptolomeo II.a Arsinoe I.a errepu diatu eta bere arreba Arsinoe II.rekin ezkondu zen. Eta biek batera, neba-arreba ezkonduak, euren jainkotasunaren kultua ezarri zuten. «Jainko filadelfoak». «Elkarren maiteak».

Ptolomeo III.a. Diogun aurretik Antioko II.a beronen emazte Laodize I.ak pozoiturik hil zuela. Ondoren, Laodizek Berenize hilarazi zuen, baita honen semea ere, eta egiptoar gorteko kide guztiak. Ptolomeo III.ak, mendeku gisan, Siria konkistatu eta dena suntsitu zuen.

Ptolomeo IV.ak Magas deituriko bere anaia eta honen aldeko guztiak asasinatu zituen, tronuz errazago jabetzeko. Eta bere arreba Arsinoe III.arekin ezkondu zen.

Ptolomeo V.a bost urte zituenetik Egiptoko errege egin zen, eta ptolomear erreinuko lurralderik gehienak galdu zituen.

Ptolomeo VI.a umetatik agintean jarri zen. Eta gaztetan, bere arreba Kleopatra II.arekin ezkondu zen. Antioko IV.ak inbasioan harrapatu zuen, eta hainbat erortze-jakitzeren ondoren, Enoparoko batailan hil zen.

Ptolomeo VII.ak ez dirudi bakarrean inoiz agindu zuenik. Zergatik? Ptolomeok VIII.ak asasinatu zuelako. Honek, bere gizenagatik, *Fiskon* ezizena zuen («Tripandi»). Bere emaztearen alabarekin ezkondu zen, amagandik banandu gabe. Amak bere 12 urteko semea jarri zuen agintari, baina Fiskonek umea harrapatu eta asasinatu zuen.

Uf! Beldur nintzen galtzen ez ote nintzen ari, baina oraintxe erabat galduta nabil. Ez dut ulertzen idazten dudana. Berdin dio. Besteentzat idazten dut.

Ptolomeo IX.ak bere ama Kleopatra III.arekin batera agindu zuen hasieran. Lehenik, bere arreba Kleopatra IV.arekin ezkondu zen, eta gero beste arrebarekin, Kleopatra Selenerekin.

Ptolomeo X.ak aurrekoarekin txandatu zuen agintea. Ama hil zuen, anaia bidaliz. Anaia, Ptolomeo IX.ak, itzultzea lortu zuen eta anaia, Ptolomeo X.a, hil eta bera hil arte agindu zuen.

Ptolomeo XI.ari bere amaorde Berenize III.arekin ezkontzeko eskatu zioten, eta ezkontzatik laster, ama hil zuen. Alexandriako herriak, sumindurik, lintxatu egin zuen.

Ptolomeo XII.ak *Aulettes* ezizena zeukan. «Flauta jolea». Musikan zaleago agintzen baino. Jaiak eta oturuntzak, eta mozkortu eta flauta jo. Agintea kenduko zioten beldurrez, beste hainbat hilketa antolatu ondoren, bere alaba Berenize erailtzeko agindu zuen.

– Kleo! –diot tonu konfidentzialean–. Hori zeure aita zen! Ptolomeo XII.a. «Flauta jolea». Mozkorra. Bere alabaren hiltzailea. Begira nolako jatorri-katetik munduratu zinen.

– Ez dakit non dagoen akatsa –dio Kleopatrak–. Neba-arrebak edo ama-semeak edo aita-alabak ezkontzea ohikoa zen Egipton.

– Etxekoen arteko hilketa serial horiek ere bai? –galdetzen dut hotzikaran.

– Ba al da beste era naturalik tronu bat eskuratzeko?

– Naturalik? Oraintxe zorabildu nauzu!

Kleopatrari naturala irudituko zaio Marko Antonio bere triunbiro-autoritateaz baliatzea Kleopatraren ahizpa Arsinoe IV.a exekutatzeke, Kleopatraren desioz. Honen aita, aipatu «flauta jole» mozkorra, erbesteraturik egon zen denboraldi batez. Tarte horretan, urtebete egin zuen Ponpeio triunbiroaren villan, Erromako aldirian. Eta Kleopatra berarekin, 11 urte zituela.

Berenize IV.ak (Kleopatraren ahizpa hau ere) enbaxada bat bidali zuen Erromara bere tronu-eskubidea defendatzeko eta bere aitaren berraginteari jarkitzeko, baina Kleopatraren aitak, Ptolomeo XII.ak, «flauta jole» mozkorrak, enbaxadako kide guztiak asasinatu zituen, bere aldeko erromatar ahaltsuek lagunduta.

– Mozkorra, baina efektibitate handikoa zure aita, e! –erasaten diot.

– Haurra nintzen, eta nire eskubideak defendatu nahi zituen. Esan dizut prozedura horiek naturalak zirela.

– Ohikoa eta naturala sinonimoak al ziren Egipton? –galdetzen dut.

– Nik zer bereiztea nahi duzu? Hamaika urte nituen!

Goazen orduan 14. urtera. Bazen zalditeriako ofizial gazte bat, Marko Antonio, zeinak eragotzi baitzuen, Gabinioren agindupean, Ptolomeo XII.ak, «flauta jole» mozkorrak, Pelusioko bizilagunak masakratzea. Eta Berenize IV.ren senar Arkelaoren gorpua erreskatatzen lagundu zuen, batailan hila berau. Erret hileta egoki bat egin zioten, eta gure Kleopatra erromatar espedizio batekin bidaiatu zen Egiptora, 14 urte zituela. Marko Antonio ere han gertatu. Urteak geroago, Marko Antoniok aitortuko zuen garai hartantxe maitemindu zela Kleopatriz.

– Ez naiz harritzen –dio Kleopatrak–. Hamalau urterekin banuen kontzientzia neure edertasun ia guztiz osatuarena.

– Atzeman al zenuen Marko Antonioren begirada ere?

– Ez bereziki. Orduan begi guztiak zebiltzan nire gainean.

– Zure aitak zure ahizpa Berenize IV.a eta bere partidario aberatsak exekutarazi zituen, haien ondasunez jabeturik.

– Berriz esan behar al dut lehengo arrazoi bera?

– Hitz berdinekin izatekotan, ez du merezi.

Marko Kalpurniok, Siriako prokotsul erromatarrak, bere bi seme nagusiak Egiptora bidali zituen. Zertara? Seguruenik, «gabiniotarrekin» (Aulo Gabinio erromatar militarren legionarioak) negoziatu eta soldaduak erreklutatzeke, partoen aurka Siriaren defentsan. Gabiniotarrek bi mutilak torturatu eta asasinatu zituzten.

– Marko Kalpurnioren bi seme haien torturak eta hilketak zure jakinean eta eraginean ala ezjakinean gertatu ziren?

– Bietara izan zitekeen –Kleopatrak hozki–. Ezin ditut xehetasun guztiak gogoan izan.

– Bi mutil gazteren torturak eta hilketak «xehetasunak» al dira?

Hogeita lau urte zituela, Kleopatrak eta bere gobernari-kideak, bere neba gazte Ptolomeo XIV.ak, Erroma bisitatu zuten. Eta ostatu eman zitzaaien Julio Zesarren villan, *Hortus Caesaris* izenekoan. Euren aita Ptolomeori bezala, Zesarrek Kleopatrari eta Ptolomeo XIV.ari «erromatar herriaren adiskide eta aliatu» izeneko estatus legala eman zien. *Socius et amicus populi Romani*. Izatez, ez ziren Erromaren menpeko gobernari leialak baizik. Kleopatraren bisitarien artean, Zesarren villan, Zizeron senatari eta idazle ospetsua egon zen. Honi Kleopatra harroputz iruditu zitzaion.

– Gogoan al duzu Zizeronen bisita?

– Zerbait gogoan dut, bai –Kleopatrak lanbroki–. Halako oratore ospeko agure bat etorri zelakoa.

– Hitz egin al zenuen berarekin?

– Kortesia batzuk trukatu izango genituen. Oratore ona izateko, apur bat izu eta fidakaitz iritzi nion.

– Berak ere zutaz ez zuen iritzi on-ona jaso –jaurtitzen diot.

– Nik uste dut nonzeberri gisan gehiago etorri zela bisitan baino. Gero jakingo nuenez, Zesar bera ere kontrako begitik zeukan.

– Are gehiago zure geroko Antonio maitea. Jakingo duzu Antoniok hil zuela Zizeron, ezta?

– Bai? –Harridura zuria dirudi.

– Eta Zizeronen buru moztua Erromako Foroan exhibitu zuela, laidorik gordinenak jaurtiz?

– Ez daukat gogoan halakorik entzun izana.

– Eta Antonioren zure aurreko emazte Fulbiak buru moztuari ahoa ireki, mihia erauzi eta ileko orratzaz zulatu zuela?

– Ene, ama! –Kleopatrak espantuz–. Lo-kanta bat dirudi horrek. Benetan ere ez daukat ezer gogoan.

– Eta Zizeronen anaia Kinto eta birloba ere garbitu zituela, haren seme Marko Tulio bakarrik salbatuz bizirik?

– Horiek bazirenik ere ez nekien.

– Ez naiz harritzen. «Xehetasunak». Konta ezazu zerbait mardulagoa, eta dakizuna.

Gure aita Ptolomeo XII.a hiltzean –soltatzen da Kleopatra–, ni eta nire neba gazteagoa, Ptolomeo XIII.a, tronura igo ginen, aginte-kide bezala. Baina elkarren arteko hausturak gerra zibil bat ekarri zuen berehala Egipton. Erromako bigarren gerra zibilean, Julius Zesarrek, Farsaliako batailan, Ponpeio derrotatu zuenean, honek Egiptora ihes egin zuen. Ponpeio gure aitaren aliatu politikoa izan zen, baina nire neba Ptolomeo XIII.ak Ponpeio enboskatzeke eta hiltzeko agindu zuen, eta horixe gertatu zen. Zesarrek, bitartean, jada hilda zegoen bere etsaiaren jazarpenean, Alexandria okupatu zuen.

Erromatar Errepublikako kontsul bezala –jarraitzen Kleopatrak–, Zesarrek nire neba eta biok adiskidetu nahi izan gintuen, baina nire nebaren aholkulari nagusiak, Potino eunukoak, uste zuen Zesarren terminoak gehiago zirela nire onerako. Eta nire nebaren tropek Zesar eta ni Alexandrian setiatu gintuzten. Setioa Zesarren aliatuak iristean amaitu zen, eta nire neba, Ptolomeo XIII. hori, handik laster hil zen Niloko batailan. Arsinoe IV.a, setioa lideratu zuen nire arreba-erdia, Efesora erbesteratu zen.

Orain neuk jarraituko dut –diotsat–. Kleopatrak bazuen beste neba gazteago bat, Ptolomeo XIV.a. Zesarrek, kontsuletik jada diktadore izatera igaroak, Kleopatra eta neba gazteago hori Egiptoko aginte-kide izendatu zituen. «Zesarrek izendatu» diot, zeren orduan Egipto Erromaren «menpeko leial» baitzen, edo izatera beharturik baitzegoen. Horrelaxe iritsi zen Kleopatra Egiptoko faraoi-erregina izatera. Ez zen hasiera gozoa izan, gosete handia baitzegoen Egipton lehortearen ondorioz. Nilo ibaiaren urteroko urgora oso apala izan zen. Hortik aparte, Kleopatraren aitak, Ptolomeo XII.ak, zor handiak utzi zizkion alabari Erromatar Errepublikarekiko. Agintzen baino zorrak egiten trebeago izan baitzen.

- Kleo! Xehetasun belikoak ondo eman dituzu, baina Zesarrena ez duzu guztia kontatu.
- Zer falta nuen?
- Harreman sentimental bat abiatu zenuten elkarrekin.
- O! Berak nirekin, zehatzago esateko.
- Zure sedukzioaren ondorioz?
- Ez dakit. Nire edertasuna, orduan, denen inbidia zen.
- Esan nahi al duzu zure onarpena, zeure aldetik, komenentziazko erabaki bat izan zela, Zesarren ahala baliatzearen?
- Denetik apur bat –onartzen Kleopatrak–. Baina hura Alexandrian pertsonalki ikustera joan nintzenean, badakit liluraturik gelditu zela.
- Zu berarekin bezala?
- Ez hainbeste. Apur bat agureturik zegoen.
- Horregatik ahalegindu al zinen bazinena baino ederrago agertzen?
- Hori edertasunaren berezko propietate bat da.

Kalkuluz ala amodioz, Zesarrek kuzero bat egin zuen Kleopatrarekin Nilo ibaian zehar, Egiptoko monumentuak ikusteko aitzakian. Bidaia nahiko erromantikoa izan behar zuen, Suetonio historikariak ematen dituen xehetasun ugarien arabera. *Thamalegos* izeneko aisia-ontzi bat zen, garai hartarako izugarri handia.

Ptolomeo IV.ak egina, 91 metro luze eta 24 altu ei zen bera, gaurko neurrietan ere harritzeko modukoa. Ekipaturik jantokiez, luxuzko ganbarez, santutegi sakratuez eta pasialekuez. Bere bi kubiarten luzean, benetako jauregi flotatzaile bat. Mundu bat zerulurren artean. Bidaia emankorra izan zen, Kleopatrak haur bat izan baitzuen Zesarrekin, Zesarion izenez ezagutu zena.

- Kleo! Zesarrekiko harremanak, seme horrez gainera, botere handia ekarri zizun. Baina Zesar asasinatua izan zen.
- Ez zara ariko nitaz susmatzen, ezta?
- Pentsakizun hori zeuri etorri zaizu.
- Ba, ez! Inola ere ez! Nire beharrik ez zegoen. Hilketa metodo arrunta zen Erromako goialdeetan.
- Egipton ere baietz dirudi, kontatzen ari garenetik.
- Erroman, Egipton eta edonon.
- Historia edifikantean gabilta orduan! –hots egiten dut goibel.
- Historiara historiatic joan behar da, ez filosofiatik.

– Horretan, fidatzen naiz zure hitzaz. Kleo! Zesarren hilketa aipatu dizut, baina nik zeure ahotik entzun nahi nuke zerbait.

Zesar asasinatu bazuten –Kleopatra mintzo–, argi dago ez zegoela ondo ikusia guztien aldetik. Ni ere, Egiptoko erregina bezala, haren villan aloiaturik nengoenean, ez nintzen erromatarren lar begiko. Baina seme bat neukan harengandik, Zesarion, eta huraxe oinordeko izendatua izatea pentsatzen nuen. Alferrik, ze Zesarrek, nire semea barik, bere iloba-birloba Oktabioren alde egina zuen testamentua. Hala, gero Augusto enperadorea izango zen Oktabio hura agintera igo zen, Marko Antonio eta Lepidorekin triunbiratuan. Orduan nik, Erroman ezin zela ezer egin ikusirik, neure neba Ptolomeo XIV.a asasinatzeko agindu eta neure seme Zesarion jarri nuen Egiptoko aginte-kide, Ptolomeo XV.a izenez. Aipatu triunbiratuarekin aliatu nintzen, eta Marko Antoniorekin harreman bat hasi nuen, beragandik hiru seme-alaba izanez.

– Geldi, Kleo! Hori Antoniok esplikatzeko hobe da. Zuk, Antonio, emango al zenuke zeure azalpena?

Nik neukan boterearekin –Antonio mintzo–, Kleopatrak bere odoleko bat seguru ikusten zuen oinordeko. Ni, baina, haren aurretik, Oktabioren arrebarekin ezkondata nengoen. Dibortziatu nintzen harengandik, eta Kleopatrarekin ezkondu. Hau pozik, planak oso ondo zihoazelako. Ni ere bai, nola ez? Baina Oktabiok bere arrebagandiko nire dibortzioa oso txartzat hartu zuen, bere oinordekotza arriskuan ikusi baitzuen. Hortik sortu zen Erromatar Errepublikako laugarren gerra zibila. Seguru nengoen irabaziko nuela. Genuela, Kleopatra ere alde bainuen. Oktabiok nire aliatuei Erromatik ihes eginarazi zien, eta Kleopatrari gerra deklaratu zion. Eta Kleopatraren eta nire gerra-ontzidia ez ziren gai izan Oktabiori aurre egiteko. Derrotatuak izan ginen, Agripa jeneralaren agindupean, Akzioko batailan. Ondoren, erromatar tropek Egipto inbaditu zuten, eta Kleopatraren eta nire tropak suntsitu. Gerra ez ezik, neure burua ere galdutzat eman nuen. Eta nire buruan Kleopatra zegoen.

Nik jakin nuen –Kleopatra mintzo– Oktabioren asmoa zela ni Erromara eramatea, bere garaipen-prozesioan exhibitzeko. Nire erraiek ikuskizun horren irudikatze hutsa ere ezin zuten jasan. Eta neure burua ezkutatzeko, suizidatu nintzela zabaldu nuen. Marko Antoniok, bere derrotaren ondorio pertsonal larrien jakile, ni suizidatu nintzela entzutean, bera ere suizidatu egin zen. Eta Antonio suizidatu zela jakitean, neuk ere suizidatzea erabaki nuen, oraingoan benetan. Aspis-suge batzuk bularrak ziztatzan jarri nituen, eta Kleopatraren begiak eta edertasuna hantxe itxi ziren, betiko.

– Laburpen tragikoa ondo eman duzu, baina zure harremana Antoniorekin –tiratu nahi diot gehiago– luzea izan zen, eta konplexua ere bai.

– Konplexua zergatik? –galdetzen Kleopatrak.

– Zure asmoak konplexuak zirelako.

– Nik ez nuen Egipto besterik buruan!

– Bai, ba! Zure buruan ez al zen bihurgune gehiegi gurutzatzen?

Ea zerbait gehiago argitzen dugun, aurreragotik hasita. Kleopatrak Antonio maite zuela argi dago. Antoniok Kleopatra ere bai. Baina faraoi-erregina baten eta erromatar triunbiro baten maitasunean osagai paraleloak suposatzea gutxieneko zentzu batean sartzen da. Une batean, Mediterraneoko ekialdea dominatzen zuen Marko Antoniok Anatoliako Tarson kokatu zuen bere kuartel nagusia. Handik Kleopatrari zenbait gutun idatzi zizkion, elkar-ikuste bat proposatuz. Kleopatrak ezetz. Benetan ala garrantzia irabazi nahian? Noizbait, Marko Antonioren bidaliak, Kinto Delio, Kleopatra konbentzitu zuen Marko Antonio ikustera joan zedin. Kleopatrak susmatua izango zuen Marko Antoniok harreman pertsonal eta erromantiko bat ere nahiko zuela erreginarekin.

Honek Zidno ibaia nabigatu zuen Tarsoraino, bere *Thamalegos* ontzi kolosalean. Han eman zien ostatu, bi gautan zehar, Marko Antoniori eta bere ofizialei, luxuzko oturuntzekin. Han konbentzitu zuen Marko Antonio berak beti haren alde jokatu zuela Erromako buruzagien arteko gatazketan. Marko Antoniok sinetsi zion edo sinestea erabaki zuen. Kleopatrak han konbentzitu zuen Antonio, gorago esan bezala, bere ahizpa Arsinoe IV.a exekuta zezan ere. Arerio bat gutxiago. Baita Kleopatraren Txipreko *estrategoa* ekar zezaten ere, exekutatzeko.

- Eta ordainez, Kleo, Marko Antonio gonbidatu zenuen Egipto bisitatzeraz.
- Kortesia, areago –Kleopatrak laxoki.
- Eta Alexandria bisitatzeraz eraman zenuen.
- Alexandriako herriak oso ondo hartu zuen.
- Eta zure aurpegian alaitasun berezi bat nabaritu zen –tentatzen dut.
- Atseginaz izatea erregina anfitrioi baten zereginetako bat ez al da?
- Esango nuke Marko Antonio oso intentzioz hautatu zenuela.
- Intentzioz? –tonta plantan Kleopatrak.
- Erromatar figurarik boteretsuena zelako, Zesarren heriotzaren ondoren.
- Boteretsua zen, bai. Oso boteretsua! –oraintxe konturatu balitz bezala.

Eta Antoniok han jarraitu zuen, Egipton, Tarson atrakaturiko Kleopatraren ontzian probatua zuen bizimolde luxuzkoa gozatzen. Eta Kleopatrak, Antonio triunbiroaren botereetatik, orduan Erromaren esku zeuden antzinako ptolomear lurraldeen berreskuratzea itxaroten zuen. Erromantzearen barruan zihoan hori ere.

- Eta harreman beroa eta zintzoa izan zelako frogarria da –dio Kleopatrak akusatuz bezala– Antoniorekin bi ume biki izan nituela, Alexander Helios eta Kleopatra Selene. Marko Antoniok berehala aitortu zituen bere seme-alabatzat.
- Baina ez duzu esan zure buruan, urrunera, oinordeko seguru batzuen etorrera zegoela.
- Bakarrik diot *Helios* eta *Selene* jarri genizkiela abizen. Ba al dakizu zer esan nahi duten?
- Abizen politikak, duda gabe. *Eguzki* eta *Ilargi*.
- Gizartearen gartzetaz bat sinbolizatzen zutenak.
- Bai, noski! –onartzen dut murrizketa airean–. Sinboloak maitagarriak dira, baina zuk itxaroten zenuena zen Marko Antoniok Alexander Handiaren balentriak errepikatzea, partiarrek konkistatu eta abar.
- Eta geroago –ezer entzun ez balu bezala–, beste ume bat ere izan nuen Marko Antonioren, Ptolomeo Filadelfo.

Antionioren Partiaiko kanpaina hondamendi totala izan zen. 30.000 gizon galdu zituen eta mozhortuta iritsi zen Kleopatrarengana, Erromara itzultzearen infamia saihestu nahian. Berak bere ume jaioberria ikusi nahian zetorrela esan zuen. Hori egiaren zati bat izan zitekeen, baina zati nagusia bestea zen: Erromatik ezkutatu eta porrotaren leungarri bat bilatu. Eta guztia gehiago okertzeko, Kleopatrarekin katigatu aurretik, Erromako Fulbiarekin ezkondu zegoen, harekin ere bi alaba izanez.

- Hori ere erromantzearen barruan sartzen? –galdetzen diot.
- Egia esateko –dio Kleopatrak–, ez zidan bat ere graziaz egin.
- Baina zu horren jakitun zeunden.
- Baina nire posizioa sendo zegoen Egipton. Eta Marko Antoniori esker, nire domeinuak asko handitu ziren Mediterraneoko Ekialdean.

Ai, Kleo gajoa! Gauza batzuk ezin dizkizut aurpegira esan, baina egoki eta bidezko da zuen azken fatalari esplikazio osoago bat ematea. Ez daukazu entzun beharrik. Neure buruarentzat esango ditut. Itzul zaitez apur batean mausoleora.

Zuk, Kleo, anbizioak bezain errakuntza handiak burutu zenituen. Eta Antonio gaizoak handiagoak esango nuke, zure labainkeriek eraginda, seguruenik. Triunbiratuan ziren Marko Antonio, Oktabio eta Lepido. Azken hau bazter dezakegu lehenengotik, ez baitzen ia inor. Erromako inperioa bi indarrek gobernatzen zuten: Oktabiok Hegoaldea, Antoniok Ekialdea. Zuk eta guztiek uste zenuten Antonio boteretsuago zela, armaden aldetik. Eta guztiek uste zenuten, eta horretan zuzen zenbiltzaten, bietako bat Zesar izango zela, Julio Zesarren moduan. Zuk, noski, Antonio jotzen zenuen garaile.

Zure eta Antonioren errakuntza handi bat izan zen halako harremana abiatzea, Antonio Fulbiarekin ezkondu zegoela. Fulbia zu bezain emakume anbiziotsua zen, eta beharbada, beldurgarriagoa. Ba al dakizu nolako alea zen bera? Ba, Fulbiak ere, zuk bezala, Antonio ikusten zuen garaile. Baina zu bazterrean zinela. Baina Oktabio Erroman zegoen. Eta nahiz eta Antoniok itzal handiago eta aldeko gehiago eduki senatari eta handikien artean, Oktabioren indar militarra trebeago eta heziagoa zen. Fulbiak ere, zuk bezala, eta Antonioren emazte bezala, bere asmoak zituen. Baina Perusiako batailaren ondoren hil zen, eta haren plan guztiak ere bai. «Baina» asko dago hemen, Kleo.

Fulbiaren heriotzak Oktabioren eta Antonioren artean enbata bat ekarri zuen. Antonio Oktabioren arreba Oktabiarekin ezkondu zen, bi alaba ere izanik. Beste errakuntza handi bat izan zen pentsatzea Oktabia eta zu bateragarri izango zinetela. Oktabio hasi zen Erroman zabaltzen Antonio bere erromatar emaztea, Oktabia zintzoa, baztertzen ari zela. Eta bai bere arreba Oktabiari eta bere emazte Libia Drusilari aparteko ohore eta pribilegio sakratuak ematen hasi zen, Zesarren Foroa izenekoan estatua monumentalak ezarri. Zeure estatuen ondoan eta leihan, hain zuzen, zu ere hantxe baitzeunden, Julio Zesarrek ipinita.

Bitartean, Antoniok Armeniako erregearekin negoziatu nahi izan zuen, zuen bion seme Alexander Helios haren alabarekin ezkontzeko. Armeniar erregeak ezetz. Antoniok Armenia inbaditu, erregea eta erret familia atzitu eta Alexandriara eraman zituen, han desfile militar batean, Erromatar Garaipena imitatuz. Antonio, Dionisioz jantzita, gurdi ikusgarri batean sartu zen hirian, erret prisioneroak zuri entregatzeko. Zu, urrezko tronuan eserita, zilarrezko oholza baten gainean. Eta gero, hiriko Gimnasioan, zu Isis bezala jantzi zinen. Eta zure eta Julio Zesarren seme Zesarion «erregeen errege» izendatu zenuen; eta beste bi semeak (zureak eta Antoniorenak), Helios eta Filadelfo (honek oraindik 2 urte), bata Armeniako errege, eta haurtxoa Siria eta Ziliziako errege.

Berri horiek guztiak Erroman oso gaizki hartuak izan ziren. Oktabiok, gero Oktabio Augusto enperadorea izango zenak, oso ondo zekien Erromako berri, bera hantxe baitzegoen.

Ez dago dudarik –Oktabio mintzo orain– Kleopatraren eta Antonioren aldetik, nireganako desafio argi bat izan zela, euren indarrean guztiz fidaturik. Hala, nire eta Antonioren artean propaganda-gerra porrokatu bat abiatu genuen, azkenean, nahitaez, armen bidez ebatzi beharko zena. Propaganda-gerra horren gailurra izan zen nik Antonioren testamentua harrapatu nuela Vestaren Tenplu sakratutik. Hori ezin zen inola ere egin. Tenplu sakratu hartatik inork ezin zuen ezer eraman, sakrilegiorik handienaren pean, baina nik sakrilegio hura kontzientzia osoz burutu nuen. Testamentu hark zioen Zesarion izango zela Zesarren oinordeko, Alexandria izango zela Inperioko hiriburu, eta abar. Zesarion, Julio Zesarren eta Kleopatraren seme erdi mahaiepeko hura. Horiek guztiak argitaratzean, Erroma txinpartatu zen. Eta nik, Oktabiok, *casus belli* edo gerrarako motibo argi bat ikusi nuen. Eta Erromak, nire agindupean, gerra deklaratu zuen. Zuzenean Kleopatrari eta zeharka Antoniori, honek hari lagundu behar ziolako. Eraitza, Akzioko bataila. Haien flota askoz handiagoa zen, baina nirea askoz

profesionalagoa. Eta Kleopatraren eta bere Antonio maitearen porrota erabatekoa izan zen. Lehia militarrek horrelaxe amaitzen dira. Haien akatsa izan zen operazio guztiak kalkulatzeko ez irabazteko moduan. Galtzaile guztiek horixe egiten dute.

– Entzuten ari al zara, Kleo?

– Buka ezazu, mesedez!

– Bukaera da Antoniok eta zuk nahiago izan zenutela suizidatu, Erromako gobernari berriaren mende jarri baino.

– Bukatzeko esan dizut!

Baina, Kleo! –erasaten diot hatzarekin apuntatuz–. Antonio hil ondoren, zu Oktabio seduzitzen ahalegindu ei zinen, zeure izatean jarraitzeko. Egia al da hori?

– Egia da, bai! –Aitortzen Kleopatrak–. Baina Oktabio hotza zen, eta nire dohainak ere higatzen hasita zeuden –erortzen zaio burua, hil-kaperan bezala.

Eta Oktabio Erromara itzuli zen eta Zesar Augusto izena hartu zuen. Eta 500 urtez luzatuko zen Erromatar Inperioa inauguratu zuen.

– Ondo dago! Ondo dago! –Kleopatrak zotinka–. Lehen ere esan dituzu horiek.

– Den-dena ez dizut esan. Hots, gehiena ez dizut esan. Zenbat konspirazio, zenbat traizio, zenbat hilketa, zenbat sarraski...

– Badakizkit zuk esan gabe! –Mausoleoa ez tandan bezala kraskatu da.

– Ba al dakizu Erromako poeta ospetsuek zer zioten zutaz, adibidez, Horaziok?

– Erromaz nazkaturik –*Beatus ille!*–, landa-lurrera baztertu zen poeta misantropo hark?

– Ez dut hainbestearino ezagutzen, baina hauxe dio: «Gizon biziosoen aldra batek eusten zion bere erokerian, eta berak (zuk), fortunak mozkorturik, sinetsi zuen beti eduki ahalko zuela alde». Upelik zaharreneko ardorik onenez ospatuko ei zuen zure heriotza, zeren, bere ustez, zure izatea hiletak irazkitzea eta Erromatar Inperioaren zimenduak azpi-jatea baitzen.

– Eta zu pozik, horrelakoxe errazkeriak zabaltzen!

– Ez, Kleo! Ni ez nago irabazleen alde, eta gutxiago Erromaren. Irabazle eta galtzaile, gorputz beraren osagarriak zineten.

Orain ahopean hitz egingo dut, sinetsi zenuena baino gehiago jainkosatu ez zaitezen. Beti harritu nau historiak zutaz eraiki duen irudi miragarriak. Txanponetan, erliebeetan, margoetan, bustoetan, estatuetan, nonahi zabaldu zen zure irudia, mundu ezagun guztiraino. Hori guztia zeuk ezagutu zenuen eta ez naiz gehiago luzatuko. Zuk ez dakizuna da nola legenda bihurtu zinen gero, bi mila urtetan zehar, gaurko garaietaraino. Arte guztiek protagonizatu zaituzte, pinturak, literaturek, musikek, eskulturek, antzerkiek... Guztiek! Zoraturik gaudela usteko duzu, baina hala da.

Zure edertasuna mito bat bihurtu zen, nahiz eta nik, zure garaiko erreprodukzioetan, geroak baino egiazkoago izango direla suposatu behar den horietan, ez dudan ikusten hainbesteko miraririk. Zineak ere zure figura baliatu du hainbeste obra on eta txar burutzeko. Famatuena, agian, *Kleopatra* izenekoa, Elizabeth Taylorrek eta Richard Burtonek protagonizatua. Film honen ondorioz, 1960ko hamarkadako aldizkari femeninoak publizitatzen hasi ziren nola erabili makilajea, soinekoak, bitxiak, orrazkerak «egiptoar» itxuran, zure eta Nefertitiren antzera. Bide batez, Nefertiti zu baino ederrago, edo behintzat eleganteago iruditzen zait. Ezetz? Berdin dio. Ez naiz entretenituko gauza sekundarioetan. Hitz batean, zure memoria izan da –eta da– legenda bat, gizadiaren zati handi bat entusiasmatu duena. Zure detraktoreak barne.

– Nik zer zerikusi daukat historia horrekin guztiarekin? –Kleopatrak minki.

– Hara! Entzuten ari al zinen?

– Zure aurpegian eta keinuetan dena irakurtzen baitzen. Asaskaturik geratuko zinen!

– Ez guztiz. Gogorrena falta da.

- Gogorrena falta, entzunak entzunda? –begiak hontz bihurturik–. Zertarako ireki duzu nire mausoleoa?
- Zu hiltzeko! –jaurtitzen dut bere bekokia seinalatuz.
- Hil nuen neure burua barren!
- Ez da nahikoa. Neuk hil behar zaitut.
- Zergatik?
- Neuk ere badakidalako hiltzaile izaten.
- Hil bat nola hil behar duzu berriz? –Kleopatrak isekaz.
- Zure memoria hilko dut.
- Barregarria! Nire memoria ez dago nire esku.
- Nirean bai.
- Ez al duzu oraintxe esan legenda bat naizela?
- Zinen! Aurrerantzean, memoria madarikatu bat izango zara.
- Horrek zer esan nahi du zehazki?
- Aurrerantzean zu izango zarela giza historiako kriminalik handienetakoa.
- Antonio laztana! Hau ere gertatu behar al zitzaigun?

ALEXANDER HANDIA

- Ni, Alexander Handia.
- Zer da handitasun hori?
- Mazedoniako Errege, Greziako Hegemon, Egiptoko Faraoi, Media eta Pertiako Errege Handi, Zeusen Seme.
- Zerrenda luzea eta dibertsoa. Titulu horien guztien emaitza zein da?
- Artean izan zen eta izan zitekeen inperiorik handiena.
- Eta efimeroena?
- Ez dakit zer esan nahi duzun.
- Zure heriotzaren ondoren inperioa puskatu baitzen. Handia, baina sendoa ez, nonbait.
- Nire heriotza ondoren zer gertatu zen ez dakit.
- Zeusen Seme izanik, zerbait aurreikus zenezakeen.

Alexanderrek burua makurtu du, bere baitan zerbait ikusi nahian lez. Ez dirudi ezer uste gaberik aurkitu duenik.

Hasteko, Alexander –gogoratu nahi diot–, zure heriotzaren ondorengo 20 urteetan, borroka latzak izan ziren zure jeneralen artean, agintea zeinek eskuratu. Kasandrok, adibidez, zure lagun eta jeneral fidagarriak, zure familiako eta oinordeko guztiak asasinatu zituen, hala zure ama Olinpia, zure emazte Roxana, zure seme Alexander, zure maitale Barsine eta zure beste seme Herakles. Kasandrok Mazedoniako erreinuan agindu nahi zuen, baina beroni ere Antigonoren seme Demetriok kendu zion guztia, Antigonotar Dinastia sortuz. Kasandroren Argeastar Dinastia horretan iraungi zen.

Zure jeneral kutun Ptolomeo, lehen unetik, Egiptoren jabe gelditu zen, Ptolomeotar Dinastia abiatuz. Seleuko aho-zuria Asia Handiaz jabetu zen, Seleukotar Dinastia sortuz. Azkenik, Lisimako maltzurra Traziaz eta Asia Txikiaz jabetu zen, nahiz eta ez lortu dinastia bat sortzerik. Horrelaxe gelditu zen zure ondare eskerga, geroz zatituago joango zena. Bakarrik gelditu zen osorik zure ospea, geroz handiago joango zena, hori egia.

- Gutxi iruditzen? Pentsa 33 urterekin hil nintzela Babilonian, Asiako kanpainatik bueltan.
- Hara! 33 urte. Paralelismo deigarri bat iradoki didazu. Ba, esango dizut, gure egutegian, urteak eta mendeak «Kristo aurretik» eta «Kristo ondoren» zenbatzen direla. Zuk ezin duzu izen hori entzuna izan, zugandik hiru mende eta erdira jaio baitzen, zuk arras meperatu zenuen Judean. Hura ere 33 urterekin hil zen. Mundua konkistatu nahi izan zuen. Zuk militarki, hark moralki. Eta hau bitxiena, hura ere «Jainkoaren seme» zen, eta zu Zeusena.
- Antz handiak dirudite, bai! –Alexanderrek buruarekin, moskeaturik lez.
- Zuk benetan sinesten al zenuen Zeusen edo Jainkoaren seme zinela?
- Nola ez, ba, huraxe banintzen?

Alexanderrek beti gogoan zeraman Gordiar Korapiloa. Negu bat igaro zuen Gordion izeneko hirian, Frigiaren antzinako hiriburuan, errefortzuen zain. Bazen han erret gurdi ospetsu bat, askatzea oso zaila zen korapilo bati lotua. Gordiongo orakuluaren arabera, «hura askatzea asmatzen zuenak Asia konkistatuko zuen». Alexanderrek, pazientzia osoz, korapiloa askatu zuen. Edo pazientzia galdurik, ezpataz moztu zuen. Nolanahi zela, egintza haren ondoren ekaitz izugarri bat lehertu zen, eta seinaleztat hartu zuten Zeusek bere onespina ematen zuela. Alexanderrek atsegin handiz onartu zuen interpretazioa, hala Zeusen zerikusiagatik, nola, ez gutxiago, «Asia konkistatze» kitzikagarri harengatik.

– Nire arrakastak eta garaipenak –Alexander mintzo– indar dibinoek aginduak izatetik bakarrik izan zitezkeen hain predeterminatuak. Izatez, behin ere ez nuen derrotarik jasan. Ez neukan beste erremediorik, neure buruari «Zeusen seme» deitzea baizik.

– Horregatik erreklamatzan al zenuen jainkotar baten estatusa?

Ba, bai! –Alexander mintzo–. Nire leinua antzinateko neure heroi kutun biekin loturik zegoen: Akiles eta Herkules. Nire sinestea ez zen delirio batena. Neure ama Olinpiak eman zidan dibinitatea, berak esan baitzidan nire jaiotza «birjina» izan zela, Zeusek berak mirakuluz ernaldia, oinaztu baten bitartez. Nire jaiotza seinale eta mirari handiz inguraturik gertatu zen, eta gau hartan izar distiratsu batek argi egin zuen Mazedoniaren gainean. Gure amak, haurdun gelditu aurretik, amets egin zuen oinaztu bat erortzen zela bere sabel gainera. Nire aita zela uste zuen Filipo II.a asko haserretu zen, ama adulterioz akusatzeraino, amets egin baitzuen bere emaztearen sabela lehoi baten aurpegiarekin zigilaturik zegoela.

– Horiek guztiek ez al daukate ipuin baten antza?

– Horrela hasiz gero, bizitza guztia da ipuina.

33 urte. Jainkoaren Seme, Zeusen Seme. Sorrera biak, birjinak. Batean usoa, bestean oinaztua. Izar bat Judean, izar bat Mazedonian. Paralelismo gehiegi, kasualitate bat izateko.

– Beste kondaira bat ere bada zure jatorriaz, aurrekoen antzik ez daukana.

– Baliteke. Mundu guztiak hitz egin nahi zuen nitaz.

– Baina honek ez dirudi ipuina.

– Bota! Entzuteak ez du izatea aldatuko.

Egiptoko faraoi bat, Nektanebo II.a, Greziara iritsi zen ihesi, pertsiarrek haren laterria berriz inbaditzean. Nektanebo II.a Filiporen gortean onartua izan zen, «mago» bat bezala. Egiptoko Amon jainkoa bezala pertsonifikaturik, Olinpia konbentzitu zuen seme bat sortzeko, bi laterriak salbatuko zituen. Eta Olinpiak, baietz. Faraoi magoak urte batzuk egin zituen gorte hartan, gaueko ibilaldi batean hil zen arte, bere semearekin zihoala. Nola hil zen? Alexanderrek gau hartantxe jakin zuen bere egiazko aita Nektanebo II.a zela. Berria gaizki harturik, Filipo II.ak Nektanebo putzu batera jaurti zuen, eta hantxe eta horrelaxe hil zen magoa.

– Zer diozu horretaz guztiaz? –galdetzen dut.

– Oso gaztea edo umea izango nintzen. Gure gortetik pasatzen ziren pertsonaiak edo pertsonaia-moduak zehaztea zailago da olatuak uzten dituen apar-begiak kontatzea baino.

– Baina zein zen zure benetako aita? Filipo ala Nektanebo?

– Niretzat nahikoa zen Zeusen seme izatea.

Benetako aita Filipo izan zela sinestea nahiko zail jartzen du historiak, ze Alexanderren tronuratzea ez baitzen izan batere erraza. Filipok ama-semeak erbesteratu zituen, Alexander seme adulterotzat jorik. Alexanderren lagunak ere erbesteratuak izan ziren, konspirazio posible batengatik. Filipo asasinaturik hiltzen da, eta Alexanderrek boterea eskuratzen du, tronua erreklama dezaketen arerio guztiak garbituz.

– Ño! –astintzen naiz–. Zeu ere ez zinen hasi zure aita zelakoa baino bigunago!

– Hasierak eta amaierak gogorak izan behar dute nahitaez. Bitartean onar ditzakezu bigunaldi batzuk.

– Zure hasierak non kokatzen dira? Zure kronistek berri gutxi utzi digute zure haurtzaroaz.

– Nire haurtzaroa zorrotza izan zen, baina polita ere bai.

Epiroko Leonidas –Alexander mintzo– mazedoniar maisu austero eta gogor bat zen. Nobleziarik goreneko seme-alabei eskolak ematen zizkien. Eta gure aita Filipok –diodan behingoz «gure aita»– harexen mende jarri ninduen. Lehenengotan, baraurik joanarazten zidan maisuak. Uguiluz eusten nion, baina gero pentsatu nuen: «Honela ibili behar al du Zeusen seme batek?». Behin «ezin dut!» esan nion, eta berak: «Ba, hasi janda etortzen». Baina janda etortzea zen goseari laurden bat kenduta etortzea. Ni erdi bat kenduta etortzen nintzen, eta ez zidan kargurik hartu. Nik uste dut ez ziola igartzen, astiro-astiro ondo janda etortzen bainintzen. Seguruenik, beldurra sartu nahi izan zidan, baina nik ertza topatu nion. Eta konturatu nintzen maisu asko ez direla gauza eurek ezartzen dituzten baldintzak edo gaiak kontrolatzeko. Irakasten dute irakasle agertzeko. Ariketa korporala ere eragin zidan, eta horrek balio izango zidan gero. Zerbaitegatik irabazi nituen orga-lasterketa batzuk, oraindik nerabe nintzela, Olinpiar Jokoetan. Nire heziketaz ere arduratu zen, baina hor ez nuen jaso neure senak ematen zidanaz harago. Eskerrak Lisimako agertu zen, letren irakasle maitagarria. Akiles deitzen zidan, eta gure aitari, Peleo. Homeroren poemak buruz ikasi nituen eta *Iliada* ohapean neukan, gauero. Herodoto historialaria eta Pindaro poeta ere gogotsu irakurtzen nituen.

– Lehen militar kultua izango zinen, beraz.

– Bai, nahi baduzu, baina kulturak atsedenean bakarrik balio du milizian.

– Zuk, gerran ere, Aristotelesen iloba Kalistenes izan zenuen zeure biografo zintzo.

Gizon kultua, inor izatekotan.

– Halakoxea zen, bai. Jainkoek eskuzabal jokatu zuten nirekin.

Alexanderren haurtzaroko pasadizo ugari kontatu ohi da –Kalistenes mintzo–. Entzunena, beharbada, zaldiarena. Filipino II.ak zaldi handi bat erosi zuen, inork ezin zuena ez muntatu, ez hezi. Alexander, oraindik haurra zela, ohartu zen zaldia bere itzalaz izutzen zela, eta begirada eguzkirantz zuela muntatu zuen. Zaldiak ez zuen bere itzalik ikusten, eta Alexanderrek arazorik gabe hezi ahal izan zuen, zaldiak itzalaren izurik ez sentitzeraino. Abereak Buzefalo zuen izena («idi-burua»), eta aitak esan zion: «Seme! Bila ezak hire handitasunari dagokion erreinu bat, ze Mazedonia txikia duk hiretzat». Alexanderrek beretzakotzat hartu zuen aberea betiko, eta Hidaspesko guduan hil zen, mutilak jada 30 urte zituela. Probableago da akiduraz eta zaharrez hil izana, han non Alexanderrek, zaldiaren omenez, *Alexandria Buzefaloa* fundatu baitzuen.

– Zaldi hura –hasperen Alexanderrek malkoz– nire arimaren lautik hiru zen!

– Ez dizut galdetuko –diot nik– zein edo zer zen beste laurdena, baina metafora irregular horiek ez dira itxarongarri militar gerlari batengan.

– Ba, begira! Buzefaloren gainean joaten hasi nintzenean Aristotelesen eskola partikularretara...

– Iso! Aristoteles esan al duzu? –harritzen naiz.

– Aristoteles Estagirakoa. Aitak haren mende jarri ninduen 13 urtetik 16ra.

– Baina Aristotelesek, ordurako, bere obrarik gehiena burutua zeukan.

– Ez dakit. Ni, Mieza hiriko erretiro batean, goizero joaten nintzen haren egoitzara, nahiz eta ez dudan uste irakatsi nahi zidan guztia ikasi nuenik.

– Holakorik! –harritzen naiz berriz eta gehiago–. Bere jakintza amaigabe guztia garatu ondoren, militar gerlari baten prestakuntzan sartu al zen estagiratara?

– 16 urte nituela, esan zidan: «Gazteegia haiz. Itxaron ezak apur bat guduetan parte hartzeko». Nik erantzun: «Itxaroten badut, gaztetasunaren ausardia galduko dut». Eta berak: «Aurrera orduan! Gazteei mugak jartzea eta zaharrei zabaltzea ez duk bidea erreinu bat handitzeko».

Zur eta lur gelditu naiz. Ia asignatura guztietan agertzen zen Aristoteles ospetsu hura, militar gerlari baten hezitzaile? Ez dut guztia ezabatuko, baina berkokatu behar dut haren figura. Nolanahi ere, kontua da Alexander Handiak izan zuela Aristotelesen eragina bere espedizio militarretan, Asian zehar batez ere, aditu-talde mordoa eraman baitzuen berarekin, zoologo, botanikari, ikerlari eta abar. Pertsiarren ohiturez eta tradizioez ere asko ikasi zuen irakaslearengandik. Denborarekin, ordea, Aristotelesen errespetua gutxitu zitzaion, bere bidaietan ikusi baitzuen, maisuaren geografian, gehiena oso okerra zela. Noizbait, filosofo zaharrak bere lanak publikora zabaldu zituen, eta Alexander kexatu zitzaion, esanez:

- Ez duzu ondo egin zeure doktrina akroamatikoak (ezkutuak) argitaratzeaz. Nola gainditu behar ditut beste gizon batzuk, baldin euren entrenatua izan naizen doktrina horiek gizaki guztien jabetza komunekoak izan behar badute?
- Baina, Alexander! –Aristotelesekin haserre–. Mundu guztia konkistatu nahi duk militarki, eta jakintza ere heurtzat bakarrik nahi al duk?
- Jakintza batzuek gutxiengo batenak izan behar dute –tematzen Alexander–. Gizaki guztien esku jartzen badituzu, nola nahi duzu gero horiek konkistagarri izatea?
- Ulertzen diat argudioa, baina hago lasai –Aristotelesekin–. Nire lanak oso gutxiengana iritsiko dituk. Eta hik konkistatu nahi dituan lurretan, ez diate Aristotelesik ezagutzen hire zapata-kordelak baino gehiago.
- Baina arriskua hortxe dago, eta nik ezin dut permititu arriskua aurretik joan dakidan.
- Burugogorra haiz gero! –izaten zen azkenean Aristotelesen argudio bakarra.

Jakintzaren gaineko dominazioa eta konkista-gogo mugagabe hura bakarrik egokitu zitezkeen Zeusen semea zela uste zuen batengan. Aipatu maisuen eragina ukatu gabe, harengan sen berezko bat suposatu behar da, Aristotelesen «unibertsala» bere gain ulertu ez bazuen. Izatez, bere buruarekiko segurtasun hori argiro praktikatzen hasi zen, aitzak gobernu-lanetara asoziatu zuenean, 16 urterekin. Pertsiar ordezkariak pertsonalki errezibitzen zituen, gogotsu haiek Mazedoniak ordain zitzaion Dariok eskaturiko tributu handiak. Adeitsu eta gozo hitz egiten zien, eta horrela, haien oharkabea, informazioa ateratzen zuen lehorbide eta itsasbideena, eta pertsiar armadaren prestakuntzarena. Dena oso baliotsua etorkizunean garatuko zituen ekintzetarako. 18 urte bakarrik zituela, Mazedoniako Zalditeria gidatu zuen Keroneko guduan. Urte berean Traziako gobernadore izendatua izan zen.

Alexanderren karrera ziztuan zihoan gorantz, etxean nobedade kezkarri bat gertatu arte. Alexanderren aita, Filipo II.a, berriro ezkondu zen. Horrek Alexanderren tronueskubidea arriskuan jar zezakeen, eta aitarekin erabat haserretu zen. Ezkontza berri horretan gertakari latz bat izan zen aita-semeen artean.

- Zuk, Alexander –erasotzen diot–, eztei-egun hura ia lehertu zenuen. Berariaz ala zurrutaren ondorioz?
- Zurrutak kemena emango zidan, baina nire kontzientzia argitasun osoan zegoen. Lehen ere esan dizut ez dudala permititzen arrisku bat aurretik joan dakidan.
- Eta betiko gogoan gelditu?
- Geldituko ez zitzaidan, ba, aitzak atzerrira bidali baininduen?

Nire aitaren aitagarrebera berriak –Alexander mintzo–, Atalo izeneko mazedoniar noble ahaltsuak, erregu egin zuen ezkontza berriak oinordeko legitimo bat eman zezan, nire ama Epiroko printzesa bat zelako. Eta Filiporen emazte berriak, mazedoniarra izanik, oinordeko guztiz mazedoniar bat emango zuen, eta ez erdia mazedoniar eta erdia epirotar, ni ei nintzen bezala. Ikusi nuen Filiporen ondorengotzatik alboratua izan nintekeela, sumindu nintzen eta kopa bat jaurti nion aurpegira Atalori, esanez: «Eta ni zer naiz? Sasiko bat?».

Une hartan, Filipino nire aita hurbildu zen ordena jartzera, baina erabat mozkor egonik, estropezu egin eta lurrera joan zen, eta nik ezin izan nion eutsi isekari: «Asia gurutzatu nahi du, eta ez da gauza ohetik ohera pasatzeko ere erori gabe». Gure aita sumindu zen hezurretaraino, eta ama Olinpia eta biok Epirora deserritu gintuen. Konjurazio bat ebitatzeko, Filipok nire adiskide guztientzat ere deserria agindu zuen. Zorionez, Filipok geroago barkatu egin zidan, edo egin behar izan zidan. Ohartu zen, nonbait, bere semea, ni, ez nintzela bazterrean gelditzekoa.

– Heriotza hurbil baten aurreko damua, agian? –galdetzen dut.

– Bai zera! –Alexanderrek mesprexu-aire osoan–. Gure aita eraila izan zen bere guardiako Pausanias kapitainaren aldetik. Susmatu nuen gure ama Olinpiak tramitutako konspirazio bat izan zela. Badaezpada, amari ez nion ezer galdetu.

Kontua ez zen susmo hutsean geratu. Alexanderrek bere amaorde Kleopatraren familiako kide mordo bat hilarazi zuen, tronua erreklama zezakeen inor ez zedin bizirik gelditu.

– Metodo hori Aristotelesek irakatsi al zizun? –galdetzen dut benetako jakin-minez.

– Zer metodo dago besterik, hainbesteren artean bat gelditzeko?

– Eta bat hori, 20 urterekin, aitarenean tronuan eseri! –diotsat, harridura nabarmenduz.

– Eserita denbora gutxi egin nuen nik.

Hori sinesten diot. Mazedoniaren menpeko herri askok Filipino II.aren heriotza –edo hilketa– baliatu zuten matxinatzen hasteko. Alexander Handiak bere agintaldiko lehen urteak bere autoritatea ezartzen eman zituen herri horietan. Mazedoniako tronua eskuratzetik laster, kanpaina arrakastatsu bat burutzen du Balkanetan, Traziaren eta Iliriaren gaineko kontrola berretsiz, Danubio ibaiaren ingururaino. Garaipenaren ahogozoan, abisua hartzen du Tebasiko hiria sublebatu zela, Mazedoniako guarnizio bat hartuz. Alexanderrek tximistan erreakzionatzen du, ia 600 kilometroko bidaia eginez Tesaliaraino, eta bidean eremu guztien gaineko domeinua berretsiz. Eta jarraian Atikarantz abiatzen da, Tebasen sublebazioa itoz. Erresistentzia basatia jarri zioten, baina milaka lagun hil zituen, eta hiria suntsitu eta zabor bihurtu zuen, salbu Pindaro poetaren etxea izan zena. Suntsipenean ere bada poesiaren txokoa. Sublebatuak exekutatu ondoren, hiritar mordo bat entrebistatu zuen, eta geroago hiriaren berreraikitzea aginduko zuen.

Tebasko txikizoaren ondoren, Korintoko Liga izenekoaren buruzagi jarri zen, non Greziako hiriek defentsarako eta erasorako helburu batzuk adostuak zituzten. Alexanderrek, Grezia osoko Hegemon bezala, bere autoritate berria erabili zuen bere aitak amesturiko proiektu panhelenikoa abiatzeko. Alegia: Pertsiaiko inperio hedatsua konkistatu. Hala, greziar guztien gaineko lidergoa beregaindu zuen konkista hartarako.

– Baina grekoek oso harrera arraroa egin zizuten Atenasen, arbuioa ez esatearren.

Ateak itxi zizkizuten.

– Geldi hor! –Alexanderrek, eskua astinduz–. Ateak ez zizkidaten itxi sublebazioz, Tebasen gertatuaren beldurrez baizik.

Nik begirune handia nien –Alexander mintzo– hiriko filosofoei, arteari eta kulturari. Hala, antzeko egoeretan ohi nuen bezala, gutun bat bidali nien, zeinari erantzun zioten: «Eztabaidan ari gara ea zuri bataila eman ala sartzen utzi». Orduan, beste gutun batean, proposatu nien neure armada kanpoan uztea eta neu bakarrik sartzea. Ez zidaten erantzun eta baietz ulertu nuen. Hala, neu bakarrik sartu nintzen Atenasen, laguntzaile talde txiki bat ondoan nuela. Jada han nintzela, Atenasek nire nagusitasuna aitortu zuen, keinu bat eginez Grezia guztiko hegemonizat hartzen nindutela. Mazedoniaren hegemonia berretsitakoan, Pertsiaiko Inperio erraldoia konkistatzera prestatu nintzen.

Gero, Korinton bildurik, jeneral guztien buru aldarrikatua izan nintzen. Politikari eta intelektual ugari etorri zitzaidan, bai bertan, bai urrundik, zorionak ematera.

–Horiek bakarrik? –galdetzen dut maltzurki.

– Horiek eta asko! –Alexanderrek, sorbaldak atzeratuz, ebidentzia bat bezala.

– Ez al zen bat oso berezia izan?

– Hm? –Alexanderrek ezbaian.

– Ez al zebilen han, Korintoko Joko Istmikoetan, Sinopeko Diogenes izeneko bat?

– A, bai!

– Eta?

– Lotsa damait kontatzeak.

Alexanderrek uste zuen –Diogenes sinopetarra mintzo– ni ere joango nintzaiola zorionak ematera, baina ez nion jaramonik egin. Alexander bera etorri zitzaidan bisitan, eta eguzkitan etzanda aurkitu ninduen, Kranio auzoan. Nik, jendetza bat neuganantz ikustean, apur bat agundu eta Alexanderri aurpegira begiratu nion. Elkar agurtu ondoren, Alexanderrek galdetu zidan ea zerbait behar ote nuen. Nik, Diogenesek, erantzun nuen: «Oso gauza txiki bat bakarrik. Aparta hadi pixka bat, eguzkia kentzen didak eta». Alexander, gero berak aitortuko zuenez, «hain eraginik eta miretsirik gelditu zen gizon haren burgoitasun, mesprexu eta independentzi espiritua» ezen laguntzaileei esan baitzien: «Alexander ez izatera, pozik nintzateke Diogenes». Ez dago dudarik Alexander kontra-ironia horrekin saiatu zela gainditzen bere laguntzaileen barreak eta adar-soinuak.

– Beste behin ere esan zizun lotsa ematekoa baino zerbait gogorragoa.

– Ez naiz gogoratzen –dio Alexanderrek.

Neuk kontatuko dut orduan. Diogenes zabor pilo bati eragiten aurkitu zuen. Alexanderrek galdetzean zeren bila zebilen, hark erantzun: «Ba, begira! Esklabo-hezurren bila nenbilen, baina ez dut alderik aurkitzen hauen eta zure aitaren hezurren artean». Argi zegoen Diogenesek Alexander mesprexatzen zuela, baina hau ez zen inoiz ausartu haren aurkako errepresaliarik hartzen. Diogenesen parentesi sarkastikoa utzirik, galdetzen diot:

– Larri zeunden gurutzatzeko Helesponto (Dardanelos itsasartea). Zer egiten duen mendeku gogoak!

– Ez dizut ukatuko –dio Alexanderrek –gogoa galdan neukala Pertsiaiko eremu izugarriek grekoei mendeetan egin kalteak mendekatzeko. Baina argitu behar dizut helburu nagusia zela Asia Txikiko kosta-hiri guztiak eta Egeo itsasoko uharteak berreskuratzea.

– Baina zure gogoa –ekiten nik– argiro harago zihoala esango nuke.

– Hori sekretu militarra da.

Eta lasai gelditu! «Sekretu militarra» arrazoi ontologikoa bailitzan. Ba, «esango nuke» ez ezik, gauza jakina da Alexander Pertsiaiko Inperioaren bila zihoala. Mazedoniarrekin eta aliatu grekoekin 40.000 mila gizoneko armada osatu zuen, Helesponto gurutzatu zuen, eta jada asiar lurrian, Granikoko batailan, pertsiar armadari oldartu zitzaion, berau ere 40.000 gizonekoa. Alexanderrek aisa menperatu zuen etsaia, nahiz eta bera ere heriotzatik hur egon, pertsiar batek atzetik harrapatu zuenean. Eskerrak bere konfiantzako gizon bat, Klito, garaiz ohartu zen eta pertsiar etsaia hil zuen. Ezbehar hori gorabehera, Alexanderrek pentsatu zuen: «Hauxe hasiera erraza!». Zerbaitegatik egin zuen, aurretik, gerald txiki bat Troian, bere idolo Akilesen hilobia ohoratzeke. Dena zetorren ondo. Eta garaipenak ezkontza masiboak ekarri zituen mazedoniar soldaduen eta hiri askatueta emakumeen artean.

- Eta soldadu ezkonberri haiek –baiesten Alexanderrek gailenki– Mazedoniara bidali nituen, negua euren emazteekin igaro zezaten.
- Sari bat ala zeure taktika pentsatu bat izan al zen nahasketa hori?
- Non dago kontraesana? –galdetzen du Alexanderrek eskuak ebidentzia keinuan zabalduz–. Greziako buruzagi nintzen, eta munduko kulturarik handienaren eramale.

Isosko batailan berretsi zen pentsamendu hori. Siriatik hurreko lautada txiki bat mendien eta itsasoaren artean. Pertiako errege Dariok 600.000 soldadu plantatu zituen Alexanderren 50.000ren aurka. Eta Dariok halako hondamendia pairatu zuen ezen ihes egin baitzuen gauaren babesean, gudu zelaian utzirik bere altxorrak, armak eta purpurazko mantua. Darioren familia osoa atzitua izan zen luxuzko denda baten barruan, gatibu eginez haren ama Sigisanbis, haren emazte Estatira eta haren bi alabak, Dripetis eta Barsine. Alexanderrek denak kortesia handiz tratatu zituen, eta agertu zien berak ez zeukala ezer pertsonalik Darioren aurka, baizik haren aurka ari zela Pertiako konkistatzeko. Eta hain zuzen, bera Barsinerekin ezkondu zen, eta bere lagun min eta komandante Hefestion, Dripetisekin. Gaztedi berriaren erromeria bat izan balitz bezala.

- Zaila da sinestea –diotsat muzinkor– operazio txikitzaile hori guztia alde guztien borondate «osoan» gertatu izatea.
- Gertatu zen, ba! –berak deblauki–. Nire asmoa ez zen militarra bakarrik, etnia eta kultura ezberdinen nahasketa baizik.
- A! –jaisten naiz adarretik–. Zerbait ulertzen dudala uste dut.
- Nire ezkontza Zeusen begiko izan zen, ze hurrengo bataila, Gaugamelakoa, nire garrantzitsuena, aurrezean irabazi nuen.

Adituek oraindik esplikatu ezinik dihardute nola mazedoniarren 40.000tik 50.000ra gizoneko armadak hauts zezakeen Darioren bost-hamar bider handiagoa, 200.000tik 500.000ra bitarte. Hauetako erdiak guduan hil ziren. Mazedoniarren eta aliatu grekoen aldetik 5.000 bakarrik, zaurituak barne. Halako hondamendiaren ondoren, Dariok berriro ihes egin zuen, Babilonia Alexanderren mende utzita. Mazedoniarra Pertiako lurraldearen ateetan zegoen. Ez une berean, baina Egipto ere konkistatu zuen.

- Egiptokoa konkista baino areago, harrera triunfal bat izan zen. Askatzaile bat bezala hartu ninduten, haiek ere akiturik pertsiarren domeinuaz.
- Ala zuri aurre egiteko indar gabe? –galdetzen dut.
- Denetik apur bat, baina Pertiarekiko nazka, batik bat. Faraoi ere izendatu ninduten Menfisén, herritarren erabakiz, nik halakorik eskatu gabe.
- Horretan ere ez al da izango «denetik apur bat»? Zerbaitegatik dio zure kronista Kalistenesek exhortazio bat egin zenuela, sartu baino lehen, oihukatuz: «Ireki, Aresen sumina eragin nahi ez baduzue!». Ares, gerraren jainko grekoa.
- Pentsa nahi duzuna, baina Egipto zaharrak zirraratu ninduen. Aurre egin balidate, ez dakit ausartuko nintzen halako kultura bat puskatzen.

Lehen printzipio operatiboa militar bati ezer osoki ez sinestea bada ere, egiptoarrek testigantza ugari utzi digute, harrian grabaturik, Alexanderren egonaldiaz, gertaerez eta gurariez. Errege-jainko bezala ohoratua izan zen antzinako faraoiak bezala, eta Alexanderri tratatu horrek paparra beteko konplazentzia ematen zion, berari horixe zegokiola uste baitzuen. Optimismo hartan, Alexandria hiri ospetsua ere fundatu zuen.

- Zeure izena ezarri, hain zuzen.
- Nola egin behar nuen, ba? –Alexanderrek hanpatuki.
- Bat edo bi ez dagoz txarto, baina zure kronistek diote 50 hiri fundatu zenituela zeure izenez. Adibidez, Oxianako Alexandria edo Ariako Alexandria.
- Berrogeita hamar? Nik egiteko ez da asko, baina hainbeste! –harritzen da bere handitasunaz.

- Berrikus zeure memoriak. Batzuetan, ikaratu egingo zara.
- Nik ez dut atzera begiratzen. Aurrea ere nahiko handi da, osorik ikusteko.
- Eta prest guztia, Pertsiaiko inperioa inbaditzeko.
- Amorrusoz!

Aipa berri dugu, Gaugamela bataila garrantzitsuan –Alexander mintzo–, Pertsiar Inperioaren gainbehera fulminantea hasi zela. Eta Dario III.a erregearen erorrera. Ia-ia aurrera jarraitzea besterik ez nuen izan. Susa hirian aisa sartu nintzen, bidean hiri batzuk okupatuz eta horni-lerroak segurtatuz. Susatik Persepolisera pasatu nintzen, Akemenestar Inperioaren hiriburua berau. Han ez nuen erresistentzia handirik aurkitu, baina, badaezpada, jai batean, hiriko jauregia erre nuen, zertarainoko aldartea nekarren ikus zezaten. Itzalean etzateko ere baimena eskatzeraino errenditu ziren. Armada berria prestatzen ari zelakoa neukan Darioren jazarpenean abiatu nintzen, eta hara non aurkitzen dudana bere nobleek eraila, Bessos izeneko jeneralaren agindupean. Neure lehengo lehiakide eta etsai Dario ohoratu nuen, Isosko batailan abandonatu zuen purpurazko mantuarekin batuz. Erret hiletak egin nizkion eta familiari agindu nion jazarriko nituela haren hiltzaileak, Bessos eta bere agindupekoak. Harrapatu nituen, bai, laster eta ongi.

- Harrapatu eta?
- Beste mundura!
- Eta Pertsiaiko agintari berri bezala beneratu zintuzten.
- Agintari berri eta Erregeen Errege –baiezten du Alexander puztuak.
- Eta mazedoniar eta pertsiar eliteak nahasteko, ezkontza misto masiboak eragin zenituen.
- Ez zen derrigortu beharrik izan. Mazedoniar gizonezkoak hango edertasunen antsiaz zeuden, eta hango emakumeak mazedoniarren ederguran.
- Aizu, Alex! Poderio horren guztiaren barruan, bada zerbaitek barregura eragiten didana, barkatzen badidazu.
- Kostako zaizu ni umorean gainditzea.
- Haurra nintzenetik, zure epitetoa entzutean –Handia, Magno–, norbait monumentala iruditzen nuen beti. Altzoko Handia, Alexander Handia... Baina zu –ezin dut barre txiki bat gorde–, «bat koma hirurogei» baino ez zara barren!
- Baina guztiek esango dizute presentzia ederrekoa naizela.
- Bai, bai! Kutis zuria, sudur makoa ezkerrean, ile hori erdi ondulatua, burua eskuin sorbaldarantz okertuxea...
- Ezaugarri horiek kontrakoak al dira?
- Oso aldekoak, ezkertia zinela jakinik. –Eguzkirantz biratu eta doministiku bat egin dut. «Dominus tecum». Jauna zuekin. –Oso aldekoak diot, ze, beste hainbat bataila odoltsuren artean, Amazonekin ere topaketa bat izan zenuen.
- Polita izan zen, bai.
- Polita bakarrik? Zure biografoek diote umetuta ibili zinela.
- Ez baitzen gutxiagorako!

Amazonak –Alexander mintzo– emakume gerlarien herri bat ziren, zeinen deitate printzipala Diana baitzen, eta fundatzailea, Ares olinpiar jainkoa. Gizarte matriarkal bat sendotu zuten Kaspio itsasoaren hego inguruan, Asian. Egun batez, hura ustekabea Talestris erregina amazonak bisitatu ninduen, 300 emakume gerlarik lagundurik. Ustekabe handiagoa izan zen proposatu zidatenean umeak nirekin izatea, jatorri gerlari eta nobleko emakume oinordekoak lortzeko. Pentsa dezakezunez, ez nuen erresistentzia handirik jarri.

- Ume berriak jaio al ziren?

- Ezin dizut ziurtatu. Handik bederatzi hilabetera, bataila gogor batean nenbilen, handik urrun. Hamahiru egun Amazonekin entzerraturik egina nintzen, eta zerbait agertu beharko zen.
 - 300 amazonekin «zertu» al zinen, Talestris erregina barne?
 - Ez nuen astirik izan kontatzen ibiltzeko. Talestris erregina bai, lehenengoa izan baitzen.
 - Baina, Alexander! Benetan sinetsita ari al zara kontatzen?
 - Nola bestela? Horrelako gertakari bat ezin da gogoratu, ezta ahaztu ere, benetakoa izan ezik.
 - Izan zitekeen delirio bat, behin baino gehiagotan zauritua izan baitzinen, inoiz larriki.
 - Zorotzat hartzen ari al zara historiako militarrik garaileena?
 - Baina, Alexander! Horrelako herririk ez da inoiz izan. Nola sinets dezake horrelako ameskeria bat Aristotelesen hezigai eta ikasle izan zen batek?
 - Aristotelesek hori baino ideia ezinezkoagoak irakatsi zizkidan.
 - Hori sinesten dut, baina bestea ezin da izan. Eta gainera ez dago argi...
- Hau ezin diot berari zuzenean esan. Hots, ez dagoela argi emakumeen zalea izan zen ere. Sexologo bati kontsultatu dizkiot neure suposizioak. Neureak baino gehiago, historiatik datozenak. Alexanderren sexualitateak –dio sexologoak– misterio bat izaten darrai. Bere garaikide izan zen Dizearko Mesinakoak, filosofo, historialari eta geografoak, dio: «Mutil gazteen zaleegia zen». Baita ere dio Bagoas eunukoari publikoan musu ematen ziola. Diogenesek aholku eman ei zion: «Ederra eta ona izan nahi baduzu, jaurti buruan daramazun trapu hori eta etorri gurekin. Baina ez zara horretarako gauza izango, Hefestionen izterrek menperatzen zaituzten bitartean».
- Hefestion, armadako bigarren agintaria –darrai sexologoak–, bere lagunik onena eta maiteena izan zen. Eta sukar txar batek hil zuen, nahiz eta, batzuek diotenez, izan zitekeen pozoiturik hiltzea ere. Kontua da Alexanderrek galera hura nahigabe ia hilgarritz hartu zuela, hainbestean ezen herri hurbil bateko *Kossaei* tribua masakratu baitzuen bere lagunarentzako sakrifizio bezala. (Detaile polita, ezta?). Eta Arriano erromatar idazlearen arabera, Hefestionen medikua exekutatzeko agindu zuen, sendakuntzan huts egiteagatik. Aipatu Diogenesen kasuan, esan behar da honek guztiak mesprexatzen zituela berdin, baina Alexander izan zela haren ironien eta iseken itu nagusia.
- Bestalde –gehitzen dut nik–, Kinto Kurtzio Rufo erromatar idazleak ere dio: «Alexanderrek atsegin sexualak hainbestean mesprexatzen zituen ezen bere ama larri baitzegoen semeak ondorengorik utziko ez ote zion beldurrez». Filipo aitak ere semeari agiraka egin zion ahots zoliegiz kantatzearren, Alexander oraindik txikia zela. Geroago, Filipo erregeak, Olinpia amarekin batera, Kalixina izeneko kortesana garesti bat ekarri zion, joerak finkatzeko-edo, Alexander nerabea Aristotelesen irakatsiekin liluraturik zebilenean.
- Hori guztia, Alexander –diotsat dena entzun balu bezala–, zure izatearekin bat datorrela dirudi.
 - Bat dator, eta naturala da oso. Non dago arazoa, deformaturik ez bazaude?
 - Nire kasuan, baliteke deformazio bat izatea, baina zurean, izaera horrek ez dirudi oso bat Zeusen seme izatearekin.
 - Neu naiz Zeus interpretatzen duena.
 - O, bai! Horrelakoak beste batzuen ahoan ere entzunak ditut.
 - Eta ez al duzu entzuna hiru emazteren senar izan nintzela?

Alexander Handia, bere bizitza ez luzean zehar, pertsiar lurretako zenbait printzesarekin ezkondu zen. Hiru, gutxienez. Roxana, Baktriako Oxiartes satraparen alaba. Barsine-Estatira, Dario III.aren alaba, eta Parisatide, Artaxerxes III.aren alaba. Bi ume ere izan zituen, gutxienez. Bata, Barsine printzesarekin, eta bestea, Roxana printzesarekin. Hau Alexander hiltzetik sei hilabetera jaio zen. Beste hainbat emakume ere agertzen dira Alexander Handiaren bizitzan.

– Hiru emazte horiek eta gainerakoak –galdetzen dut– ez al ziren izan areago tratu militarrek, harreman amodiozkoak baino? Bitxia baita guztiak izatea printzesa pertsiarrek.

– A, gaizoa! Ez al zara oraindik jabetu atzerri urrunetan nembilela? Nire armadan ez zegoen emakumerik, are gutxiago mazedoniarrik.

– Hargatik al zinen hain zalea konkistaleku guztietan ezkontza gurutzatu masiboak egiten? Eta eragiten, zure soldaduak lur haietako emakumeekin nahasiz?

– Egia! Eta etsenplua neuk eman behar nuen.

– Zer lortzeko, militar peto baten buruan?

– Militar hura Aristotelesen ikasle izana zen. Eta fusioa, bai etniena, bai kulturena, balore handi bat zen.

– Jakina! Kultura, helburu militar bat. Ulertzen dut zerbait.

– Hainbeste nahasmen eta errezelo, ez duzu aipatu nire amorante ospetsuen eta maiteena, Tesaliako Kanpaspe.

Ez neukan, ez, ahaztua, onena azkenerako uzteko irizpide ez lar jakintsuari jarraituz. Kanpaspe edertasun izugarriko emakumea zen, Alexanderren pintore kutunak, Apeles ospetsuak, hainbat aldiz pintatu zuena. Apelesek modelo gisan ere hartu zuen, beste koadro ugarien artean, *Venus itsasotik irteten* pintatzeko. Plinio Zaharrak dio, Alexanderrek Kanpasperen *biluzia* amaiturik ikusi zuenean, ondorioa atera zuela ezen Apelesek, seguruenik, neska gazte hura maiteago zuela bere obra baino. Hala, Kanpaspe emaztetzat eman zion pintoreari, eta bera koadroarekin gelditu zen. «Alexander Handiaren azainarik handiena», idatzi zuen espainiar idazle ospetsu batek.

– Ongi, Alexander! Zure erosaren indistintzioaz konbentzitu naiz, erdizka bakarrik.

– Zer da indistintzio bat erdizka?

– Nik uste dut zu zeure buruaz maitemindurik bizi zinela, eta zuk uste zenuela besteek zeure imitatzaile izan behar zutela zurekiko.

– Joño! Arrazoi horixe ez zait sekula bururatu. Jakin nahi nuke argudioa.

Alexanderrek bere irudiaren erreprodukzioa hiru artistari bakarrik baimendu zien. Lisipo eskultore ospetsuari, orfebre bati eta Apeles pintoreari. Aukera txarra? Ez, noski. Oso ona. Baina kontrola ere on-ona. Zeusen seme batek ezin zuen bere irudia utzi edozein mediokreren esku. Bidezkotzat jo zuen hiru artistei instrukzioak ematea ere, nola landu behar zuten bere irudia. Zerbaitegatik uste zuen bera zela munduak emana zuen konkistatzailearik handiena.

– Ulertuta, Alexander! Bestela, zaila da imajinatzea «bat koma hirurogeiko gizontxo bat» lehoiekin borrokan eta abar.

– Izan ziren lehoiak nire aurrean buelta eman zutenak.

– Argi dago lehen ez zaitudala ondo definitu. «Zeure buruaz maitemindurik» barik, «zeure buruaren miresle» esan behar nuen. Edo zehazkien, «zeure buruaz liluraturik».

– Ez dakit mailaketa hori gorantz ala beherantz doan.

– Beherantz agian. Imajinatzen zaitut burua makurtzen eta ontzi eder bateko ur guztia edaten, hango zeure irudia irenstearren.

– Hori ere probatua dut. Saiatzen zara, baina ez duzu aurkituko nitaz ezer, neuk ez dakidanik. Ezta asmatuko ere nitaz ezer, nire buruan ibilia ez denik.

Goazen Indiara, ea zerbait argitzen garen. Alexanderrek pertsiar inperio erraldoia menperatua zuenean, arreta guztia Indiarantz zeukan. Bere ospez baliaturik eta bere trebetasun dialektikoaz fidaturik, Gandhara izeneko satraperia izana zen hartan, oraingo Pakistanen iparrean, hango tribu-buruei gonbita egin zien beragana makurtzeko eta bere autoritatea bakez onartzeko. Aurreikuspenak ez zion huts egin. Taxilako errege Anbhik, Indotik Hidaspeserako erresuma zabalean agintzen zuenak, makurtzea onartu zuen, Alexanderrek eskaini zizkion abantailen eta garantien truke. Mendi-klanetako raja batzuek, ordea, uko egin zioten. Alexanderrek, armadako sail ezberdinen aginte osoa bere esku harturik, *Kanboja* tribuko *Aspasioi* eta *Assakenoi* izeneko azpi-tribu suharrei eraso zien, eta haien erantzuna bortitza izan zen. Bera ere batailan zauritua izan zen, dardo batek sorbalda harrapaturik.

Borroka ferozen ondoren, garaile atera zen, eta ondorioak beldurgarriak izan ziren. 40.000 *aspasioi* gatibu erori ziren. Ondoren, *Assakenoiak* Alexanderri jarki zitzaizkion, 80.000 laguneko eta 30 elefantezko armadarekin. Assakenoiek, Ora, Bazira eta Masaga hirietako batailetan, erresistentzia latza jarri zioten inbasoreari, Alexander berriz ere larriki zaurituz orkatilean. Masagako raja batailan hil zenean, haren ama Kleofisek hartu zuen armadaren kontrola, eta tokiko emakume ugari ere borrokan sartu ziren, euren lurra azkeneraino defendatzeko gertu. Haien zoritxarrerako, azkenean, Alexander, borroka direktoak eta alboko traizioak bide, garaile irten zen. Ondorioa galtzaileentzat katastrofikoa izan zen. Alexanderrek menperatzea lortu zuen tribu guztiak masakratu zituen, eta lurak suntsitu.

- Alexander! Alex! Al! Nahikoa ez al da? Itzul zaitez Mazedoniara eta bizi zaitez edo hil zaitez Zeusen bake olinpikoan.
- Ez da neure kontua bakarrik. Mazedonia eta Grezia osoa daramatzat soinean. Eta Zeusen borondatea.
- Zer nahi duzu? 50.000 gizon eta 10.000 zaldi atzean dituzula, mundu guztia korritu, kamamiltan joatea bailitza? Ba al dakizu tropa hori guztia pasatze hutsa ere zer den?
- Nire destinoa inperioa handitzea da.
- Noraino? Zu gizon kultua zara. Ezin zara izan destino itsu baten artefaktua.
- Kultua naizelako dakit inperioak handitze etengabea izan behar duela.
- Hara! –harritzen naiz uste gabeko alderantz–. Antzeko kontzeptu bat dakarkit horrek. Zuk ezin duzu entzuna izan, baina gure garaian aldarrikatu izan da «iraultza etengabea».
- Ideia interesgarria horixe! –harritzen Alexander ere itxura berdinean–. Alda hitz bat eta «konkista etengabea». Etengabea, nahitaez.
- Zergatik nahitaez?
- Muga batean gelditzen bazara, mugaz handikoa etsaia da edo etsai bihurtu daiteke. Segurtasunak konkistan jarraitzeko eskatzen dizu. Baina orduan beste mugaz handiko bat gertatuko da. Hura ere konkistatu behar duzu, segur sentituko bazara. Hala, hurrengo hurrengo, beti dagoke mugaz handiko bat, konkistatzen ez baduzu, konkista zaitzakeena.
- Beraz, mundu guztia konkistatzean bakarrik amaituko dela konkista «etengabea».
- Ez guztiz. Beti dago bazterren bat, sublebatzea otuko zaiona.
- Aurrera orduan! Oraindik asko falta zaizu.

Pertsiar Inperioa edo Akemenestar Inperioa edo Inperio Akemenidoa. Akemenes izeneko errege pertsiarrek sortutako dinastia. Inperio honek, Alexanderren garaian, bost milioi kilometro karratu hartzen zituen, Mazedoniatik Himalaiaren azpiraino. Alexanderrek lortu zuen hori guztia konkistatzea, baina haren buruan obsesio bat zegoen: India.

Aditu batzuek diote inbasio-indarra 120.000 gizon zirela, eta beste batzuek kopuru hori erdira jaisten dute. Ez da gutxi erdia, animaliak ere milaka jo behar baitira. Armadaren indar nagusiak oraingo Pakistanerantz jo zuen, Khyber pasabidetik. Indar txikiago batek, Alexanderren beraren aginte pertsonalaren pean, ipar ibilbidea hartu zuen. Armadak zatitzea Alexanderren taktiketako bat zen.

Bidea berez ere luzea izanik –Alexander mintzo–, erresistentzia latzak aurkitu nituen, batez ere Aornosko setioan. Aurreko batailetatik ihes egitea lortu zuen kopuru handi bat gotorleku natural harrigarri hartan babestu zen, nire armadari berriz jarkitzeko gertu. Mendi izugarria zen, 3.000 metrotik gorakoa, sendoki indartua, mendiarte estuen gainean, Indo ibaiaren goi aldean. Gailur lau eta zabal bat zeukan, berezko iturritz ondo hornitua. Goiera bera ere mendiz inguratua eta laborantzarako nahiko hedatsua. Setioa gosez planteatzea alferrik zen. Mehatxu hura nahitaez eliminatu behar nuen, neuk ere neure hornibideak behar baintuen, Hidu-Kushetik Balj-eraino. Zailtasunik handiena nondik sartu zen. Edo nondik izango zen sarbiderik onena. Iritsiera bakarra zeukan, oso estu eta malkartsua. Handik igotzea ez zen hain zaila. Baina iritsiera hura ezagutzen eta defendatzen zuten setiatuek, eta beste sarrera bat aurkitu behar zen, berria eta ustegabea. Aurretik niregana errendituak ziren tribuetako kide batzuek lagundu zidaten, haiek ezagutzen baitzuten ingurua.

Kontatzea luzeegi litzatekeen larrialdiak izan ziren. Behin irabazten, behin galtzen, menditzar haietan sugandila galduak bezala. Neu ere gudu-trantze batean doi-doi salbatu nintzen bizirik. Menditik mendira pasatzeko, lur-mendi artifizialak egin behar izan genituen. Batzuetan egin eta trokara erortzen ziren. Irauten zutenen gainean setio-makinak kokatu behar genituen, sarritan alferrik, goragoko mendietatik harritzarrak jaurtitzen zituzten eta. Guk atzera egin behar, hainbat gizonen galeraz. Barruko jai-oihuak eta danbor-hotsak entzuten genituen, garaipena ospatuz. Baina guk, haiek ospakizunean zebiltzan bitartean, beste lur-mendi bat eta sokak baliatuz, gotorlekuaren beraren gailur printzipala harrapatu genuen. Defentsoreek, zur eta lur, han hauteman gintuztenean, itxaropen oro galdu zuten eta emisario bat bidali zuten nigana, errendizioa eskainiz, euren bihiak errespetatuak izatearen truke.

Negoiazioak –Kalistenes biografoa mintzo (beroarena kenduta)– hainbeste luzatu ziren ezen, gau batez, ihes-plan bat egin baitzuten, beldurrez ezen, errenditzen baziren, masakratuak edo esklabizatuak izango zirela, lehenxeago Massagako setioan bezala. Alexander konturatu zen planaz, eta ez zuen ezer egin, bere soldaduei erretiratzeko eskatu baizik, defentsoreek libreki ihes egin zezaten. Hasi ziren ihesean, eta salbu zirela uste zuten unean, Alexanderrek eraso zien eta bertan masakratu zituen. Bizirik joan zirenak kontsidera zitezkeen bakoitza mirari bat. Aornosko garaipen honek Alexanderri bidea libre utzi zion Punjab-erantz, eta haren garaiezin-ospeak sakon ezarrita prezeditu zion Indian.

– Aurrera, Alex! Aurrera! –oihu dagit–. Ez al dizu minik ematen atzean utzi dituzun zeure milaka soldaduen gorpuek?

–Min ematen didana da balienteenak hiltzen direla.

– Min hori bidezkoa izan daiteke militarki, baina humanoki ez al duzu nabaritzen kontzientziaren zamarik?

– Soldaduek badakite euren bizia uztera datozela goragoko helburu jainkotiar batzuen alde.

– Adibidez?

– Grezia bera. Eta, noski, konkistaren atsegina!

– Hori ere Aristotelesek irakatsi al zizun?

– Aristotelesen nozio handietako bat polis-a zen, eta haren polis-a Atenas zen.

- Jakintza ere polis-aren azpiko, beraz? –harrapatzen saiatzen naiz.
- Azpiko ez. Zerbitzuko! Horrexegatik ari da Atenas hain handi egiten.
- Pentsatzen nuen zure buru-moldean horrelako zerbait egongo zela, baina zeure ahotik entzutea ezberdina da. Beldurgarria ere bai.
- Orduan Indian aurrera jarraitzea besterik ez zaigu gelditzen –haren ondorio betikoa.

Alexanderrek, Aornos aurretik, armada bi indar-sailetan zatitu zuela esan dugu. Aornoskoaren ondoren, hurrengo urteko udaberrian, bi indarrak batu eta Taxilako Anbhi erregearekin aliatu zen, Paurako errege Poros-i erasotzeko, honek Alexanderri aurre egitea erabaki baitzuen. Mazedoniar armada askoz handiagoa zen, baina Porosek bazuen ezusteko sail bat: berrehun gerra-elefante. Hauen presentziak zalditeria ezereztea ekar zezakeen, pakidermoek zaldi grekoei eragiten zieten panikoa bide. Bi armadak gaur egun Jhelum deritzon Vitasta ibaiaren (grekoz, Hydaspes) ertz banatan kokatu ziren. Grekoak mendebal ertzean, indioak ekialdekoan. Hara lehenago iritsia zen Poros prest zegoen Alexanderren edozein gurutzatze saio oztopatzeko. Euri monzonikoen ondorioz, korrontea oso bortitza zen, eta ubidea, sakona. Indarrez gurutzatzeko ahalegin txikienak galera itzelak eragingo zituen.

Noizbait –Alexander mintzo–, esploratzailek aurkitu zuten gunea on bat gurutzatzeko, egunsentia baino lehen, kanpamendutik gorantz 30 kilometrora. Gau hartan bertan, nire indarren parte handi bat gunea hartara translatu nuen, sekretuki eta oposizio gabe. 10.000 oinezko eta 5.000 zaldun. Kontingente nagusia Krateroren agindupean gelditu zen. Agindu nion ibaia gurutzatzeko, elefanterik aurka ez zegoenean, eta Poros, bere tropa gehienekin, niri aurre egiten ari zenean. Nire multzoak gauean gurutzatu zuen ibaia, egunsenti aurrean, eta atsedean apur bat egin zuen, Porosen kanpamenduari eraso baino lehen.

Errege indioa itzartu zen, eta hara non hautematen duen grekoen indar zehazgabe bat bere posiziorantz etortzen. Porosek pentsatu zuen hura distrakziozko maniobra bat izango zela, eta kontingente txiki bat bidali zuen, bere semeak gidatua. Indar txiki hau grekoek aisa deuseztua izan zen, eta erregearen semea batailan erori zen. Berri horiek jakitean, Porosek erabaki zuen nire multzo txikiari aurre egitea bere tropa gehienekin, destakamendu txiki bat utzirik Kraterok lideratutako mazedoniar armadako multzo nagusiaren aurrean, ibaia gurutzatzea eragozteko.

Hortik aurrera, azaltzeak luzeegi joko lukeen mugimendu konbinatu eta ustegabe asko eta zailen ondoren, eta indioen aldetik guretik baino mila bider hildako gehiago gertatu ondoren, bataila amaitu zen indioen armada osoaren errendizioz, erabat inguraturik berau. Bataila oso luzea eta beldugarraro odoltsua izan zen. Porosen armadan, 12.000 hildako izan ziren, eta 9.000 gatibu. Nik 300 bat gizon galdu nituen. Porosen kemenak eta gaitasunak hainbestean hunkitu ninduten ezen bizia barkatu bainion, eta baimena eman bere izenean gobernatzen jarrai zezan. Sorbaldan zauritua izan arren, zutik eta tente aurkitu nuen, bere ia bi metroko altueran. Nola tratatua izatea nahi zuen galdeturik, erantzun zuen: «Trata nazazu, Alexander, errege bat bezala».

- Alexander! Ezin dut irudi barregarri bat ezabatu begietatik. Poros ia bi metro, eta zu bat koma hirurogei.
- Eta hura nire mende! –oihu Alexanderrek.
- Hm! Zure errelatoa ez dakit guztiz sinesgarria den. Bizia barkatu, nork eta zuk, armada etsai baten buruzagiari? Hainbeste kostatako batailan, hain hildako gutxi zure aldean, eta hainbeste mila aurkakoan?
- Ni berdin naiz militarra borrokan nahiz errelatoan.

Beste aldekoek diote Alexander Porosek derrotatua izan zela. Edo gutxienez, parra egin eta bake-itun bat sinatzea adostu zutela. Alexanderrek dio bakea berak eman ziela bizirauleei, eta haiek gogoz hartu zutela, bestela sententziaturik baitzeuden. Nori sinetsi? Alde batera, oso esanguratsua da Alexanderren erabakia. Dudatzekoa ez al da huraxe izatea bere azken bataila, eta hainbeste urtetako konkistak bertan behera uztea, betiko? Argudiatzen du bere ofizialak ekialderantz jarraitzearen aurka jarri zirela. Armada akiturik eta desmoralizatzen hasirik ei zegoen hainbeste urtetako kanpainan. Horren aurka, haren azken bataila dioen bezain garaipen biribila eta arrakastatsua izan balitz, zaila da eragitea halako akidura bat, ia matxinada bat.

– Irabazteak ere nekatu egiten baitu! –Alexanderrek, etsipen aire ineditoan–. Galtzeak baino gehiago askotan, saria hurrengo bataila baita.

– Baina zuk aurrera nahi zenuen setati, eta atzera egin behar izan zenuen marmarti – erasotzen diot erruki gabe.

– Neuk bakarrik jo behar al nuen aurrera?

– Ez, Alex, ez! Zeu bakarrik ez zinen Alexander Handia. Ezta Alexander ere. Ezta Alex ere! Aitor ezazu, pertsona bezala, derrota historiko bat izan zela. Ala ez al zinen pertsona?

– Nintzena nintzen eta nire urguiluak ezin du jasan galtzaile sentitzea jokatu gabeko partida batean, aurrera egitea erabaki bagenu.

Kontua da –Kalistenes mintzo (oraingoan beroarena kendu beharrik gabe)– Alexanderrek Babiloniara itzulera agindu zuela, ez aurretik bi hiri berri fundatu gabe: *Nikaiako Alexandria* eta *Alexandria Buzefaloo*. Bi «Alexandria» berriz ere, eta Nikaia = Garaipenaren Hiria. Eta «Buzefaloo», Hydaspesko azken batailan hil zen bere zaldi kutunaren izena. Bidean, zenbait tribu porrokaturik aurre egin ondoren, Babiloniara iritsi zen, eta gaitz txar batek jo zuen. Eta bertan hil, K. aurreko 323. urtean, Nabukodonosor II.ren jauregian. Bere jeneral Antipatroren semeek pozoiturik hil zela ere jotzen da. Kasandro eta Yolas eurok, bigarrena bere koparia. Kasandro, urte batzuk geroago, Mazedoniako errege egingo zen, Alexanderren familian garbiketa on bat egin eta gero. Pozoi-bertsioarekin oso ondo josten den jarraipena berau.

– Alexander maite! Ez dakit azken datuok entzunak dituzun, baina zure gorpua urrezko hilobian eta hilobia urrezko karroza batean sartu zuten, era eta luxu guztietako apaindura, epigrafe eta osagai mitologikoekin. Historian zehar, hainbeste tokik zure jabetza aldarrikatu ondoren, badirudi, azkenean, «Alexanderren sarkofagoa» deritzona Istanbulgo Museo Arkeologikoan dagoela. Suposatzen dut barruan egongo zarela.

– Hemen nago, bai, nintzena baino naizenago. Eman eskerrak Zeusi solasaldi hau eman dizudalako.

– Zeus horrek barkatuko ahal dit gauza bat aipatu gabe ezin uztea. Kalistenesen patua.

–Hm?

– Patua zer den ez al dakizu?

– Hmm...

– Lasai! Neuk kontatuko dut. Itxi sarkofagoa apur batean.

Olintoko Kalistenes. Filosofo eta historialari grekoa. Aristotelesen iloba. Honen gomendioz, Alexander Handiaren biografo pertsonala. Denboraren joanean, Alexanderrek zeremonial bat ezagutu zuen Pertsian, *Proskynesis* izenekoa. Belauniko jarri eta bekokiarekin lurra jo behar zen erregearen aurrean, honen jainko-izaeraren debozioz. Alexanderri zeremonial hura gustatu eta bere menpeko guztientzat ezartzea erabaki zuen. Erabakia oso gaizki hartua izan zen mazedoniarren aldetik, tartean Kalistenes bera. Hau, behin, ez zen belaunikatu Alexanderren aurrean. Harrezkero, Kalistenes Alexanderren kontrako begian geratu zen.

Handik laster, Alexanderrek «pajeen konspirazioa» izenekoa moztu behar izan zuen, eta aukera baliatu zuen Kalistenes akusatzeko eragileetako bat bezala. Filosofoa atxilotua eta espetxeratua izan zen. Alexanderren jeneraletako bat, Lisimako, Kalistenesen adinkide eta adiskide zen, eta egunero bisitatzen zuen bere laguna. Honek behin esan zion Lisimakori: «Ez da komeni hain maiz bisita nazazun. Alexanderren haserrea bil zenezake». Lisimakok erantzun: «Ez diot horregatik utziko zu ikustera arratsaldero etortzeari, zeren, pertsona zintzoek zure zoriaz arduratzeari utzi diotela ikusten bada, denek usteko dute errudun zinela». Azkenean, Kalistenes bere gatibutzan hil zen, torturengatik edo inaniziaz.

- Historia erdiragarria, ezta?
- Hmm... –Alexanderrek, mausoleora begira.
- Entzuna al zenuen zerbait?
- Ez diat badakidana entzun beharrik.
- Hara! Eta zer iruditzen?
- Egun osoa xahutu dugula berriketan. Amaitu egin behar diagu.
- Et, et, et! Amaitu ez. Garrantzitsuena falta da.
- Nola garrantzitsuena, bi milenio eta erdi korritu ondoren?
- «Sentitzen dut» dio esaerak, baina hil behar zaitut, «bat ere sentitu gabe».
- Hik hil ni? Zergatik?
- Neuk ere badakidalako hiltzaile izaten.
- O, gaizoa! Hila nauk barren!
- Zu baino zerbait handiagoa hil behar dut: zure memoria.
- O, gaizoago! Munduko museo, liburu eta arte guztietan nauk barren!
- Hortxe hilko zaitut, hain zuzen.
- Ilargiari tu egin ziona baino zoroagotzat joko haute.
- Ez guztiek. Ez gehienek ere. Buzefalo maite! –hots egiten diot Alexanderren zaldi kutunari–. Hator heure ugazabaren bila.
- Nola hilko nauk...
- Hil zaitut! –mozten diot zapla–. Aurrerantzean izango zara: «Alexander Benetan Handia. Munduan izan den Kriminalik Handiena».

KARLOMAGNO

- Ni, Karolus Magnus. Zuretzat, Karlomagno. Niretzat, Karlos I.a Handia.
- Zein dira zehazki izen horien funtsak?
- Frankoen errege, Lonbardoen buruzagi, Imperator Augustus.
- Zer esan nahi du bokantza handios horrek?
- Erromatar Inperioa ez al duzu entzuna?
- Jasan nuen zerbait ikasketetan.
- Ba, adi! Erromaren handitasun hura erori zenetik hiru mendetara, neuk ezarri nuen berriz Mendebaldeko Erromatar Inperioa. Hispaniatik Danubio eta Elba ibaietaraino, eta Italiar penintsulatik Danimarkaraino.
- Errege baino gehiago da hori.
- Errege absolutua. Enperadorea.
- Aita Santu batek koroatua!
- Neure ederra irabazi nahi hark ere.
- Anti-aita santu batek kanonizatua.
- Hura ganberrada bat izan zen.
- Eliza katolikoak urtarilaren 28an beatotzat beneratua.
- Eskertzekoa, baina erraz ahazten zaidan xehetasuna.
- Zeure buruari «Jainkoak koroatua» deitzen zeniona.
- Horrek esplikutzen du aurreko guztia.

Pipino Laburraren eta Laon Bertradaren seme (nork ipini ote zion kalifikazio ridikulu hori gure aitari?), zorteak libratu zuen lehen gerra familiarretik, bere anaia Karloman I.a, aginte-kidea, bat-bateko heriotzak eraman baitzuen. (Esamesa zerri batzuek zabaldu zuten neuk eragin nuela heriotza. Zorionez, predilekzio dibinoak aurea hartu zidan). Aitasantuekin, bere aitagandik zetorren adiskide-harremana sendotu zuen (izatez, neure mende jarri), eta Italiar nagusitu zen, lonbardoak derrotatuz. Irene zeritzon emakume bat erregina zuen Eki Inperioak ez zuen Karlomagnoren izendapena onartu, baina Karlo aurrera. Handiak handiagotzeko, Karlomagno eta Ireneren arteko ezkontza-planak ere bilbatu ziren, baina huts egin zuten. Eta gerra abiatu! Ezkontzaz ezina armaz konpondu behar. (Nola, bestela? – Bai, bai! Aurrera!). Azkenean, Eki Inperioak ere Karlomagno enperadoretzat aitortu zuen.

- Une horretan, zure anbizioak asean behar zuen, baina badirudi alderantzizkoa ekarri zuela.
- Zailena lortu eta gero, ez nuen utziko errazenean saiatu gabe!
- Ondorengo zure lehen konkista, Saxonia, ez bide zen hain erraza izan. Hamazortzi kanpaina!
- Azkenengoa irabazten baduzu, aurrekoak ez dira konda, derrotak barne.
- Derrotak ere sartzen al dira zure kalkuluetan?
- Gertatzen dira. Olagarroa bezalakoa naiz. Beso bat galdu arren, beste batzuk geratzen zaizkio, galdua birstortu bitartean.

Eta galtze horretan erori diren guztiak? Karlomagnok ez du pentsatzen zer galdu duen, aurrerako zer indar geratzen zaion baizik. Horrela begiraturik, Germaniar Inperio berri bat osatu zuela aitortu behar. Batzuek diote Europa osoari eman ziola bere forma ia behin-betikoa.

- Eskerrik asko! –Karlomagnok, paparra zabalduz–. Ez al da hori emaitza eder bat?
- Emaitza, izan daiteke. Ederra, dudan. Metodoa, brutala.

- Orduan dena zen brutalitatea, entitate txikienetik handieneraino. Tribu koxkorrenak ere armatuago zeuden elikatuak baino.
- Hortik atera nolakoak izango ziren zure metodoak –jarkitzen natzaio–, hain lurralde ezberdinak eta ugariak inperio beraren uztarripean ezartzeko, aitasantutza barne.
- Ez nauzula lar begiko dirudi–. Errukiz begiratzen dit.
- Argudio batzuk beharko nituzke kontrakorako.

Nire «metodoak» diozue –Karlomago mintzo–, baina nik Europa guztia kristautasunera ekarri nuen. Saxonian zorrotz eta gogor jokarazi zidaten, germaniar politeismo setatiak ere amore eman behar izateraino. Ez zen erraza izan. Kristautasunera bihurtu eta gero ere, errebolta bortiz bat abiatu zen, Elizaren aurka zenbait eraso larri eginez, Windukind izeneko buruzagi erraigabe baten agindupean. Verdenen, 4.500 saxoniar dekapitatu behar izan nituen («behar», e?) euren paganismo natiboa praktikatzen harrapatuak izan baitziren. Horrek berriz ere bi urteko gatazka odoltsuak ekarri zituen, eta 30.000 saxoniar translatu behar izan nituen inperioaren beste herrialde batzuetara. Azkenean, lortu nuen denak menperatzea eta haien flotarik gehiena erretzea. Windukind buruzagiak onartu zuen bataiatua izatea. Ez, ordea, haren menpeko guztiek. Heriotz zigorra dekretatu behar izan nuen (berriz ere «behar»!), bataiatzen ez, kristau festak ospatzen ez, eta hilak errausten zituzten saxoniar guztientzat. Nire kronista Eginardok dioen moduan: «Hainbeste urtez irauniko gerra amaitu zen noizbait, erregeak eskainitako baldintzetara makurtu zirenean. Baldintzak ziren: euren erlijio-ohitura nazionalei eta demoniak adoratzeari uko egin; erlijioaren eta kristau fedearen sakramentuak onartu; eta frankoekin batu, herri bakar bat osatzeko».

- Kurrikulum alimaleko horrek indarra ere araberakoa eskatuko zuen.
- Behar zen guztia, behar zen guztian.
- Esan nahi dut ez naizela gauza irudikatzeko nolako indar tamaina izan zitekeen.

Karlomagnoren armada zen, VIII. mende azkenerantz, 100.000 kanpaina-gizon. Hor sartzen zen herrialde eta tribu ezberdinetan erreklutaturiko tropa-multzo eskerga bat. Gehi 10.000 soldadu profesional, denbora osoan. Gehi 6.000 zaldizko, euren zaldiekin. Eta mertzenarioen beste hainbesteko multzo bat. Gizon eta animalia, 120.000 buru inguru, gutxi gorabehera. Gora gehiago, behera baino.

Bat-batean, bihozkada bortitz batek eman dit hobe dela gerra bat galtzea, aipatu bezalako armada bat gainetik pasatzea baino. 120.000 buru. Eta zaldiak, eta karroak, eta katapultak, eta baleztak, eta lantzak, eta makutoak, eta zorroak, eta ez dakit zenbat eratako horniak eta trepetxuak. Elefanteak ere bai, lurralde batzuetan. Tronpakada bat pasaeran, eta bi tximinia lurrera. Pentsa 120.000 buru gehi beren gerragai horiek guztiak pasatzea, gaur bertan, adibidez, Bizkaiko Txorierriko 20.000 lagunengainetik. Edo Gipuzkoako Goierriko 70.000 lagunengainetik. Edo Sakanako 20.000 lagunengainetik. Edo Arabako edo Iparraldeko edozein haranetako X lagunengainetik. Pasatu ez. Jan! Jan ez. Errautsi! Otien izurria baratzetik pasatzea bezala? Hori bera, baina otiaren tamaina Karlomagnoren neurrira jasota. Ia bi metroko gorputz deskomunala. Pentsa horrelako oti bat! Ez dakit berriz pasako naizen Sakanatik, Goierritik, Txorierritik.

Eta oraindik ez duzu aipatu Bavieraren menperakuntza. Hura gogorra eta odoltsua izan zen gero! Ez duzu aipatu avaroen aurkako kanpaina ere. Ez gerra soil bat, gerren sail bat baizik. Bai, Karlo! Pentsatzen dut horrenbeste. Zuk gerrak katean nahi zenituen. Hots, ez zedila katea eten. Errutina bat. Eta errutina zen urtean gerra bat. Horixe nahi zenuen. Hots, horixe bakarrik zenekien. Eta azkenean, Danubio ibaiaren luzean, Panoniako avaroak txikituz, kanato avaroaren menperakuntza gauzatu zen. «Gauzatu zen». Hala, inpertsonalean? Ez, noski. Neuk, Carolus Magnus honek. Eslaboen aurkako

espedizioak ere neuk burutu nituen bezala, Elba ibaia gurutzatu eta lurralde abroditak azpiratuz.

– Nahikoa da, Karlo! Kontatzen ere nekatu egiten naiz.

– Ondo dago! Nekea da gerra bat geldiaraz dezakeen bakarra. Gelditu bakarrik. Atzerarik ez, galduta ere!

– Horrelaxe mintzo dira irabazten ohituta daudenak. Irabazte bakoitzari galtzaile errukarri bat dagokiola gogoratzen ez zaienak.

– Nork esan dizu hori? Niri bai! Galtzaile guztiak banan-banan gogoratzeak ematen dit euforia irabazlea. Gustatzen ez zaidana da derrotak gogoratzea. Ezta akatsak zuzentzeko ere.

– Niri gustatzen zait, ba, zure derrota bat kontatzea!

– Izan bedi labur eta ulertzeko modukoa.

– Ulertuko duzu, baina gerotxoago. Lehenik, argitu dezagun misterio bat. Leon III.a aita santua erromatarrek eraso izan ei zen, begiak eta mihia erauzten saiatu zirela. Erromatarrek Erromako aita santuari begiak eta mihia erauzi! Egia al da hori?

Egia, neu berton hiltzeko! –Karlomagno mintzo–. Leon III.ak ihes egin zuen eta neurekin babestu zen Paderbornen, eskatuz Erroman eskuhartu eta bere gobernua berrezar nezala. Erromara bidaiatu nintzen 800. urtean. Gogoan daukat, zenbaki biribila zelako. Batzar bat egin zen, zina hartu nion, Leon III.a errugabe deklaratu izan zen, eta meza solemne bat ospatu zen Eguberri egunean. San Pedroren basilikako aldarearen aurrean errezatzeko belaunikatu nintzenean, aita santuak koroa bat ezarri zaidan, hots eginez: «Zu zaitugu Erromatarren Enperadorea».

– Eginardo zure kronistak dio zuk ez zenekiela aita santuaren asmoen berri, eta ez zenuela nahi izendapen hura.

– Eginardo gizajoak batzuetan ez zion antzik ematen gorteko martxari. Egia esan, kasu horretan, neuk agindu nion halaxe konta zezan. Nola ez nintzen, ba, konturatuko aldarean zain zegoen koroatzar hartaz, dena bitxiz eta distiraz betea?

– Eta zuri normal egin al zitzaizun aita santu bategandik enperadoretza hartzea?

– Bost mende lehenago, Eliza enperadore batek bihurtu zuen inperio (Konstantino). Normala orain alderantziz gertatzea.

– Ala gertaraztea? –xaxatzen dut–. Susmatzen baitut zuk norabide bietan agintzen zenuela.

– Ikusten dut gure Eginardo dontsua baino maltzurrago zarela.

– Orduan, oraintxe gogoratuko dizut gustatzen ez zaizun zerbait.

Karlomagnok bere konkistetan jarraitzen zuen, ez zekien besterik, eta Italiaren konkistatik ikusi zuen arabiarrek nagusi zebiltzala Mediterraneoan. Ezin zuen jasan inor nagusi izatea bere inguruan, eta Korsika eta Sardinia konkistatu zituen, eta jarraian Balear Uharteak. Itsasertz katalana, Girona eta abar, kontrolaturik, Hispaniako musulmanen aurrean aurkitu zen. Haren zorionerako, hauek ere ez ziren elkarrekin ondoegi konpontzen. Goi aldeko buruzagi musulmanak eten gabe sublebatzen ziren Kordobako autoritateen aurka, eta sarritan laguntza eskatzen zieten frankoei. Zer besterik nahi Karlomagnok! Iritsi zen Zaragozaraino, non handik eta inguruetatik, Kataluniatik eta Hueskatik, bildutako gobernari musulmanek frankoen errege handiari omenaldi handi bat eskaini baitzioten, laguntza militarren truke. Karlomagnok aukera aproposa ikusi zuen bai bere agintea, bai kristandadea hedatzeko, eta iberiar penintsula okupatzera jo zuen.

Jo nahi izan zuen, zeren Zaragoza bera ere ez baitzen erori hark uste bezain arin. Areago oraindik, bere karrera guztian aurre egin behar izan zion batailarik zailena aurkeztu zitzaion. Hain urrun joanik, han derrota bat pairatzeko pentsamenduak eta probabilitate handiak bertigoa sartu zioten, eta erretiratzea eta etxera itzultzea erabaki zuen. Eta gorantzean, berariaz edo aurreko koldarkeriaren mendekuz, Iruñea erabat kiskali zuen. Iruñetik, erretirarik egokiena eta konpromisorik txikienekoa Orreagako Pasabidea izango zela pentsatu zuen. Hantxe zegoen zain Iruñearen mendekua, bere erreinaldi guztiko gertakaririk ospetsuena eta Karlomagnoentzat dohakabeena ekarri zuena.

Kronika ofizialistek diote erretaguardiako zutabeari eraso ziotela, baina han gertu zeuden baskoiak ezin ziren izan armada gehienari pasatzen uzteko bezain ergelak. Baskoiak Orreagako Pasabideko mendiarte estu eta sakonetan oldartu ziren, eta bai armaz eta bai goietatik jaurtitako harrien erauntsiz, txikizio totala egin zuten Karlomagnoen gizon, zaldi eta gurdien gainean. Armadako hainbat gizon ospetsu hil ziren bertan, ospetsuena Errolan, zeinak, gero, *Chanson de Roland* izeneko gesta-kanta frantses ospetsua inspiratuko baitzuen. Karlomagnoen armada mankatua soineko zirtzilak zerizkiola igaro zen Iparraldean zehar Akitaniarantz.

– Zeuk ere, Karlo, gogoan izango duzu Errolan. Zeure iloba ei zen. Orreagan akabatu ei zen.

– Nire iloba? Orreagan hila?

– Ez al zaizu gogoratzerik interesatzen?

– Ez dakit interesa ala zer den, baina ez naiz gogoratzen.

– Ba, *Errolanen Kanta* izenekoak a zer kondaira fabulatzen duen zure alde!

– Fabularik ez du behar nahi beste egiaren jabe denak.

– Orduan, olifantea jotzen ekingo diogu, Errolanek bezala.

– Olifanteaz bai gogoratzen naiz! Tematu nintzen, baina ezin izan nuen ondo ikasi.

– Adar txikiegia zuretzat, izenak kontrakoa badirudi ere.

– Hori egia! Beldur nintzen irentsiko ote nuen.

Misterioa baita nola zen gizona hain handi, hain luze, hain lepo marduleko. Amak esaten zion: «Gehiegi hazi behar duk, Karlo! *Kankailu* burla egingo diate». Eta Karlok: «Zer egingo dut, ba? Jateari utzi?». Utzi ez, Karlo, baina pixka bat gutxiago jan! Beharbada, pixka bat gehiago ikasi, beti armak probatzen ibili gabe. «Karlo! –amak ia egunero–. Irakurtzen ikastea komeni zaik. Idaztea ez duk hain derrigorra, baina irakurtzea!». Karlo saiatsen zen, baina hizkiak txikiegiak ziren haren bururako. Nola zitekeen «Magnus» izan irakurtzen jakin gabe? Argi dago. Karlomagno zen. Pipino Laburraren semea zen. Aita Santuen laguna zen. Marsil errege sarrazenoak Errolanen Kantan dioenez: «Egidazue hitz Karlomagnoz. Jada oso zaharra da, bete du bere aldia. Nire iritzian, berrehun urtetik gora izan behar du. Hainbeste lurretan zehar erabili du bere gorputza! Hainbeste estokada hartu ditu haren ezkutuak! Hainbeste errege opulento aurkitu ziren haren erruz eskale bihurtuak! Noiz egongo ote da gerra egiteaz aserik?».

Ba, ez, Karlo! Ezin zenuen irakurtzen ikasi, beti gerran ari zinela. Lotan ere, gerraz ametsetan. Artaburua ez zinen. Zeure hizkuntzaz gainera, latina ere bazenekien. Grekoa ere ulertzen zenuen. *Grecam vero melius intellegere quam pronuntiare poterat* –dio zure kronista maite Eginardok. «Grekoa hobeto ulertzen zuen hitz egiten baino». Baina amak nahi zuena zen zuk irakurtzen ikastea, ez dakit zertarako. Orduan eta orain, armak beti arma, eta amak beti gogoz kontrakoa agintzen.

– Adiskide! –altxatzen zait gizon puska–. «Handi, luze, kankailu, lepo-zabal» eta horrelakoak esan dituzu, baina ez duzu esan ni nintzela ile-zuri, luze, eite galanteko edertasun inponente bat. Begira nola margotu nauten monarka ideal bat bezalako. Koadro askotan, Kristoren antz handiko ikonoetan ageri naiz. Konplexio sendoko gizaseme ezin ederrago bat, sarritan Kristo bera ere gainditzen duena. Hori guztia ez daiteke etorri kankailutasun hutsetik.

– Eta egun handietan, diadema ikusgarria eta soineko brodatuak eta bitxiz josiak janzten zenituen.

– Nor jantzi zitekeen horrela, enperadore gorena ez bazen?

– Eginardo zure biografoa saiatu zen zure izate diskreto eta neurtua laudatzen.

– Eginardo zintzoegia zen, batzuetan gizajo punturaino.

– Esan nahi al duzu zeuk agintzen zeniola zer eta nola idatzi? –jaurtitzen diot.

– Inoiz ere ez! Bazuen berak aski sen nire gogo interpretatzeko. Gizajo punturaino esan dut, baina ez. Aszeta samarra zen. Samarra baino gehiago. Izenak berak ere (Eginardo) ez al dizu zerbait iradokitzen?

– Handiena ez dugu aipatu.

– Kristorena baino handiagoa?

– Hortxe-hortxe. Zure tronura igoera Jainkoaren Lurreko Inkarnazio bezala aurkezten da. Hori sinetsi al zenuen?

– Sinetsi zuten! –Karlomagnok irmoki–. Ez nintzen hasiko gogo zintzoko fede guztiak puskatzen.

– Metodo jatorra horixe! –neuk ere, erdi trufaz–. Lehenik sinestera behartu, eta gero sinestunak errespetatu.

– Inork ez zuen inolako susmo txarrik egin inperio guztian.

Dena dator bat –idatziko luke gaur Eginardok–. Karlomagno oso katolikoa eta debotoa zen, eta aita santuekin harreman estua izan zuen bizi guztian. Aita santuek enperadorearen premia fisikoa ere bazuten, diogun premia militarra, inbasoreengandik defendatzeko. Eta Karlomagnori oso ondo zetorkion aita santuaren oniritzi moralak. Funtsean, inperio kristau bat izanik, bien onerako zen kolaborazioa. Beste kontu bat zen gorentasuna. Karlomagnok laster ezarri zuen enperadorearen gorentasuna aita santuaren gainetik. Aita santuren batekin gatazka gogorra izan zuen, honek aitasantutza baitzuen ezarria gorengo. Baina Karlomagnoren indarra militarra zen, eta aita santuarena, moralak bakarrik. Horrela, aita santua Jainkoaren ordezkari bazen lurrean, enperadorea Jainkoaren inkarnazio zen lurrean. Teologiak jo zezakeen nahi zuen misterioetara, baina armen espirituak ez zuen ematen zalantzarako biderik.

– Karlo! Ez al zara hainbeste gerraz eta gerra kontuz akitzen? Ez al daukazu beste ideiarik buruan?

– Nire buruan dagoena zer izan daiteke besterik, bizi guztian egin dudana baino?

– Ba, ni aspertu naiz solas horiekin.

– Zer besteri eragingo diogu orduan?

– Nik uste dut zeure familian ere kontagai interesgarriak dauzkazula.

Ai, nire familia! Ez zen beti aitaren ezpaleko gertatu. Nire gobernuak gozatu ahal izan zuen lehen bake-aldian, semeak izendatzen hasi nintzen, eurek hartzeko erreinuko kargu garrantzitsuagoak. Aita santuak oliatuak izanik, semerik gazteen biak errege egin nituen. Karlomanek, «Pipino» izenez, Italiako erregetza hartu zuen, eta gazteena, Luis, Akitaniako errege izendatua izan zen.

Biak ondo hezi nituen erreinuko ohituretan eta gainerako jakintza beharrezkoetan, eta lurralde horien gainean zerbait kontrol luzatu nien, baina beti ere, badaezpada, boterea neure eskuan zegoela. Semeen aldetik ez nuen inolako insubordinaziorik toleratu, hainbestean ezen seme bat, Pipino Konkorduna, desterratu egin bainuen, bera ere tarteko zen errebolta baten ondorioz.

- Semeekiko jokaera ulertzen dut zerbait, baina zuk alabak ere izan zenituen.
- Oso kutunak!
- Hain kutunak ezen beti etxean eduki baitzenituen, zeure inguruan.
- Eta pozik guztiak!
- Baina ez zenien ezkontzeko baimenik eman.
- Ba, ez! Eta uste dut ulertu zutela. Inperio osatu berria oraindik behar bezala finkatu gabe zegoen. Alabak halako eta bestelakorekin ezkontzen hasiz gero, albo-adarrak sortzeko eta zabaltzeko arriskua zegoen, adar nagusiaren aurka errebelatuko zirenak.
- Alabak, orduan, etxeko dontzeila neskame!
- Et, et! Nik alabei harreman estramarital guztiak baimendu nizkien. Euren maitaleak ohoratu nituen. Eta sortzen zituzten ume bortak ere maite izan nituen.

Ai, Karlo! Zenbat balio duen inperioaren handitasunak, eta batasunak, halako libertateak edo libertinajeak permititzeko! Hori ere ulertzen dut, Jainkoaren inkarnazio baitzinen, aita santuaren gainetik. Zesarren eta Alexander Handiaren jainkoek hoberik egin zuten, eta egiten utzi! Baina zure alabek ez zuten zorte edo zorion luzerik izan. Zu hiltzean, zure seme Luisek –ba al dakizu hori?– gortetik desterratu eta komentuetara bidali zituen. Zeuk aukeratutako komentuak, hain zuzen. Hainbesteko aurreikuspen bihurria izan al zenuen? Ez erantzun! Konforme naiz jakiteaz zure alaba batek, Bertak, harreman bat izan zuela, agian ezkontza ere bai, ez-sakramental, Angilberto ospetsuarekin. Beste zenbait ofizioz gainera, abadia bateko abata berau. Bi ume izan zituzten, gutxienez. Horren berri jakingo zenuen, Angilberto zeure gortekide izan baitzen, eta ia batera hil baitzineten. Enperadore ezin katolikoago baten alaba abadia bateko abat beneragarriarekin, harreman ez-sakramental, bi ume, eta gainera, senar santua. San Angilberto. Eta umeen ama, Berta, komentuan. O tempora! O mores!

Ez da gutxiago bitxi –zorionak, Karlo!– zenbat emazte eta zenbat amorante izan zenituen. Hogei seme-alaba, hamar emazte edo amorante ezagunengandik. Izenak ere ez nolanahikoak: Gersuinda, Madelgarda, Rutilda, Amaltruda, Regina, Adelinda, Adeltruda... Eta ezezagunak, Jainkoak jakin zenbat. Berrogei urteko erreinaldi batek konkista mota guztietarako astia eman zizun. Erdi Aroko kondaira batek infernua kokatzen zaitu, non animalia amorratu bat eten gabe ari baita zure genitalak dekoratzen, hauek eten gabe berritzen direla. Eskerrak Dantek *Komedia Dibinoan* ezarri zuela zure espiritua, «Martitzen zeruan», «fedearen soldaduen» ondoan. Batzuek zure gorpu inkorruptua desehortzi eta tronu batera altxatu zuten, soinekorik ikusgarrienekin. Beste batzuek hilobia ireki eta sarkofago batera aldatu zintuzten, zeru-lurretako luxurik handienen barruan. Orain Akisgrango katedralean ei zaude, geldi-geldi. Gustura ere bai, nik uste. Hor zaude, ezta?

- Karlomagno naiz! Distantzia guztietatik hitz egin dezaket. Zertara dator elkarrizketa hau, inoiz inor egiten ausartu ez zaidana?
- Prestakuntza bat izan da ondoren datorrenerako.
- Zer etor daiteke eternitate baten ondoren?
- Karlo! Zu hiltzera nator!
- Duela hamabi mende ez al nintzen hil?
- Ez behar bezala. Benetan hil behar zaitut.
- Zergatik?

- Neuk ere badakidalako hiltzaile izaten.
 - Hilda nago barren!
 - Ez guztiz. Zure memoria hil behar dut.
 - «Magno» nauk barren! Nola ezabatu behar duk mundu guztiko idulkietan miretsia den figura historiko bat, historikoena ez bada?
 - Idulkietatik ezingo zaitut kendu, babesle boteretsuak baitituzu. Bai erauziko zaitut gizaki zentzudunen gogoetatik.
 - A, gaizoa! Paranoia horretara iristeko onartu al diat solasaldia?
 - Bai, Karlo! Egizu azken «barre-magnoa». Hilda zaude memoria sanoetan.
- Bakarrik iraungo duzu Gizadiaren Historia Kriminaleko figurarik handien artean.

INOZENTZIO IV.a AITA SANTUA

– Ni, Inozentzio IV.a Aita Santua.

Giza figura monumental bat, ahoz gora etzanda. «Monumentala», ez baitakit monumentu bat ez ote den. Burua tiara potente batean sartua, aurpegia bistan, eskuak ere bai, ezkerre bakuluari helduta, gorputzaren luzeran alba gorriskaren tira bat gorgoiletik oinetaraino, botoi ilara bat idem, kolorea ezberdintzen saiatuz, eta gainerako ingurua mantu gorri, zabal, luze batek bildua. Galtzerdi gorrien zerrenda bat oin barrenetan, eraztun erara ikusten dena, eta zapata zuriak, punta-zorrotzak. Kolore hauek pintatuak izan behar dute, zaila baita harri itsatsiak izatea. Hor dago, edo datza, Inozentzio IV.a Aita Santua. Ez dago argi soinekoak naturalak ala harrizkoak diren. Barruan, beraz, gorputz inkorruptu bat egon daiteke, edo harria. Berdin dio. Hitz egiten du.

- Zein da zure zenbaki kardinal horren grazia?
- «Berorren» esan nahiko zenuen.
- Ez dut pentsatu behar zenik. Entzuna nuen heriotzak denak berdintzen zituela.
- Orduan, errepika galdera.
- Zein da edo zein dira zure graziak?
- Eliza Unibertsalaren 180. aita santua.
- Zer da zehazki «unibertsala»?
- Botere zerutar eta lurtar ororen gaineko autoritatea.
- Galdera zuztargabea badirudi ere, hori bakarrik al da zure grazia?
- Ez dakit zer izan daitekeen gorago –Inozentziok, sabairantz begira.
- Gorago ez agian, baina garrantzitsuago bai.
- Intrigan hasi behar al dugu solasaldia?
- Misterioan areago. Saiatuko naiz bere tokian seinalatzen.

Jatorrizko izena, Sinibaldo dei Fieschi. Hegazti kantari baten jaikiera dirudi. Sinibaldo aita santu hautatua izan zen konklabearen garaian, Erromako inguru guztien kontrolatzailea Federiko II. Hohenstaufen zen. (Honek hegazti akustiko bat dirudi). Izatez, Federikok dominatzen zituen Estatu Pontifizioak ere. Hala, aita santuaren hautua ere saiatu zen kontrolatzen, baina kardinalen gehiengoa kontra azaldu zen.

Inozentzio IV.a hautatua izan zenean, Federiko II.ak mezulariak bidali zituen bakea adosteko. Bakea? Bai. Federiko II.a eskumikaturik zegoen, Gregorio IX.aren aldetik. Denen gainetik Elizarekin itun bat nahi zuen. Baina uko egin gabe bere botere eta eragina izateari Elizaren erabakietan. Inozentziok pentsaera guztiz hierokratikoa zeukan. Hots, sinetsita zegoen Elizaren boterea, eta zehazki aita santuarena (hots, berea), Jainkoarengandik zuzen etorria zela eta gobernarien eta errege-erreginen gainetik egon behar zuela.

- Inozentzio goren hori! Ezagutuko duzu delako esan hura: «Eman Zesarri Zesarrena eta Jainkoari Jainkoarena».
- Hara! Ebanjelioa irakurrita al zatoz?
- Agindu hori entzun ez duenik ez dago gure munduan. Badirudi zuk ahaztua duzula.
- Nola izango dut ahaztua bere ordezkari zuzena naizen Hark esana?
- Jesukristo esan nahi duzu?
- Nor, ba, besterik?
- Ez dakit. Aita santu batek haren izena zuzenean esatea itxaroten nuen.
- Esango dut, ba, gogoz eta bihotzez! –Inozentziok, paparra joz—. Jainkoaren seme Jesukristoren ordezkari zuzena naiz.

– Eta aipatu esaldi hori nola ulertzen duzu? Arima guztien gainetik, eta Zesarren gainetik ere bai?

– Ez dago Zesarrik, arima bat ez duenik –Inozentziok irmoki.

– Baina Jesukristok ez dut uste esaldi hura zentzu horretan jaulki zuenik.

– Zuk azaldu behar al diozu aita santu bati Jesukristok esanen zentzua?

– Egia! Segi dezagun geurean.

Konpontzera iristekotan, Inozentziok Federikori exijitu zion aitor zezala Elizari egindako kaltea. Ez gutxi kostata, iritsi ziren bi aldeak akordiora. 1244-03-31. Bertan, Elizaren posesioak aitortzen ziren. Batez ere, Estatu Pontifizioak. Eta enperadoreak preso zeuzkan aita santuaren aldeko gotzainak askatu zituen.

– Gotzainak preso, horrela multzoan?

– Zerk harritzen zu? –Inozentziok–. Jesukristo gurutzean josi zuten.

– Ez dakit konparazio hori egoki ekarria den, baina gauza arraroak gertatzen ziren Erdi Aroan.

– Arraroegiak! Pentsa neuk ere, aita santu izanik, Lyonera jo behar izan nuela neure burua babestera.

– Hori arraroena duda gabe! –harritzen naiz inolako inkario gabe–. Bakea sinatu eta gero, aita santu bat ihesi?

– Ez nengoen batere lasai Italian, milizia inperialek han jarraitzen baitzuten.

Inozentzio IV.ak, bere babes aitzakian, mendekua pentsatua zera. Lyonera iritsiz batera, Lyongo Kontzilioa konbokatu zuen. Enperadoreari ez zitzaion bat ere gustatu. Baina Inozentziok bere posizioa sendo ikusi zuen, eta kontzilio ekumeniko hartan, akusazio larriak formulatu zituen enperadorearen aurka. Eta errege eta enperadore tituluetatik kendu egin zuen. Liskarra, nola ez, abiatua zen berriz. Handik laster, Inozentziok IV.ak *Agni sponsa nobilis* izeneko bulda diktatu zuen. Bertan, Elizaren botere gorena deklaratu zuen gobernarien gainetik. Federiko II.ak, usurpatua sentituz, tropak antolatu zituen, aita santuari aurre egiteko. Eta Inozentziok, indartua sentiturik, enperadorearen aurkako gurutzada bat antolatu zuen, printze alemanak mobilizatuz. Aldi berean, enperadorearen aurkako altxamendua eragin zuen ipar Italiako hainbat hiritan. Hura mugimendua, oraindik trenak asmatzeko zeudenean! Eta garaipena lortu zuen, 1249-05-26an.

– Inozentzio garaile! Honek geraldaldi bat merezi du.

– Merezi du, bai. Atsedena behar dut! –Inozentziok, bataila amaitu zen unea bailitzan.

– Atsedena lasai pentsatzen lagunduko digu –saiaetzen naiz bere alde–. Kezka handi batek jo bainau.

– Atsedena lasaia eta kezka handia bateragarri al dira? –Inozentziok ezbaian.

– Ez, beharbada, nire kasuan, baina zurean...

– Mintza zaitez argi, ilunkeria ibili gabe.

– Eskerrik asko! –animatzen naiz–. Hona arrazoia, argi. Zesar guztien gainetik gorentasuna Elizarentzat ezartzen ikusi zaitut. Nik uste nuen zure zelaia espiritualak bakarrik zela. Eta hona non aurkitu zaitudan oraintxe tropen buruzagi. Militar gerlari, nola Julio Zesar, Alexander Handia, Karlomagno... Ez dut esango harrigarri, baina niretzat oso ezustekoa izan da.

– Ez dakit zergatik! –muturtzen Inozentzio–. Baldin zeu ere ez bazara zorriak lez ugaltu ziren herese haietako bat.

– Zorriak edukitzeko, burua ere behar da zerbait –eranstean nik.

– Ba, erabili zerbait hori! –bizitzen Inozentzio–. Nola nahi duzu makurraraztea, beste era batera, enperadore eskumikatu bat, Eliza Amari hainbeste min, arpilatze eta apalmendu pairarazi ziona?

– Enperadoreengandik edozer itxaroten ikasita nago, baina aita santu baten gorentasuna miliziaraino jaitsi zitekeela pentsatzeko maliziarik ez dut inoiz izan. Uste nuen Elizaren «arsenal santuan» bazirela beste era batzuk.

Inozentzioren begiradan haserrea nabari dut. Gorrotoa ere esango nuke, aita santu bat ez balitz. Jakin behar zenuke –pentsatu dut esan nahi duela haren isiltasunak– Federiko II.a hil eta gero ere, haren ondorengoek eta alboetako errege, printze eta jauntxoek eten gabeko gatazkak eta harrapaketak burutu zituztela nire aurka, Erromaren gidaritza espirituala ere lokatzeraino.

Eta bai! Apulia aita santuaren jabetza bihurtu zenean, hango gobernari Manfredok, sarrazenoen laguntzaz, aita santuaren tropak derrotatu zituen Foggian, 1254-12-02an. Aita santua derrotatua izan zen! Aita santuaren «tropak».

– Hori entzun nahi al zenuen? –etorri zaio hitza, harriren baten pitzaduratik.

Ez diot erantzun, buruko bere tiara mugitzen iruditu baitzait. Eta Inozentzio IV.a, gaixorik, Napolesen hil zen, urte hartako abenduaren 7an. Ez naiz ausartu berari esaten, baina guztiek diote derrota haren albisteak haren osasun higatuan eragindakako efektutik hil zela. Igarri didala uste dut zer pentsatzen aritu naizen, hasperen kirrizkari batez esklamatu baitu:

– «Sic transiit gloria mundi!». (Honelaxe doa munduko loria). Nire munduko «joana» ez zen izan hain loriosa.

Pena eman dit, baina pentsatu dut: «Ez, ba! Ezin dut atzera egin, garrantzitsuena falta denean». Eta begiak betiko ixtera zihoala, agindu diot:

– Inozentzio guren! Zaude pixka batean! Begiak ixteko, eternitate osoa daukazu.

– Esan arin esan beharrekoa. Argitasunak min egiten dit.

– Hasieran agertu dizut bazela gauza garrantzitsuago bat, bere tokian seinalatuko nuena.

– Esan! –Inozentziok mingoski.

– *Ad extirpanda*. Zer diotsu horrek?

– Bulda bat, neuk promulgatua.

– Gogoan al duzu zertaz?

– Xehetasunak berrikusi beharko nituzke.

– Neuk emango dizut bat. *Ad extirpanda* buldako pasarte batek dio:

«Gainera, funtzionarioak edo Errektoreak torturapeko aitortza lortu behar du atzeman dituen heretiko guztiengandik, gorputza kaltetu gabe edo heriotz arriskua eragin gabe, zeren, benetan ere, lapurrak eta arimen hiltzaileak baitira, eta Jainkoaren sakramentuen eta kristau fedearen apostatak. Euren erroreak aitortu behar dituzte eta ezagutzen dituzten beste heretiko batzuk salatu, baita ere hauen konplizeak, estaltzaileak, erlijiokideak eta defentsoreak, nola behartzen baitira gizatxarrak eta munduko ondasunen lapurrak euren konplizeak akusatzera eta eginiko gaizkiak aitortzera».

– Errekonozitzen al duzu pasarte hori?

– Nola ez errekonozitu bulda haren mezu nagusia?

– Ondo gabiltza orduan. Lehen-lehenik, lotura bat argitu nahi nuke. «Torturapeko aitortza, gorputza kaltetu gabe». Nola gauzatzen da kontraesan bat dirudien hori?

– Teknika egokiak aplikatuz –Inozentziok punpa-laster.

– Teknika espiritualak, gorputza ukitzen ez dutenak?

Sumatzen dut elkarrizketa hausteko zorian dela. Kontua da, bulda hartan, Inozentzio IV.ak torturapeko aitortza promulgatu eta zabaltu zuela Eliza unibertsalera. Aita santuaren eremua «unibertsala» baita. Hots, unibertsoa. Solasaren inkoherentzia txiki batzuk gorabehera, argiro baieztatu du torturapeko aitortza kontzientzia osoz aldarrikatu zuela. Halako kontundentziaren aurrean, ausartu naiz jaulkitzen:

- Nik uste nuen tortura, metodo legezko bezala, brutalitate bat zela.
- Bai hitz hanpatua horixe! –trufatzen Inozentzio.
- Zu gatazka militarren buru eta ihesi ere ibilia zara –estutu nahi dut–. Gertatu al zitzaizun inoiz torturatua izaterik?
- Ez nuen izan zorte hori.
- Ba, sentitzen dut benetan!

Argi dago. Inozentzio IV.aren *Ad extirpanda* buldak tortura legitimatzen zuen konfesio-bide bezala. Eta nahiz eta buldatik aipatu pasarte horretan, «heriotz arriskua eragin gabe» zehazten zen, zaila da pentsatzea nola lortzen zen torturatzea, arrisku hori eragin gabe. Tortura ez ezik, Inozentzio IV.a izan lehen aita santua, herese berrerorleen «heriotza» dekretatu zuena. Heriotza! Vatikanoren posizio teologikoen kontrako usteak ukatzera makurtzen ez zirenen zigorra zer izango eta... heriotza! Metodoa izango zen sua, urkabea, gillotina, gurutzea... Inozentzioren IV.aren *Ad extirpanda* bulda berretsia izan zen ondorengo aita santu Alexander IV. eta Klemente IV.aren aldetik. Ez zen, beraz, doktrina puntual bat, Elizaren posizio organiko bat baizik.

Inozentzio IV.aren alde argudia dezakezu bulda horren aurrekari argiak izan zirela ia mende bat lehenagotik. Luzio III.ak, 171. aita santuak, *Ad abolendam* bulda promulgatu zuen. «Ad abolendam diversam haeresium pravitatem». Hereseen txarkeria ezberdinak erauzteko. Kataroak, valdenseak eta arnaldistak kondenaturik, ortodoxia katolikotik apartatzen zen edozein indiziplinaren aurkako tresna efektibo bat bilakatu zen bulda hura. Hereseen «zigor fisikoa» autoritate laikoaren esku uzten zen. Alegia, bulda horrek ezartzen eta, beraz, bultzatzen zuena zen aginte laikoak aplikatu zezala zigor fisikoa. Esan gabe doa «zigor fisiko» horren termino zehatza «tortura» zela. Hala, *Ad abolendam* bulda hura geroko Inkisizio Santuaren enbrioi bilakatu zen. Hona zer zioen pasarte esaguratsuenak:

«Aurreko neurriei (...) gehitzen diogu ezen artzapezpiku edo apezpiku bakoitzak, bakarrean edo diakono baten edo beste pertsona zintzo eta egoki batzuen bitartez, urtean behin edo birritan, hereseak han bizi direla susmatzen den parrokiak ikuskatuko dituela; eta bertan izen oneko hiru pertsona edo gehiago, edo, beharrezko bada, komunitate osoa, derrigortuko ditu, zinpean, apezpikuari edo diakonoari jakinaraztera ea hereserik ezagutzen duten edo inork batzar sekreturik egiten duen edo nor urruntzen den eliztarren bizimolde, ohitura edo ibilbide komunitatik».

Horrela, neurriak finkatzen dira hereseen aurka, tribunal iraunkor batean. Tribunal episkopala. Hori guztia Elizaren barne jardunari gagozkiola. Handik kanpoko kargu laikoentzat ere eginkizun zehatzak ezartzen dira. Hala agintzen da:

«Kondeak, baroiak eta beste jaun batzuek zin egin bezate Elizari lagunduko diotela hereseak aurkitzen eta zigortzen, nahi ez badute eskumikatuak izan eta ondasun eta eskubide guztiak galdu. Beste guztiek ere promes egin bezate, zinpean, apezpikuen edo delegatuen aurrean salatuko dituztela heresian bizi direla edo elkarte sekretuetako partaide direla susmatzen den pertsona guztiak. Apezpikuek urtean behin edo birritan, elizbarrutiko hiri eta herri guztiak bisita bitzate sakrilegoak deskubritzeko; esku sekularrari entregatuak izan bitez apezpikuek heresetat deklaratuak izan direnak eta euren krimena aitortu ez dutenak. Eta baita izan bitez betiko infametzat joak eta euren enpleguetatik kenduak».

- Inozentzio guren! Hitz egiteko moduan al zaude?
- Entzuten dut.
- Orduan, zure aurretik zetorren fardel hori guztia kontuan harturik, zuk ez zenuen egin zehaztasun terminologiko bat ezarri baizik, ala?
- Horixe da galdera bat egiteko era bihurria! –murrusutzen da mutur betean.
- Barka! Aita santuek, beharbada, ez duzue gehiegi landu ulermena. Hauxe da galdera: Zure aurreko aita santu Luzio III.ak zioen «sakrilegoak esku sekularrari entregatzea» eta zuk ezarri zenuen «tortura» terminoa ez al dira gauza berdina edo oso berdintsua?
- Baietz pentsa daiteke, baina pentsatu egin behar da. Guztiek ez zuten pentsatzen, eta gutxiago berdin pentsatzen. Nik ez nuen ezer asmatu, baina terminoa zalantzarako zirritu gabe zehaztu behar zen, eta horixe egin nuen. Ondorengo aita santuek eta kristauak ez zuten gutxi eskertu.
- Ez al zenuen pentsatu «torturapeko aitortza», edo beste gabe, «tortura», gizakiak asma dezakeen brutalitate handiena dela?
- Uf! Berriz ere hitz hanpatu hori! –Inozentziok nazka airean.
- Orduan neuk ere, zuk bezala, ekarpen terminologiko bat eginez, diodan, «brutalitate» ordez, «krimena». Zuk hitz hori ondo ezagutu behar duzu.
- Ezagutzen dut, bai!
- Orduan, ez al zenuen pentsatu tortura dela gizakiak asma dezakeen krimenik handienetakoa?
- Inozentzio isilik gelditu da, burua alborantz jaurtiz, labezomorro baten pasaera ikusten bezala. Badakit zer pentsatzen ari den: «Nola esango diot honi, agian federik ere ez duenari, aita santua ez dela gizaki bat, Jainkoaren ordezkaria baizik? Eta Jainkoak era guztietako krimenak toleratzen dituela, isiltasun misteriosoan, gero, egun batean ... Bo! Zertarako jarraitu sinesgogorre ezer esplikatzen?».
- Zuk, Inozentzio, entzuna izango duzu, predikatu ere maiz, Jainkoarengan sinesteak egintza libre bat izan behar duela.
- Horixe da, hain zuzen, fedea: nahimen libre bat Jainkoarengana errenditu.
- Eta beste bide bat hautatzen duen nahimena... sutara? Torturara?
- Ez duzu ulertu –Inozentziok paternalki–. Jainkoaren fedeak librea izan behar du nahitaez, ezin baita kontzibitu Jainkoarengandik apartatzeko libertaterik.
- Hortik atera behar al da libertatea norabide bakarreko hautua dela?
- Jainkoa ez al duk bakarra? –berotzen da Inozentzio–. Hain zaila al duk ulertzea nahimen baten hautu naturala fedea dela?
- Ongi! Buka dezagun dialogo inestizida hau.
- Egun erdi zeramagu hizketan, eta oraindik ez didak esan zertara etorri haizen.
- Zu hiltzera, Inozentzio!
- Ni hil? Zergatik?
- Neuk ere badakidalako hiltzaile izaten.
- Aspal di hilda nagok barren! –Inozentziok iseka pontifikalean.
- Zure memoriak badirau, baina hiltzea merezi duzu, torturaren brutalitatea, edo nahiago baduzu, torturaren krimena, bulda baten solemnitatean legitimatu zenuelako. Eta praktikatu zenuelako!
- Ez nauk ikaratzen! –zimurtzen zaio begirada–. Orain arte egon naizen harri eta paper guztietan jarraituko diat oroitu eta ohoratua izaten.
- Ondo dago zuk paperetan jarraitzea, memoria kondenatu baten lekuko. Ez dakizu zenbat jende albiatuko den eta zenbat poztuko diren orain daramazun epaiarekin.
- Zein duk zehazki epaia?
- Aurrerantzean, zu izango zara historiako gaitzik handienetakoa.

GAZTELAKO ISABEL I.a

- Ni, Gaztelako Isabel I.a.
- Ohore bat, andere! Zein dira zure graziak?
- Batzuk. Handienak, bi. Erregina Katolikoa eta Inperio Espainola.
- Lehenengoa ez al da, zeure grazia barik, aita santu baten emaria?
- Zer dago grazia handiagorik aita santu baten emaria baino?
- Horrela esanda, arrazoia dirudi, baina Aita santu hori Alexander VI.a. zen. Tratulari predatzaile handiaren fama utzi zuen.
- Nik ez nuen horrelakorik susmatu.
- Aita Santu horrek berak ohorezko distintzio bat eman zizun 1500. urtean: Kristandadearen Urrezko Arrosa. Hitz handiosak benetan!
- Beste grazia hunkigarri bat.
- Zerbaitegatik emango zizun titulu hori –ekiten nik–. Alexander VI.ak badakizu nolako entzutea zeukan. Iritzi orokorrak zioenez, «ezin da Alexander VI.aren erreputazioa salbatzen ahalegindu».
- Ez dakit –Isabelek albo-airean–. Gu Erromatik urrunago bizi ginen Erroma gugandik baino.
- Alexander VI.a Valentziakoa zen!
- Nik ez diot aita santuen jatorriari begiratzen.

Gaztelako Isabel I.a honela bakarrean harrapatzeak espektazio urduria eragin dit, beldurra ere halakoa damaidan neurrian. Odolak oldarrera bultzatzen nau, baina senak zuhurtzia agintzen. Politikari eta pentsalari mundialki ospetsu eta maitatu bati entzun berri diot: «Espainia oraindik Isabel I.arekin bizi da». Bost mende irentsi edo okatu behar ditut, hasierara iristeko. Bestalde, Isabelek aurpegi angelikala erakusten du. Hizkera ere xuabea, arrosarioa errezatzen bezala. Beharbada, halaxe ikasia delako, baina berdin dio. Ondo hartu behar dut, garrantzitsua baita sentitu bezala hitz egin dezan.

- Bigarren grazia, Isabel. Hori bai. Hori zeurea da! –diotsat zabalki–. Inperio Espainola zeure grazia da, duda gabe.
- Eta harrotasuna! –konbikzioz eta indarrez.
- «Bizkaiko anderea» ere izan zinen.
- Eta Aragoiko, Siziliako...
- Ez da behar. Grazia «nagusiak» aipatzen ari gara. Bada beste bat ere, oso...
- Horiek baino handiagoa? –mozten dit.
- Ez dakit. Bego oraingoz. Bere tokian agertuko da.

Isabelen aginte-bizitza Aragoiko printze Fernandorekin ezkontzeak nabarmenduko zuen, aita santuaren dispentsa-bulda eta guzti. Bigarren gusu-gusinak izanik, dispentsa hori gabe ezin ziren ezkondu. Zailtasun itxura baten barruan, erraz lortu zutela esan daiteke. Truke bat, aita santuaren ordezkari Rodrigo Borjaren bitartez. Isabel eta Fernando dispentsatuak, eta hauek Gandia hiria eman Rodrigo Borjaren semeari.

Auzi kanokiko eta tratuzkoak alde batera, ezkontza bitxia izan zen. Lehen-lehenik, artzapezpiku bat izan zen (Alfonso Carrillo) Isabel aholkatu zuena Aragoiko Fernando hauta zezan ezkongaitzat. Dena sekreturik osoenean burutu ei zen.

- Egia al da hori, Isabel?
- Egia da, bai. Gazteegiak baikinena oraindik.
- Fernandoren aldetik ere baietza, beraz?
- Bai, bai! Hura bihotzez gehiago buruz baino.

Denbora batera, ezkontza burutua izan zen. Fernando Zaragozatik abiatu zen, morroi mozorroturik eta sei pertsonak bakarrik lagundurik. Lau egun geroago, ezkonzeremonia izango zen, zentzu politikodun bedeinkapen eta guzti, aipatu Carrillo artzapezpikuaren eskutik.

– Ondo goaz, Isabel?

– Bai, bai! Gogoratzeak ere dardaran jartzen nau.

– Eta biharamunekoa? Gogoan al daukazu?

– Gogoan zer?

– «Ezkontza behar bezala kontsumatua izan zen eztei-ganberan, lekuko-talde hauta baten bistan». Isabel! Azken xehetasun hori ere egia al da?

– Arauzkoa baitzen!

– Ai, linboko arima ilunak! Errege-erreginak nola pilatzen dituzue horren ohitura lotsagarri eta barregarriak?

Isabel eta Fernando laster bihurtuko ziren, beste aita santu baten bitartez, «errege-erregina katolikoak». Gehiago kostata, Isabelek eta Fernandok Granadako Erreinu nazaria konkistatuko zuten. Ezkontzazko aliantza-sare batean parte harturik, lortu zuten euren birloba Karlosek Gaztela eta Aragoiko koroak heredatzea. Baita beste europar lurralde batzuk ere, Erromako Inperio Sakroaren enperadore bilakatuz.

Isabel eta Fernando tronuaren jabe egin ziren. Nola? Gerra luze baten ondoren. Lehenik, Enrike IV.aren aurka, beronen izeneko ondorengotza-gatazkan. Gero Gaztelako ondorengotza-gerran, beste tronuragai Juanaren aldekoen aurka. Hau Isabelen iloba, hain zuzen. Odolekoak edo familiakoak izateak ez zuen bigundu lau urteko gerra ankerra, Gaztelako ondorengotza zela eta.

– «Katolikoak» izatea, hots, «Errege-erregina katolikoak» izatea gerra luzeen saria izan zela dirudi.

– Garai konbultsoak ziren.

– Garai konbultsoak ala zuek konkistatzaileak?

– Ez dut ikusten zertan den ñabardura. Orduan, edo konkistatzen zenuen, edo konkistatua zinen.

– O! Bai fatalismo dohakabea!

– Gutxi gorabehera –onartzen du Isabelek, ez dakit hozki ala naturalki.

– Granadako gerraren ondoren, juduak euren erreinuetatik bidaltzea ere fatalismoa izan al zen?

– Ez dakizu zer aipatu duzun! –eulitzar batek aurpegian jo balu lez–. Judu bakoitza oinpean lehergailu bat zen. Kanpora ere urrun bidali behar ziren, segurantzaz minimo bat sentituko bazenuen.

– Gerra bat irabazteko metodo basati samarra ez al da hori?

– Zer egin behar genuen? Guztiak hil?

– Hori ere egin zenuten, ez gutxirekin, eta ez gutxitan.

– Baina ez guztiekin, eta ez beti!–. Eulitzarra joan da.

Ez, noski! Erregina katolikoa zen. Baina behartzen zituzten kristautasunera bihurtzen. Koroa hispanikoaren batasun erlijiosoa ondasun gorenetakoa baitzen. Heriotz zigorraren pean? Behar bazen, zergatik ez? Fedea librea izatetik urrun dago hori, baina urkabea ikusten duzunean, dena koadratzen da.

Bazen han Don Alvaro de Luna izeneko bat, nobleen bi bandoetako bat lideratzen zuena. Nonbait ez zen Isabelen begiko, eta trabatik kendu behar zen. Kendu zuen, zehazkiago, Isabelen eragina izan baitzen guztia. Kendu, kendu... Don Alvaro atxilotua, epaitua eta lepamoztua izan zen Valladolideko Plaza Nagusian. Horrela esanda,

inpresioa eragiten du, baina ez zen hainbesterako izan. Plaza jendez beteta egonik, exekuzioa ez zen ondo ikusten.

– Albo-kaleak ere gainezka! –baiezten Isabelek–. Horrek kezkatu ninduen, baina bai lasaitu ere, halako jendetza ikustean, Don Alvaroren azkena gozatu nahian.

Isabel balientea zela ez dago dudarik –Segoviako gotzaina mintzo–. Batez ere bere umeak defendatzen. Harritu gintuen Segoviako Alkazarrean egin zuenak, bere lehenalaba Isabel salbatzearen. «Geldi, andere! Geldi, mesedez! –erregutu nion belauniko nik, Segoviako gotzainak–. Berorren bizia ere galdu behar du basati horien aurrean». Isabel aurrera zaldi gainean, Alkazarrerantz. 60 kilometrotan zetorren, ziztuan, hango alkaide zaintzailearen, xahutzaile eta tiranikoaren aurkako mutin batean. Alkaideak ez zion askorik ardura izango, baina bere alaba bizi zen han, bere lagun Beatrizen zaintzapean. Erregina alkazarrean sartzean, ateak zabalik utzi zituen, matxinatuak sar zitezen. Erregina hala ikusirik eta haren hitz ederrak entzunik, mutina baretzen da, eta alaba salbatzen.

Kondairak beti hanpatzen dira –diot nik–, goi-jendea tarteko denean, eta gotzain bat mintzo denean. Baina bai. Sinestekoa da ama batek hainbeste egitea, erregina izan arren. Granadako gerran ere, Isabelen interbentzioa erabakiorra izan ei zen, errenditzearen zeuden bere tropak suspertzeko. Fernando senarrak eskatu zion: «Aurkez zaitez gudu-zelaian, tropen moralala altxatzeko». Horixe egin zuen Isabelek, dama batzuk eta bere lehenalaba laguntzat harturik. Inpaktua berehalakoa izan zen. Hain setio luzeari eusteaz nekaturik, errenditzearen zeuden tropa katolikoak suspertu ziren, eta Granadako hiri barruan setiaturik zegoen populazioa bera hasi zen errenditzen.

– Horrek gehiago dirudi miraria, garaipena baino.

– Nahi duzuna, baina Granada konkistatua izan zen.

– Eta nolabait, Inperio Espainola abiatu.

– Bai. Espainiaren batasuna oinarri esentziala izan zen.

Dena dela –Isabel mintzo– nire grazia nagusia ez zen izan, zehatz-zehatz, «Inperio Espainola». Nire grazia nagusia Kristobal Kolonen balentria sinestea eta bultatzea izan zen. Sinestea ez zen erraza, baina, behin sinetsiz gero, nork ukatu behar zion laguntza halako gesta bati? Kontrako kritikak eta erreakzio politikoak ugari izan nituen, gortean bertan eta garaiko zientzilarien artean. Hasierako ezetz tematutik azkeneko baietzerako negoziazio luzeak eta zailak izan ziren. Baziren bakan batzuk, Kolon eta bere aldeko zientzilari batzuk barne, ziotenak Mendebaldetik nahitaez egon behar zuela bide laburrago bat Asiaren eki muturrera. Eta bidean, nork jakin zenbat uharte eta, agian, beste kontinente bat.

Ozeano Atlantikoa –jarraitzen Isabelek– amaigabetzat jotzen zuten guztiek. Harantz abiatu zenik inor ez zen itzuli. Baina amets egiten hasita, zena zelako hartara iristeko miraria gerta baledi? Beharbada, lurrezko lehorra barik, urrezko lehorra jotzea balitz? Une hartan, Gaztelako Koroaren kutzak ez zeuden aberatsegi halako laguntza handi baterako, baina zenbait kontutatik kentzea inoiz ez zen zaila, beste kontu batera bideratzeko. Kolonek esan zidan: «Guk egiten ez badugu, eta arin egiten ez badugu, mende hau amaitzerako, beste batzuek egingo dute. Daniarrek oso aurreratua dute plana. Lisboan ere ideia horri bueltaka dabilta».

Horixe izan zen Isabelen zalantzek behar zuten sakada. Egin egin behar da! Eta abiatu ziren. Zerbait garrantzitsua lortu behar zutela zirudien, bidean ere seinale argiak jasotzen baitzituzten. Kontua zen aurrera jotzeko gauza izatea, hain urrun izango zenik ez baitzuten irudikatu. Joan eta joan, heldu zen une bat non kondenaturik baitzeuden aurrerako. Itzulbiderik ez zegoen, hain bide luzea egin eta gero. Berandu zen damutzeko.

– Nire erreferentzia adituen arabera, Toscanelli eta abar –Isabel mintzo–, Asiaren muturra Mendebaldetik hurrago zegoen ekialdetik baino. Usteak usteltzen hasiak ziren, baina aurrerantz nabigatzea besterik ez zegoen. Eta hara, noizbait, Guanahani uhartera iritsi! Neure buru ia akabatua munduko aberatsen ikusi nuen.

Eta ni, asto Balaam, pentsaketan! Zer nahi zuen Kolonek benetan? Abentura bat? Balentria bat? Esperientzia gaindiezin bat? Uргуiluaren mutur bat? Erronka pertsonal suprahumano bat? Balaamek pentsatzen du: «Zerbait praktikoago izan behar du. Gizon hura genovarra zen, itsas negoziogile amorratuen tradiziokoa. Baina, tira! Horrek ez du ezer esan nahi. Pertsonen jatorriak ezin du esplikatu hainbesteko ekimen bat. Utz diezaiegun joaten, eta gero ikusiko».

– Eta zuk, Isabel? Zer itxaroten zenuen, Kristobal Koloni laguntzea erabaki zenuenean?

– Horrela bat-batean, ez dakit zer esan.

– Hiru ontzi eta 80 gizon, gehi horniak eta arsenalak.

– Espedizioa erraz osatu zen. Amaiera zen dudazkoa.

– Gogoratuko dizut. Irteera: 1492ko abustuak 3. Itzulera: 1493ko martxoak 15. Zazpi hilabete eta erdi. Txunditurik geratuko zinen.

– Txunditurik eta zorabiatutik. Kontinente berri bat aurkitu!

Une haxe nahi nuen Isabelen ahotik. Eta bat-batean, gogorturik geratu naiz. Ez dakit nola edo nondik eraso, ez baitiot aurre egin behar pertsona soil bati, baizik bost menderen zamari. Bost harri-geruza bezalako bost menderi. Nahiz eta Isabelen hilarria gainean egon, nabari dut bere espirituak zeharkatzen duela pilakuntza guztia, azpitik gora. Arnasa betetzeko burugora bat eginik, diot ia xuxurlan:

– Isabel!

– Zer? –berak ere arabera, intentzioa atzeman balu bezala.

– Kontinente «berri» bat «aurkitu» diozu?

– Aurkitu! Deskubritu! –Isabelek entusiasmoz.

– Isabel! Ez nuke hondatu gura zure eternitatea, baina kontinente «berria» hutsik aurkitu al zenuten?

– Galdera ez dut ulertzen, edo ez dut ondo entzun.

– Kontinente hartan ez al zen inor bizi? –zehazten dut ziri airean.

– Nola ez zen, ba, biziko?

– Isabel! –plantatzen naiz harrian–. Mintza gaitezen argi. Zergatik deitzen diozu «aurkikuntza» milaka urte lehenagotik zibilizazio osoak bertan bizi ziren kontinente batera iristeari?

– Nola deitu behar zaio orduan?

– Ba, adibidez, zuretzat oso ohiko diren termino batzuekin: *inbasioa*, *konkista*...

– Horiek gero etorriko ziren! –erantzun Isabelek, ebidentzia natural bat bezala.

– Gero... Gero etorriko ziren esklabotzak, espolioazioak, genozidioak...

– Eta zenbat gauza on? –mozten Isabelek, aurrekoak ukatu gabe.

– Gauza onak. Adibidez?

– Adibidez, hizkuntza eder bat.

– Zenbat hizkuntza eder suntsituta?

– Adibidez, unibertsatate bikainak.

– Zenbat indio matrikulatu ziren?

– Adibidez, era guztietako aurrerapenak.

– Geldi, Isabel! Geldi!

Badirudi hurrengo mendeetako erretolika guztia aurreratzen ari dela. Isabelek dioena da aurrerapen selektibo batzuek aurreko biolentzia guztiak justifikatzen dituztela. Inperio espainol bat abiatu zuen, bertan eguzkirik ez sartzeaz harrotzen zena. Hori nola egin zitekeen, biolentzia guztiak aplikatuz baino? Ez da beste erarik ezagutzen. Eta Isabelek ez zuen dudarik izan. Nahiz eta indioei tratu ona ematearen aldeko eta esklabotzaren kontrako agindu batzuk eman, balantze orokorrean bihozkada anekdotikoak izan ziren horiek.

- Isabel! Zeu zara Amerikaren okupazio depredatzailearen erantzule nagusia.
- Jesus, Maria eta Jose! Laster «santa» egiteko nengoenean!
- Egingo zaituzte, «katolika» egin zaituzten moduan. Baina ez horrek, ez bestek ez du kenduko zeu izatea Amerikaren kolonizazio hiltzailearen subjektu printzipala.
- Senar bat ere banuen gero!
- «Zu» esanda, hura ere esanda dago.
- Ene Ama Pilareko! Zenbat gauza eder utzi genuen eginda! –hots egiten, izarrei mintzatuz bezala.

Bai, Isabel! «Gauza eder» horiek guztiak sobra ere kontatuak ditu gure eskoletako historiak. Sufritzea ere tokatu zitzaizun, noski. Sinesten dugu. Hortik ateratzen dugu argia ere bazinela, nahiz eta dohain hori ez izan ohiko ezaugarria errege-erreginenengan.

Isabelek ondotxo daki arrunt adulatua izan zela, eta jarraitzen duela izaten. Baina guri ez zaizkigu interesatzen adulazioaren errelatoak. Guri besteak interesatzen zaizkigu. Adibidez, nola Isabel Katolikoa, denen gainetik, konkistatzaile porrokatua izan zen. Eta konkistatzailea badakigu zein eratan bakarrik izan daitekeen. Pentsa haren espiritu kasik beatifikatua nolakoa izango zen: bere testamentuan eskatzen zien ondorengoei saia zitezela Ipar Afrika guztia konkistatzen Kristandadearentzat. Amerika handia ez izan nahikoa! Eta bai kasualitatea, hark ezin zuen jakin baina! Isabelengandik bost mendetara, Ipar Afrikatik abiatu zen altxamendu matoi bat, gerra zibil odoltsu bat eta ondorengo diktadura brutal bat ekarri zituen.

- Eta hara non, Isabel, Francoren Diktadura zeritzonak zure eta zure senarraren sinboloak erruz erabili zituela bere propagandan. Ulertzen zergatik ez den behar zuen «gauza ederrak» kontatzen hastea?

Konkisten eta inperioaren bilakaera depredatzailea alde batera utzita, bada beste kontu bat, bereziki mingarria, nahiz eta zuri, Isabel, seguruenik, obrarik loriosena irudituko. Jakingo duzu zu baino hiru mende lehenago fundatua zen Inkisizio Santua Aragoiko Erreinuan ezarri zela 1249an. Eta gero, Aragoi Gaztelarekin batu zenutenean, Inkisizio Espainola izenez hedatu zela bietara. Eta haren jardun-eremua hedatuko zela Amerika deituko zen lurralde konkistatuetara. Hori guztia, monarkia hispanikoak zuzenean bultzaturik. Hor zaude zu, Isabel, eta hor dago zure senar Fernando.

Jakingo duzu, baita, Inozentzio IV.a aita santuak, Inkisizioaren helburuak bermatzeko, tortura legitimatu zuela, ondorengo aita santuen berrespina jasoz. Eta jakingo duzu, nola ez, Tomas de Torquemada, zure konfessore partikularra, Gaztelako eta Aragoiko lehen inkisidore nagusia izan zela, zure eta zure senarraren gogoz eta erabakiz. Zuk ez diozu horrela iritziko, baina jakingo duzu Torquemadaren izena betiko gelditu zela krudeltasunaren, intolerantzia erlijiosoaren eta fanatismoaren ikur. Zergatik ere jakingo duzu: aitortzak lortzeko, torturaren erabilera orokortu zuelako eta errudun aurkituak –zein erraz aurkitu ere!– sutan erretzea ezarri zuelako. Hori guztia, zuk ondo dakizunez, zeure agindupean izan zen, ad maiorem dei gloriam.

- Ena Ama, merezi beste inoiz ez laudatua! Nola permititu duzu erretolika hau guztia nik entzun beharra?
- Isabel! Historia zital hau amaitu beharra dago.

- Bai, ahal bada! Ez nago ohituta inor niri mintzatzen horren gaizki.
- Kontua ez da hitzetan amaituko.
- Zer gehiago behar duzu?
- Zu hil!
- Ni hil? Zergatik?
- Neuk ere badakidalako hiltzaile izaten.
- Hil nintzen barren!
- Ez behar bezala. Zure memoria hilko dut.
- Hori zailago! Inperio oso baten sinboloa naiz, eta gizadi oso baten mugarri bat.
- Izango zara inperioentzat, baina ez gizadi sanoarentzat.
- Historia egina dago, ordea!
- Gizadian, oso historia ezberdinak daude. Entzun nahi al dituzu lau?
- Zergatik ez, arteko guztia entzun eta gero?
- Hona izenburu posible batzuk: «Gizadiaren historia oinazetsua». «Gizadiaren historia tristea». «Gizadiaren historia zorteduna». «Gizadiaren historia kriminala». Zu non sartzen zarela uste duzu?
- Behin honezkero, sar nazazu nahi duzun tokian.
- Nahi dudan tokian ez. Dagokizun tokian. Gaurtik aurrera, zu izango zara Gizadiaren Historia Kriminalaren gailur nagusietako bat.

FRANTZIAKO LUIS XIV.a

- Ni, Frantziako Luis XIV.a.
- Eta?
- Historiako erreinaldi luzeena. 72 urte eta 110 egun. Eta...
- Nahikoa da. Luzeena izatea ezin da gainditu. Zure goitizena...
- Horixe esatera nindoan, baina ez didazu utzi! –muturtzen Luis XIV.a.
- Kasik hobe da neuk esateko, ze batek nola izenda dezake bere burua *Eguzki Errege*?
- Batek eta guztiek! Zeuk ere jakin duzu.
- Ez al zaizu iruditzen pixka bat txotxoloa? Su-bola bat... zu?
- Zergatik ez, goitarra banintzen?
- A! Legitimazio dibinoa eta hori.

Luis XIV.ak bere burua *Eguzki* irudikatzean, arrazoi zerbait bazuen, bere inguruan bildu baitzituen garaiko planeta politiko, militar eta kultural ospetsuenak, hala nola: Bossuet, Colbert, Le Brun, Le Nôtre, Lully, Mazarin, Molière, Racine, Turenne, Vauban, Corneille...

- Mazarin! –ausartzen naiz–. Nola onartu zenuen lehen ministrotzat kardinal bat?
- Hura nire aurretik zegoen han, Richelieu kardinalaren lugarteniente izana.

Erregimen eklesiala. Izatez, Mazarin ez zen apaiza ere. Luis XIII.ak izendatu zuen kardinal. Luis XIII.a hiltzean, Luis XIV.a bost urteko haurra zen, eta beronen amak, Austriako Anak, hartu zuen erregentzia. Anak Mazarinen esku utzi lehen ministrotza.

- Ai, Mazarin! Argia eta trebea! –hots egiten Eguzki Erregeak.
- Horregatik bihurtu al zen Frantziako eta, agian, munduko aberatsen?
- Trebetasunak denerako balio du.

– Harritzen naiz nola ez zizun *Eguzkitasuna* disputatu.

– Esan dizut hura argia zela –Eguzki Erregeak–. Hark bazekien distira gehiago zeukala planeta egiazko bat bezala, eguzki dudazko bat baino. Neu ere ez bainintzen kokolo bat.

– Ez, Hamalau! Horixe ez zitzaidan burutik pasako Molière-ren komedia batean ere. Kokolo batek ez du eraikitzen Versaillesko Jauregia. 2.153 leiho y 67 eskailera. Solemnean goren eta maltzurtean gaindiezin.

- «Harroan» esan nahiko zenuen –Hamalauk, keinu eta guzti.
- Ez, Hamalau! «Maltzurtean!» –neuk ere araberrak keinuz.

Feudalismoaren hondakinak erauzi nahi zenituen –jarraitzen dut, distantzia zinemat bat hartuz; izaki absente bat aboradatz bezala–. Nobleak eta aristokratik arriskutsuak zirela probatua zenuen. Nonahi sortzen jukutrik, egonezinak, anbizioak, errebeliak. Zer egin? Noble edo aristokrata mordo bat Versaillesen bizitzera behartu. Doan. Denak elkarren ondoan jarririk, euren arteko lehia zure presentziarantz uniformatzera beharturik zeuden, nor zure lagunago, nor zure begikoago.

Zure urrats guztiak, xumeenak ere, zeremonia bihurtu zenituen. Ohetik jaikitzen zinenerako, han zegoen, formaturik, noble mordo bat (gehi zerbitzariak), zuri egun on opatzeko eta behar ziren makurtze guztiak egiteko. Haginak garbitzera pasatzen zinenen (garbitzen zenituenen), beste noble mordo bat, zerrenden arabera. Batek eskuila luzatu, beste batek hortzorea jarri, inoiz ahoa eskuilatu ere bai, zaldien adina kalkulatzeko bezala. Eskailerak jaisteko, albo banatan beste noble ilara bat, imintzio protokolarik guztiekin.

Gosari-aretoan, ezker-eskuin, eguneko marmeladak eta zukuak zabaltzen ari zaizkizun bitartean, egunean noble-aldra bat tente, benerazio jarreran, zeuk agindu arte esertzeko edo bistatik alde egiteko. Zuk, bitartean, haiek banan-banan kontatzeko imintzioa egiten, flamenko bat bere aldra obserbatzen bezala.

Eta horrela egun guztiko mugimenduak, pribatuak nahiz ofizialak. Eta horrela, ez bakarrik jauregiko egoiliar nobleekin, baizik bilera diplomatiko edo negoziatzaileetara zetozen agintari edo enbaxadore guztiekin. «Eguzkiak» denen kaskoak berotu behar ditu. Berotu eta erre, bitartean ez baitu hodeirik jasaten. Terminologia teknikoan, monarkia absolutua. Estatu erabat zentralizatua. «Kokoloa» ez zarela zenioen, baina izan zaitezke lasai. Inork ez dizu igarriko.

– Baina, Luis! Inolako asmo txar gabe, zertarako behar zenituen 1.000 peluka eta 413 ohe? Eta 67 eskailera?

Ez dago erantzunik. Jarraituko dut galdetzen.

– Zergatik agertzen zinen beti takoi altudun zapatekin eta peluka kolosal horrekin?

Idem. Ba, saiatuko naiz berriz.

– Hainbesteko karnabalismoa behar al zen, barrukoa norbait zela sentitzeko?

Aupegira tu egiteko keinua egin dit. Batzuetan iruditzen zait pelukak entzumena eragozten diola. Mila peluka! Minutuko bat jantzita, egun osoa hornitzeko lain. Egun atzarria, noski, ez baita pentsatzekoa lo ere pelukaz egingo zuela. Ala bai? Eta lauhunda hamahiru ohe! Ulergarri da, ehiztari amorratua zen aldetik. Ulergarriena, takoi altudun zapatena, bera altuera txikikoa izanik. Garbi esanda, gizon koxkor bat. Baina anporrak bezalako takoeekin eta araberrak pelukarekin, «handia» ematen zuen. Inork ez baitzion kontrakorik esaten, «handia» zela sinetsi zuen.

Versallesko Jauregia, jatorriz, ehizaleku bat izan zen, Luis XIII.ak eraikia. Semeak erret jauregi ikusgarri bihurtu zuen. Zergatik eraiki zuen hain opulentzia estrabaganteko jauregia eta zergatik aldatu zuen hara monarkiaren egoitza? Paris gorroto zuelako? Ez. Versailles toki izugarri eta zirraragarria zen, estatu gaietarako eta mandatari arrotzak errezibitzeko. Han arreta ez zen distraitzen hiriburuan eta jendeengan, baizik osorik erregearen gainean. Gorte-bizitza handikerian zentratzen zen. Gortekideek bizimodu luxuzkoa zeramaten, magnifizentzia handiz jantziak, beti afariak ospatzen, antzezpenak, ospakizunak... Eta bizioak, zenbanahi.

Izatez, noble asko beharturik aurkitu ziren euren influentzia osoa uztera edo erret subsidioen eta laguntzen mende geratzera, Versaillesko biziera garestiari eutsi ahal izateko. Egoera horrek eragin zuen nobleek boterea berrartzen saiatzeari uztea, haien botereak koroarentzat ekar zitzakeen arazo potentzialekin. Ez zeukaten beste zereginik edo egiteko ahalik, erregearekin afaltzera gonbidatuak izatea baizik, edo kandela bana eraman ahal izatea, erregea bere logeletara erretiratzen zenean. Gaur zein logela tokatzen? 211. Jaiki ere bertan egingo? Hori loaren martxak esango. Ondo lo egin, Luis! Horrela bada, etzaten naizen ohean jaikiko. Ados! Bihar goizean beste kohorte bat edukiko duzu zain, zu noiz jaikiko.

Estatu erabat zentralizatuak erlijioa ere bakarra behar zuen. Eliza katolikoa. Hugonote edo protestante kalvinisten eskubide guztiei, su! Eta «dragonadak» aurrera. Zer da dragonada? Kasik nahiago nuke zeuk azaltzea, Luis, ze niri hotzikara ematen dit zuzen kontatzeak.

– Hi haiz katamierlea! «Dragoiak» militarrek ziren –Luis mintzo–. Soldaduak eta ofizialak. Orduan, protestanteen etxeetara tropak banatzen ziren, eta hauek eskubidea zuten han gobernatuak izateko (jan eta edan). Eta garbi esanda, nahi zutena egiteko: ondasunak arpilatu, emakumeak bortxatu... Oso era efektiboa zen, alde batetik, armada elikatzeke eta kontentu edukitzeko.

Eta bestetik, etxe haietakoak ahal zuten tokira emigratzeko edo katolizismora konbertitzeko. Izan ziren hauetakoak, baina gehienek oldean alde egitea hautatu zuten. Kontua da Frantziako komunitate protestantea praktikan suntsiturik utzi nuela.

- Ona, Luis! Monarkia absolutua baino gehiago dirudi horrek.
- Askoz gehiago! –Luisek irmoki–. Nire erreinaldi luzean, Frantzia Europako lehen potentzia bilakatu zen, eta bere ahalmen militarra eten gabe gailendu zen.
- Baina Espainiaren gatazka batek –objektatzen diot– zure haurtzaro guztia markatu zuen.
- Ez hainbeste. Ez zidaten utzi ezertaz ohartzen. Nire haurtzaroa dohatsua izan zen.
- Baina gero, zeure gobernu pertsonalean, hiru gatazka kontinental handi jokatu behar izan zenituen, bakoitza alianza atzeritar indartsuen aurka: Gerra Franko-Neerlandarra, Bederatzi Urteko Gerra eta Espainiako Ondorengotzaren Gerra. Horiez gainera, beste hainbat gerra laburrago disputatu behar izan zenituen.
- Eta ia guztietan garaile! «Ia» diot, baina uste dut guztiak irabazi nituela.
- Bake garaietan...
- Bake garaietan –mozten dit–, hurrengo gerra prestatzea zen nire burubidea.

Hara! Gerrak definitzen du, beraz, Luisen gogoak. Komertzio, mendeku eta nor gehiagoen nahaste bat buruan zuela, intuitu zuen gerra zela bere loria handitzeko bitarteko ideala. Bere diplomatikoei irakatsi zien bere lana zela abantaila taktikoak eta estrategikoak sortzea armada frantsesarentzat. 1715ean hil zenean, bere birbiloba eta ondoren Luis XV.a izango zenari erreinu boteretsu bat utzi zion, nahiz eta erdi kapustua.

Luis XIV.a edonor bezala jaio zen, baina ez edonorena bezalako tokian. 1638-09-05. Gurasoak Luis XIII.a eta Austriako Ana. Dohain dibino bat bezala munduratu zen, gurasoek 23 urte behar izan baitzituzten ondorengo bat lortzen. «Louis-Dieudonné» bezala bataiatua izan zen. «Jainkoak emana». Ez da harritzekoa gero zuk, Luis, pentsatzea jainkotarra zinela. Hots, Jainkoa zinela. «Eguzkia» lurrean, zeinaren inguruan biratu behar zuten planeta guztiek eta Frantzia osoak. Garbi esanda, hots, zeuk esanda, «Estatua neu naiz».

Hogeita hamar Urteko Gerra. Europa guztia gerran. Hondamendia. Populazioa erdira edo gutxiagora jaitsia, masakrez, gosez eta gaixotasunez. Amaitu zen noizbait, Westfaliako Bakea bide, eta Frantziar gerra zibil bat hasten, La Fronde izenekoa. *Tiragoma*. Parisko lehen matxinadan sublebatuek zeramatzen *tiragomak* ebokatzen dituen izena. Artean zu, Luis, adin txikikoa. Zure aitak, Richelieu kardinala lehen ministro zuela, zentralizazio handia abiatu zuen, nobleziaren bizkarretik. Parlamentuko kideei ere zerga bat ezarri nahi izan zien. Richelieu kardinalari Mazarin kardinalak jarraitu zion. Parlamentuan, nobleziako kideak eta Elizako goi karguak. «Gure agintea murriztu eta orain, gainera, zergak?». Mazarinen finantza-ediktu guztiak erretzeko agindu zuten. Insurrekzioa. Paristar amorratu batzuk erret jauregian sartu ziren, erregea ikustea exijituz.

- Erret gelara eramanak izatean, zuri begira geratu ei ziren, Luis. Eta zu lo plantan. Zeure kabuz ala amak esanda?
- Ez dakit. Oraindik umea nintzen. Dakidana da paristar amorratuek lasai-lasai alde egin zutela.
- A zer sustoa, e!
- Zeuk esan duzu lo nengoela.
- Baina zure ama Anak, erret familiaren eta monarkiaren arriskuaz jabeturik, Paristik ihes egin zuen, zurekin eta gortesauekin.
- Niretzat bidaia polit bat gehiago. Gainera, handik laster, Westfaliako Bakea sinatu zen, eta Frantziako armada geure alde genuen.

- Nahi duzuna esango duzu, baina ederretik libratu zen, «Jainkoaren ume»!
- Horixe bainintzen! –eguzkia baino seguruago—. Zeren beldur izan behar nuen?

Beldurtzeko motiboak baziren. Lehen Fronda (matxinada) amaituz batera, Bigarren Fronda hasi zen. Maila guztietako nobleak, printzeak eta printzesak, leinu luzeko nobleak, erret jatorrikoak barne, baita kleroaren ordezkariak ere, erret boterearen aurka matxinatu ziren. Luisek orduantxe hartu zion begizkoa, edo gutxienez, mesfidantza handia, nobleziari. Ez ala?

Espainiarekiko gerra aurrera eta luze zihoan. Frantziarrek, une batean, Ingalaterraren babes militarra izan zuten, Oliver Cromwell buru zela. Aliantza anglo-frantsesak espainolak derrotatu zituen Dunkerkeko batailan. Hortik heldu zen Pirinioetako Ituna, Bidasoa ibaian sinatua.

- Bidasoa ibaian? –galdetzen dut ia sustoan.
- Bai! –Luisek—. Hortxe ezarri zen Espainiaren eta Frantziaren arteko Pirinio-muga.
- Itun horrek finkatu al zuen Nafarroaren erdibitzea, Nafarroa Garaia eta Nafarroa Beherea bereiziz?
- Bai! Nafarroako errege ere izana bainintzen.
- Itun horrek ekarri al zuen zure ezkontza Espainiako infanta batekin, Austriako Maria Teresarekin?
- Bai! Eta ezkontza Donibane Lohitzunen izan zen, Jondoni Batixtaren elizan.
- Hemen? Ia euskaldunon sukaldean?
- Bai! Eta ezkontzako lehen meza, Hondarribian.
- Dedio! Eta lehen gaua Donostiako Maria Kristinan?
- Izen hori ez daukat gogoan.
- Ez, ez! Ezin duzu izen hori entzuna izan. A zer mari-dortoka bera! Zurekin konpontzeko modukoa. Zerbaitegatik daroa bere izena Donostiako hotelik ospetsuenak.

Beste gerra bat? Bai. Oraingoa Herbehereetako Probintzia Batuetan. Nik zuri, zuk niri, Brabante niretzat, bestea zuretzat... Interes gurutzatuak eta anbizio asegaizak. Zuk, Luis, ez zenuen zailtasun handirik izan Herbehereei Flandes eta Konterri Frankoa kentzeko, baina Probintzia Batuek Ingalaterra eta Suediarekin bat egin zuten Aliantza Hirukoitzean, eta beldurtu zinen dimentsio handietako gerra batean sartuko ote zinen. Ez zinen, nonbait, hain dibinoa, eta Akisgrango Ituna sinatzea onartu zenuen. Flandes zuretzat eta Konterri Frankoa Espainiarentzat. Ez zen horretan amaitu. Zuk gerra nahi zenuen. Herbehereak nahi zenituen. Eta garaipen handiak lortu, hainbat lurralde konkistatu. Estrasburgo ere nahi zenuen, eta errazki okupatu. Frantziaren boterea Europan, zure agintaldian, izugarri handitu zen. Koloniak ere biderkatu ziren atzerrietan, Amerikan, Afrikan eta Asian. René Cavalier esploratzaileak Misisipi ibaiaren arroa Frantziarentzat erreklamatu zuen, zure omenez Luisiana izendatuz. Zer esango dizut, ba? Zeure aparrean zenbiltzan. Zeure odolean.

- Ez zinen hain kamutsa ere, Luis! Grazia egiten dit Versailles Jauregiko zure estrategiak. Hala al zen benetan?
- Benetan eta erraz –Luisek harro—. Izan nintekeen kamutsa, baina kamutsagoen artean, argi-iturri bat. Nobleziaren eta kleroaren boterea murriztua zen, nobleak neure begiradapean edukiz, Versaillesen. Handik ez zeukaten erarik euren lurraldeetan errebelioak eta matxinadak antolatzeko.
- Ez al ziren aspertzen hainbeste eskailera igotzen eta jaisten?
- Bai, seguruenik, baina erregearen ondoan egotea zen era posible bakarra mesedeak eta pribilegioak jasotzeko.
- Biziera monakala, nolabait esateko?
- O, ez! Dibertsioak eten gabe ziren, jai eta distrakzio mota guztiekin. Molière,

adibidez, noiznahi zebilen Versaillesen. Eta denak hantxe, tonto-tonto, eta erregea gero eta jainkoago.

Luis XIV.ak beste gerra bat ere deklaratu zuen, baita irabazi ere neurri handi batean. Lehenik, Eliza Katolikoaren bakartasuna ezarri zuen. *Cuius regio, eius religio*. Norena erreinua, harena erlijioa. Horretarako beste fede guztiak debekatu behar ziren. Ediktu bat, eta aurrera. Halaxe suntsitu zuen protestantismoa Frantzia, sineskera hartako milaka lagun klandestinoki emigratzera behartuz.

– «Klandestinoki emigratzera behartu»? Nola da hori?

– Emigrazioa debekatu baitzen. Horregatik, askoz gehiago ziren zigortuak eta derrigorrean konbertituak.

Ondo. Katolizismoa Frantziako erlijio bakar. Eta orain, «galikanismoa». Hots, Galiaren nagusitasuna, Eliza katolikoaren eta Erromaren gainetik. Erregearen boterea Jainkoarengandik bazetorren, zergatik ez bera izan Frantziako autoritate erlijioso nagusi? Aita santuaren boterea ahuldua. Luis XIV.aren zenbait neurriren artean, aita santuak ezin zituen bere ordezkariak bidali haren onarpen gabe. Gotzainek ezin zuten Frantziatik irten erregearen onarpen gabe. Gobernuko ezein agente ezin zen eskumikatu izan eginkizun ofizialeko egintzengatik. Ezin zen aita santuarengana jo erregearen onespene gabe. Erregeak eliz legeak ere promulgatu ahal zituen. Eta aita santuaren arau guztiak baliogabeak ziren Frantziako lurraldean, erregearen onarpen gabe. Hori guztia *Frantziar Kleroaren Adierazpena* izeneko dokumentu batean. Dokumentu hori ez zen, noski, aita santuak onartua izan, baina Luis XIV.a aurrera berean.

«Berea» zen, adibidez, ezkon harreman zeresantsua Maria Teresarekin. Luis ez zen batere fidel izan Teresarekin. Hainbat maitale izan zituen, tartean izen ospetsuak Frantzia. Bigarren ezkontza, Madame de Maintenonekin, badirudi fidelago ibili zela. Beharbada, ezkontza morganatikoa izan zelako. Izen beldurgarri horrek ez du besterik esan nahi maila edo leinu ezberdinekoen arteko ezkontza baino. Errege edo erregina bat herritar soil batekin edo alderantziz.

Erlijiora itzuliz, batasun erlijiosoaren prozesua burutu zuen, ediktu baten bidez juduen espulzioa dekretatuz kolonia frantsesetatik. Fontainebleauko Ediktua promulgatu zuen gero, Nantesko Ediktua errebokatuz. Frantziako Enrike IV.ak 1598an promulgaturik, Nantesko ediktuak kontzientzi askatasuna eta kultu askatasuna promulgatu zuen protestante kalvinistentzat. Luisen ediktu berriak agintzen zuen ezen katolizismora konbertitzen ez zen edozein klerigo protestante desterratua izan zedila. Eskola eta erakunde protestanteak debekatuak izan ziren. Eta abar eta abar. Adibidez, zioen:

«Erljio Erreformatu Usteko pertsonen ahal izango dute, Jainkoak besteei bezalako argitasuna eman arte, euren salerosian jarraitu eta euren ondasunak gozatu, inork molestatu edo eragotzi gabe (...), baldintzapean ezen ez daitezela erlijio horren jardunera dedikatu, eta ez daitezela bildu erreztatzeko edo zerbitzu erlijiosoak edukitzeko aitzakian».

Testu honetan, gehien kitzikatzen nauena da bide batezko esaldi hori: «Jainkoak besteei bezalako argitasuna eman arte». Ez du behar esplikaziorik, ezta?

Aipatu Nantesko Ediktua Erljio-Gerrak izeneko amaiera izan zen. Frantzia erabat dardarazi zuten gerrek. Enrike IV.ak berak ere, artean protestantea izanik, katolizismora konbertitu behar izan zuen, tronuz jabetu ahal izateko. Fedeak ipurdien kokalekuan. Ediktuak bake bat eta tolerantzia bat ekarri zuen.

Orain, Luis XIV.ak aginduriko ediktu haren errebokazioak berriz ere ondorio politiko eta diplomatiko handiak eta larriak ekarri zituen, European sentimendu antifrantzes bat eraginez.

Bai katolikoek, bai protestanteek batasun bat antolatu zuten, Augsburgoko Liga izenekoa. Itun defentsiboa, batetik, eta Frantziaren aurkako alianza ofentsiboa bestetik. Aliantza horretan sartzen ziren Inperio Sakroko Enperadorea eta Inperioa osatzen zuten estatu alemanetako hainbat gobernari, nola Palatinatua, Baviera eta Brandenburg. Probintziak Batuak edo Herbehereak eta Espainia eta Suedia ere batu ziren ligara. Hainbat interes gurutzaturen eta anbizio aitorrezinen bilakaera konplexu baten ondoren, lehenengotan albo geratu zen Ingalaterrak ere aliantzara batzea erabaki zuen. Izena ere halakoa: Aliantza Handia.

- Eta zu, Luis Eguzki, zeure saldan, denen kontrako gerrarako prest.
- «Bederatzi Urteko Gerra» deituko zena! –aire triumfalean Luisek.
- Horrek «bete» egiten al zaitu?
- Nola ez nau beteko, ba, tropa frantsesek dominatu baitzuten egoera? Garaipen asko eta handiak.
- Derrota bat edo beste ere bai, jakin dudanez.
- Baita! Garaipenak ilaran doazenean, lantzean derrota batek piztu egiten zaitu.

Egia izango da, inork jakitekotan, Luis XIV.ak jakingo baitu. Eta hala, batek irabazi, besteak amore eman, batek galerak sendatu, bestea hurrengorako prestatu, bederatzi urteko gerra, ia europa guztian. Noizbait bakea, Ryswickeko Itunean. Zuretzat hau, niretzat hori, trukean hau, ordainez hori. Luis XIV.ak, adibidez, Luxenburg itzuli zuen, baina Estrasburgo kontserbatu. Eta beste hainbat klausula. Kontua da Europaren mugak, berriz ere, gerra odoltsu batek eta elite militar eta gobernarien pretentsioek erabaki zituztela.

- Eta zu, Luis, burgoi eta lumatsu, zeure Versaillesko indioilar-zooan.
- Indioilar gustatu zait. Zooa, ez hainbeste. Gerrak ez dira zoologikoak.
- Baina bai deprimentea bakea, ezta?
- Ez zen izan deprimitzeko astirik, Espainiako ondorengotza-gerra ia bertan izan baitzen.

Aitzakia biribila. Karlos II.a oso gaixo, eta ondorengorik eduki ez, titulua uzteko. Eta koroa espainolaren herentzia oso handia izan: Espainia bera, Napoles, Sizilia, Milan, espainiar Herbehereak eta inperio kolonial izugarri bat. Nork heredatu hura guztia? Bota izenak: Espainiako Felipe V.a, Espainiako Felipe III. eta IV.aren ondokoak, Austriako Maria Teresa, Austriako Artxiduke Karlos, Leopoldo I.a, Palatinatuko Leonor, Gilen III.a, Bavierako Jose Fernando, Espainiako Margarita Teresa, Jakobo Frantzisko Estuardo, Malborough, Savoiako Eugenio, Jose I.a enperadorea... Eta denen erdian eta hegal guztietan, Luis XIV.a. Izenen zerrenda galkatu bat, hots, historia betiko nazkagarri egingo zuten fenomeno askotariko bat. Zeuk ere, Luis, badakizu horrenbeste, zurea ez baitzen izan tiratzea eta hegaztiak batzea besterik. Zenbat erortzen edo zenbat zelaian gelditzen, hori ez zegokion Versaillesko indioilarrari.

Indioilarra ere zahartzen, ordea! –kontatuko zukeen Molière batek, utzi baliote—. Eta lumajea mehatzen. Nola birjarri luma galduak, zeureak eta berezkoak zirela emateko moduan? Zuri gutxi axola. Orraztaileek, jantzitzaileek eta azkuragileek gorteko sasoitsuenei kendu eta txertatzen zizkizuten lumak oherakoan, eta goizean, zu jaikitzen zatorren brigada eminenteak hots egingo zizun: «Egun on, Jaun Goren! Bai bizitasuna zurea! Bart falta ziren lumak mardul-mardul irten zaizkizu». Eta indioilarra harro eta lumatsu beti lez.

Zure koinata izan zen Isabel Karlotak honela deskribatu zintuen, zure heriotzatik gutxira:

«Perfektua izan gabe, gure erregeak kalitate handi eta ederrak zituen, eta ez zuen merezi izan hain difamatua eta arbuiatua izaterik hiltzean, bere menpekoen aldetik».

Badakit difamatzaile horien artean ez zirela ibiliko gorago aipatu izen ospetsuak, nola Molière, Racine, Corneille, La Fontaine, Le Brun, Mignard, Rigaud, Lully, Couperin, Charpentier, Lalande, Boulle, Voltaire, Bernini, Leibniz eta beste hainbat eta hainbat. Ez ditut figura horiek epaigai hartu nahi, munduera baten adibide baizik. Barruko espiritu nahasle batek galdetzen dit:

– Zergatik hartzen dituzu beti militarrek autoritate biolentoen konplizetzat, eta artistak ez?

– Ez naiz ausartzen zuzenean erantzutera. Aizu, Molière! Zuek zergatik prosperatu zineten Luis XIV.aren itzalpean?

– Zeu ez zara ausartu erantzutera eta niri galdetzen? –Molière-k.

– Hilda zaude! Zer axola dizu orain? –diotsat.

– Nire memoria bizi da. Baina ausartuko naiz, beste galdera bat eginez. Nola prosperatzea uste duzu «beste era batera»?

– Esan nahi al duzu arteak aginteari lagundu behar diola?

– Begiratu historiara –Molière-k–. Badago suizidio artistikoa ere, baina ez da gomendio orokortzat aurkeztekoa. Nirea komedia da.

– Badaezpada?

– Hori zeuk esan duzu.

Ondo dago. Zerbait ulertu badut, tragediak ere «badaezpada» direla esango nuke. Lirika ere, hortxe nonbait. Musika? Badakit zu, Lully, gustura ibili zinela Luis XIV.aren itzalpean. Mintzen nau Leibniz batek Luis XIV.a definitzea nola «inoiz izan den erregerik handienetako bat». Ez nau gutxiago mintzen Voltaire batek esatea haren erregealdia izan zela «aro eternalki gogoangarria», edo «Luis XIV.aren aroa» izan zela «Mende Handia». Zer egingo zaio, ba! Miresten ditugun autoreek ere euren usainak daukate.

Zuk, Luis, *Dantzaren Erret Akademia* eta *Operaren Akademia* fundatu zenituen. *Komedia Frantsesa* ere fundatu zenuen. Louvre berritu, handitu eta hobetu zenuen. Balleta maitatu eta sustatu zenuen, eta zeu ere ballet-dantzari amorratua izan zinen erregealdiaren lehen erdian. Izatez, zure asmoetan, balletak bazuen tresna politiko baten helburu subtila ere (subtila ez, argia!), zeure Estatuaren gaineko botereari eusteko. Gorteko funtzio sozialetan sakonki errotu zenuen balleta, nobleen arreta efikazki distrahituz ekintza politikoetatik. Diberti zaitezte ongi, eta horixe bakarrik. Izan ere, zure ardura artistiko guztiak ez zion fitsik kendu zu eten gabeko gerran eta harrapaketan aritzeari. Eta Versailles barruan opulentzia gorenean eta banitate estremoan aritzeari. Horiexek izan baitziren zure ezaugarri pertsonal nabariak: opulentzia eta banitatea. Saint-Simongo dukeak, Versaillesko memoria ospetsuen idazleak, esango zuen:

«Ez zegoen ezer maiteago zuenik lausenguak baino. Argiago esateko, adulazioa. Zenbat eta zabalago eta traketsagoa izan adulazio hori, gozamen handiagoz hartzen zuen. Haren banitatea eten gabe elikatua izan zen. Predikariek eurek ere hura losintxatu ohi zuten pulpituetatik».

Historiako erregealdi luzeenak ere amaitu behar zuen noizbait, zure handinahi guztien zaputzerako. Ez zen izan amaiera gozoa. Errejimena eta gortea dekadentzian sartu ziren. Frantziaren hegemonia kontinentean beheraka zihoan. Zure politika koloniala kraskatzen ari zen. Eta batez ere, herri xeheak pairatzen zituen goseteek eragindako ezinegon soziala lehertzeaz zegoen.

Baina zuk, Antoine Godeau gotzainak «jainko-orde» deitu zintuenak, zeure buruarekin leial eta konfiantzaz jarraitu zenuen hil arte (1715), erreinuaren eta menpeko

guztien motor bakar bezala. Gustura al zaude Parisko Saint-Denis basilikan? Baietz dirudi, ze hiru mende eta gehiagora, hortxe aurkitu zaitut. Baina jaiki behar duzu.

- Jaiki ni? –Luisek, muker–. Hanketan hamazazpi hezur falta ditiat!
- Kaskezurrean ere faltako dituzu, baina lagunduko dizut.
- Zoraturik hago! –Luisek kurrunka–. Deklaratu berri nauk hilda, eta orain gora?
- Zure heriotza anulatua da –diotsat.
- Egoera honetan utzi behar al nauk eternitate osoan?
- Neuk hilko zaitut behar den moduan.
- Hil ni? Zergatik?
- Neuk ere badakidalako hiltzaile izaten.
- Zorora ere ez haiz iristen! Historia Unibertsalaren gailurra nauk barren!
- Hortxe hilko zaitut, hain zuzen! Aurrerantzean, Historia Unibertsaleko kriminalik handienen gailurra izango zara.

ERRUSIAKO KATALINA II.a

- Ni, Katalina II.a, Errusiako Enperatriza.
- Zure graziak, titulutik aparte?
- Errusiaren handitzaile eta Errusiaren modernizatzaile.
- Beste bat ere gehituko nuke.
- Errusiaren ...
- ... engainatzaile?
- Hori grazia bat al da? –ezustean Katalinak.
- Zure kasuan, bai.

Bazen printzesa aleman bat, Sofia zeritzona, denborarekin Errusian... Ez! Hau azkenerako utzi behar dut. Alemanian, orduko dinastietako gobernarien artean ohi zenez, heziketa hartu zuen etxe-andereño frantses batengandik. Honek irakatsi zion irakurtzen, idazten eta frantsesez hitz egiten. Eta irakurrarazi zizkion Corneille, Racine, Molière, La Fontaine eta halakoak. Neskato bizkorra zen. Artzain luterano eta kaperau kastrense batek, Wagner zeritzonak, osatu zituen haren ikasketak, erlijioa, geografia eta historiako klaseak emanez. Wagner horren memorien arabera, mari-mutil fama zeukan, eta ezpata maneatzen agudo eta gogoz ikasi zuen. Printzesa zen, baina ez etxe aberatsekoa. Sofiaren amak, ordea, ahaide aberatsak zituen, nobleak eta erret odolekoak. Ahaide haiei oso begiko egin zitzaion Sofia, eta halaxe hasi zen haren goranzkoa, noble hauek babestuta.

Erromatar-Germaniar Inperio Sakroan (Alemanian), baziren orduan 300dik gora entitate subirano, asko eta asko nahiko txikiak eta botere gabeak. Beti elkarren lehian, nor nori gailenduko. Sofia hain argia izanik, bere haurtzaro guztia prestatu zuten gobernari ahaltsu baten emazte izateko. Eta, jakina, etxearen posizioa hobetzeko. Hala, bere berezko alemanaz gainera, frantsesa ikasi zuen, orduko europar eliteen hizkuntza frankoa. Eta teologia luteranoa ere bai. Hitz batean, XVIII. mendeko printzesa aleman baten heziketa estandarra jaso zuen. Eta haren ibilbidea gora eta gora joan zen, Errusiako duquesa handi bat izateraino. Hemen axola ez zaigun hainbat konturen ondoren –denak goranzkoak–, 33 urterekin, Sofia Errusiako emperatriz bihurtu zen. Katalina II.a. Hori gertaera harrigarria izan bazen, ez zen gutxiago deigarri izan Sofiaren tronuratzea. Nola uste duzue? Bere senar Pedro III.a derrokatuz.

- Uf! Derrokatze horri hamaika zabor erantsio dio historiak! –erremuskatzen Katalina.
- Ez al zen egia izan? –galdetzen dut.
- Egia bai, baina nolakoa?
- Ba, konta zeuk. Niri egia bakarrik axola zait.

Nik 10 urterekin ezagutu nuen neure geroko senar eta bigarren lehengusua, Errusiako Pedro III.a izango zena. Isabel I.aren iloba. Isabelek bere gortera eraman zuen mutila, bere ondorengo izateko helburuz eta hartarako prestatzeko asmoz. Ez zuten askorik moldatu. Nazkagarria iruditu zitzaidan. Hain zeukan azal zurbila! Eta gainera, alkohol zalea. Zuk «alkoholikoa» ulertu duzu, ezta? Oraindik 12 urte nituela, ni eta nire sendia gorte handi batek errezibitu gintuen Moskun. Pentsa non nengoen, nerabezaroan sar berri! Baina nik begiak zorrotz eta luze. Hantxe ezagutu nuen Isabel I.a, Errusiako tsarina. Hark, bere umerik ez izanik, ni bere iloba Pedoren emaztetzako begiztatua nindeukan. Eta hara non ematen didaten titulu arranditsu bat: Katalina Alekseiena Dukesa Handia. Pentsatu nuen: «Nerabezaroa saltatu behar dut!». Operazioak («diplomaziak» entzun nuen gero) gutxigatik ez zuen porrot egin, gure ama Juana Isabelen interbentzioagatik. Gure ama emakume adimentsu eta anbiziotsua zen.

Emozionalki hotz eta sozialki igokari porrokatu, zalea zen gorteko intriga eta elemeleetan. Hain itsuturik zebilen ni Errusiako emperatriz egiteaz ezen Isabel tsarina erabat haserretu baitzen. Errusiatik kanporatu zuen, Prusiako erregearentzat espiatzea salatuz. Hala ere, ni beti gustatu Isabeli! Eta handik lau urtera, ezkontza ospatu zen, nik 16 urte nituela.

- Zeure memorietan idatziko zenuen –gogoratzen diot– zu gazteluaren mutur batean geratu zinela, eta Pedro beste muturrean.
- Hala ere, gertuegi zegoen!
- Noizbait elkartu beharko zenuten, ezkon itxura emateko ere.
- Neuk esateko ez da egokia –Katalinak–, baina uste dut inpotentea zela. Zortzi urteren ondoren, umerik izan gabe jarraitzen nuen.
- Eta Pedrok amorante bat hartu.
- Eta nik bat eta batzuk, gorteko figura prominenteen artean. Eta beste hainbat gizon gero, neure agintaldian zehar.
- Dedio! –hots egiten dut, ezer ez baneki bezala–. Bai agintaritza exenplarra ere, Errusia bezalako estatu hermetiko batean!
- Ni sartu nintzen, ba! –Katalinak zehar-irriz.
- Segi kontatzen. Hau entzungarri jartzen ari da. Zure senar Pedro III.a derrokatzetik abiatu gara.
- Hori ezin dut kontatu.

Ez? Neuk kontatuko dut orduan. Katalina popular egin zen bere senarraren kontra zeuden zenbait talde politikoren artean. Katalina Dashkovaren lagun egin zen, bere senarraren maitale baten ahizpa berau, zeinak Pedroren kontrako talde politiko ahaltsu batzuei aurkeztu baitzien gure Katalina. Hau, bere aldetik, tarteko ibili zen Isabel I.a tsarinaren kontrako plan militarretan, seguruenik, gerora, Pedro III.a eliminatzeako asmoz. Aldi berean, ume bat ere izan zuen, Pablo, aita nor zuen argi ez zegoena. Gure Katalinak beste ume bat ere izan zuen, Anna, 14 hilabetez bakarrik biziko zena. Hau ere ez jakin zein aitarena, Katalinaren promiskuitatea nabaria baitzen.

1762an, Isabel I.a hil zen, eta Pedro III.a enperadore bihurtu. Eta gure Katalina, emperatriz! Handik sei hilabetera, enperadore buruarinak akats politiko larri bat burutu zuen: bere guardiekin eta lagunekin, Oranienbaun-era erretiratu zen, emaztea beste jauregi batean utzita, San Petersburgotik hur. Katalinak –hauxe dun nirea!– ez zuen aukera galdu. Agintea indarrez hartu eta bere senarra derrokatzea erabaki zuen, berak zekizkien lagun (eta maitale) ahaltsuen laguntzaz. Jauregitik alde eta Ismailovsky-ko Erregimendura joan zen. Han soldaduei eskatu zien, diskurtso sutsu batean, babes zezatela bere senarrarengandik. Gero, Ismailovsky Erregimenduarekin, Semenovsky-ko Kuartelera joan zen. Han kleroa, aurretik bere alde jarria zeukana, zain zegoen bera izendatzeko errusiar tronua jabe bakar. Egina! Kuartelak gehi kleroa, emaitza segurua. Hantxe hasi zen bere benetako erreinaldia Errusiako Enperatriz bezala, Katalina II.a izenez.

- Ona, Katalina! Ona! –hots egiten dut.
- Ez dakit zer esan nahi duzun –Katalinak–. Hainbeste «on» gogoratzen ditut!
- Bat, argia. Zure enperatrizgoaren lehen ekintzan, zeure senarra atxilotzeko agindu! Hori ona baino gehiago da. Eta abdikazioa sinarazi!
- Ba, ez pentsa oztopo handirik jarri zuenik tronua uzteko –Katalinak.
- Beldurra zizulako?
- Ez dut uste beldurtzeko ere gai zenik.
- Tronu bat uzteak zerbait sentiarazi behar du, lotsa baino ez bada ere.

- Bai zera! –Katalinak burlaize gozatsuan–. Bakar-bakarrik eskatu zuen, ordainez, etxalde lasai bat, bere biolin zaharra, tabako-hornia eta Borgoinako ardoa.
- Kolpe odol gabea, beraz.
- Ardotsua! –Katalinak–. Mozkor-mozkor eginez mendekatu zen.
- Eta hartan fini?
- Handik hiru egunera hil zen, Ropsha-n.
- Hil zen ala hil zuten? –estutzen nik–. Estrangulaturik hil baitzen. Zeuk aginduta omen.
- Hori ere asmatu zuen norbaitek! –Katalinak arbuioz–. Zer premia neukan nik halako hondakin bat hiltzeko?
- Beste tronugai posible batzuenak ere agindu baitzenituen. Ivan IV.a., adibidez.
- Horiek beste morroi mota bat ziren.

«Beste mota bat» izatea nahiko arrazoi begitandu zaio. Arrazoia izango da, ze nondik tiratu ez dakidala utzi nau. Kontua da Borgoinako ardoak destino gabe gelditu zirela. Katalina eraisteko eta bere seme Pablo tronuratzeko saialdiak ere izan ziren, baina bat ere ez zen bururaino iritsi. Katalinaren segak ondo funtzionatu zuen, eta bere heriotzara arte agindu zuen, 34 urtez.

- Katalina! Behin eta berriz harritzen naiz nola iritsi zinen Errusiako enperatriza izatera, jatorriz alemana izanik.
- Orduan Errusia oso atzera zegoen europarren aldean. Miretsiak eta bekaiztuak ginen. Eta neu ere ez nintzen nornahi. Alemana etxetik nekien, frantsesa etxeko moduan ikasi nuen, eta errusiera ere menderatu nuen.
- Azentu alemana gorde zenuen, ba!
- Horrek kategoria bat eransten zuen.
- Hizkuntza batzuk eta azentua –zirikatzen dut– nahiko kreditu al ziren Errusiaren gailurra jotzeko?
- Ba, egia esan –Katalinak zabalki–, neuk ere ez dakit argi fenomenoak esplikatzen. Bakarrik dakit gertatu zela.
- Bai, bai! Gertatu zela argi dago. Eta zeure memoriak frantsesez idatzi zenituela ere bai.
- Hori ere beste kategoria bat izan zen –Katalinak– Errusiako emperatriz gorena izateko. Nik uste dut horrexegatik egin nintzela hain ospetsu.

Zaila da benetan historia ofiziala ulertzea. Pentsa! Katalina 1762an igo zen agintera. Hurrengo urtean kolono alemanak gonbidatu zituen Errusiarantz emigratzera, Volga behean kokatuz. Hantxe sortu zuten lehen herrixka, Dobrinka. Bost urtera, halako ehun herrixka izango ziren. 30.000 bizilagun aleman, lehen kolonizazio hartan. Inork ez zuen protestatu. Errusiarak orduan, hermetikoak baino gehiago, motz samarrak zirela pentsatu behar al da?

- Izan zitekeen beldurgarria zinela –erasaten diot.
- Saiatu nintzen izaten. Horregatik izan bazen, meritu bat gehiago neure alde.

Egia esan, Frantziako ilustratu handiekin ere –Motesquieu, Diderot, Voltaire, D'Alembert– harreman eta adiskidantza handia izan zuen Katalinak. Voltaire-rekin urteetako korrespondentzia luzea ere bai. Bere memorietan dio zaila zela haien ideiak Moskura inportatzea.

- Zaila zen ala atzera egin zenuen?
- Zergatik egin behar nuen atzera?
- Trebea zinela itxura bat eman eta kontrakoa egiten –diotsat zuzenean.
- Horrek akusazio bat dirudi.
- Denek diote adimen eruditua bezain engainatzaile porrokatua izan zinela.

Hori neuk dakit ondo! Grigori Potiomkin naiz, Katalinaren «amodio nagusia», berak aitortzen zuenez. Ez hainbeste niri, baina bai beste batzuei. Nik zer esan? Ba, bai. Zaldi bero bat bezalakoa zen. «Zaldi» esan dut apropos, eta ez «behor». Egia esateko, gustatzen zitzaidan, nahiz eta ez nire «amodio nagusia» esateko beste. Baina Enperatriz Handia zen. Zati handi bat, neure babes politikoagatik. Baina neu ere handiagoa nintzen haren inguruan. Eta bai. Argia eta jakinzalea zen. Eta ostentoso. Tronura igotzetik hilabete gutxira, entzun zuen frantziar gobernuak *Entziklopedia*-ren argitalpena geldiarazteko mehatxua egin zuela. Katalinak zer egingo eta Dideroti proposatu zion haren lan handia Errusian osatu ahalko zuela, bere babespean. Frantziako gobernu burgoiak laster moztu zuen bidea.

Lau urte gerora –jarraitzen Grigorik–, Katalina Ilustrazio Frantsesaren printzipioak era legegilean inkarnatzen saiatu zen. Saiakera distiratsua izan zen. Ni ez nintzen guztiz aldeko, baina distirak nor ez du liluritzen? Katalinak Moskura deitzen du Batzorde Handi bat. Baina handia gero! Ia-ia legebiltzar kontsultibo bat, 652 partaidek osatua. Futzionario, noble, burges eta baserritarren masa bat, nazionalitate ezberdinetakoa. Hura nahasmena! Batzordeak errusiar Inperioko premiak eta baliabideak aztertu behar zituen. Zenbat buru hainbat aburu, hura «zenbat bider hainbat» zen. Katalinak berak prestatu zituen «Biltzarraren orientaziorako argibideak». Nik pentsatzen nuen... Bo, ez nuen ezer pentsatzen. Berrehundik gora batzarren ondoren... Pentsa! 200 batzar bider 652 buru bider hainbat aburu = ... Buff! Batzordea hasi bezala disolbatu zen, teoriaz beste ezer lortu gabe. Funtsean, printzipio demokratikoen beldurra. Nik bai, behintzat, eta Katalinak baiago, neuk uste. Baina emaitza, ikusgarria: Katalinaren antzezpen itzela.

– Baina, Katalina! –eragozten dut–. Aurrera egin eta atzean gelditu, ezin da.

– Nik atek eta leihoak irekitzen ditut. Gero haizeak ixten baditu, nik zer egin behar dut?

Alexander Radishchev naiz. Errusiaren «mendebaltzea» ireki zen, bai, Katalina II.aren agintaldian. Liburuen eta egunkarien gehitzeak eztabaida intelektualak eta errusiar Ilustrazioari zegokion kritika soziala ekarri zituen. Hala, 1790ean, argitaratu nuen *San Petersburgotik Moskura Bidaia*. Morrontza-sistemaren eta autokraziaren aurkako eraso amorratua egin nuen. Amorrutaz bakarrik egin nezakeen hori, non nenbilen jakinda. Katalina ikaratu zen Iraultza Frantsesaz, eta ni, Radishchev ilusoa, atxilotu eta Siberiara bidali ninduen. Siberia orduan ere handia eta hotza zen gero!

– Bai, Katalina! –aurpegiratzen diot–. Iraultza Frantsesaz ikaratu zinen, baina zerbait gehiago ere bai, Frantziako Luis XVI.a hil zutenean. Zure ideiak eta bihotzak, taup-taup, norantz egin zuten orduan?

Zer salatzen zuen Radishchevek? Mirabe-morrontzaren gaineko eskubidea, zeinak permititzen baitzuen gizakien sal-erostea abereak bezala, familiak deseginez. Salatzen zituen bizi-baldintza miserableak, zigor korporalak, giza eskubide oinarritzakoen gabetia. Eta gauzen egoera hori permititzen ez ezik, hartantxe oinarritzen zen monarkia baten absolutismoa.

Katalina II.a hiltzean –Radishchev mintzo–, Errusiako Pablo I.ak, Katalinaren seme arbuaiatuak, indultatu egin ninduen, eta etxera itzuli nintzen, oso gaixorik erbesteko lazerien eta gabezien ondorioz. Baina nire ideiak ez ziren fitsik aldatu, Siberian pixka bat izoztu baziren ere. Jarraitu nuen absolutismoaren amaiera eta igualitarismoa aldarrikatzen, «Batzorde Legegilea» izenekoan partaide izanez. Nire kide asko, ez dakit gehienak, baina bai ahaltsuenak, eten gabeko karraskadan ari ziren, nire ondoan esertzea saihesterraino. Beste deserri baten azpi-mehatxuak ere jasotzen hasi nintzen eta pentsatu nuen: «Zertan ari nauk ni hemen?». Neure buruaz beste egitea erabaki zuen.

Radishchev gizagaixoa! Erabaki fatal horretantxe ere ez zuen izan zorterik. Goizeko bederatzieta pozoia irentsirik, gauean hil zen, hiltzori luze baten ondoren, dosia ondo kalkulatzeko ez asmatu izanagatik.

Ni, Aleksei Ropstov, Moskuko erret bitxigilea. Hots, bitxigile-taldearen arduraduna. Gu ginen Katalinaren buruaren apaintzaile pertsonalak. Eskusiboa. Koroak, diademak, orratzak, orraziak, apain-orraziak, tiarak, kateak, txirikordak, turbanteak, zintak, pintzak, kapelak, txanoak, adarrak... Ez! Oker nabil. Oihalezkoak ez ziren gureak. Metalak eta bitxiak bakarrik. Lepoa ere beste talde batena zen. Eta gorputza, ukitu ere ez. Belarriak buruarenak ote ziren? Ba, ez. Belarritakoak ez ziren gure zeregina. Katalinak hasieratik bezain triumfalista jarraitu zuen. Eta adi! Hasiera ez zen haize-ufada bat izan, e! Haren koronazioak Romanov dinastiaren altxorrik handienetako baten kreazioa ekarri zuen: Errusiar Koroa Inperiala. Ez zitzaigun gutxi kosta egiten! Egiten baino gehiago, behar zen moduan egiten. Zeren nola egin behar zen proportzioz, barietatez, dotoretiaz, solemnitaterik, kalifikazio loriagarri guztiekin, halako koroatzar bat, bi esfera erdik osatua, bata urrezkoa, bestea zilarrezkoa, Ekialdeko eta Mendebaldeko Erromatar Inperioko erretratuak? Eta adi! Hori ez da ezer. Koroak 75 perla eta 4.936 diamante indio dauzka, erramu eta haritz hostoekin osatuak, boterearen eta indarraren sinboloak eurok. Eta koroa errematatzen 398,62 kilateko errubi-espina bat eta diamantezko gurutz bat. Eta horiek eta beste mila xehetasun jota, azkenean... 2,3 kiloko koroa! Geroztik, Romanov enperadore guztien koronazioko koroa izan zena. Izan zena, monarkia abolitu zen arte, 1917an. Eskerrak enperadore bakoitzarentzat berria eta pertsonalizatua egin beharretik libratu ginen!

– Katalina! Zure buruak zenbat pisatzen du? –galdetzen dut.

– Ez dakit! Jakin al daiteke?

– Neuk ere ez dakit, baina horrelako koroa bat janzteko, euskarria ere astuna beharko da.

Bai, Katalina! Printzesa aleman apal bat izatetik Errusiako erpina harrapatu zenuen. Baina nolako erpina! Goian ere goiera gotor. Agintera eta inperioren gobernua iristean, arrakasta handiko jeneralen eta almiranteen laguntza zeureganatu zenuen. Zeure senar Pedro III.aren agintaldi laburrean emitituriko *Nobleziaren askatasunari buruzko agiria* izeneko berretsi zenuen. «Nobleziaren askatasuna». Giza iraultza bikaina horixe! Errusiar noble «gizajoak» liberatu zenituen derrigorrezko soldadutza militar edo estatuetatik. Eta hain klase konstruktiboa izanik, mantsio handi eta ugarien eraikuntzak Errusiaren itxura aldatu zuen. Denak zeuk onetsitako estilo klasikoan burutuak. Errusia mendebal Europaren ildotik modernizatu zenuen. Baina derrigorrezko zerbitzu militarrek eta ekonomia mirabetza-morrontzaren pean jarraitzen zuten. Errusiar gehienak soldadu edo mirabe-morroi. Hauen askatasuna hortxe amaitzen zen. Baina estatuaren eta lurrun pribatuen eskaria geroz handiagoa zen, halako gorteak eta mantsioak mantentzeko, eta ez zenuen beste erremediorik izan mirabe eta morroien lanaren esplotazioa areago zorrotzen joan zedin uztea baizik. Zuk emandako askatasunari esker, nobleak klase pribilegiatu bezala finkaturik gelditu ziren. Eta errusiar autokraziaren zerbitzari zuzeneko bezala. Alegia, zeure zerbitzari.

Hori eta norabide bereko beste neurri batzuk bide zirela, hainbat errebelio sortu zen Errusia handian zehar. Yemelian Pugachov naiz. Kosakoa naiz. Historiak garaiko sublebaziorik ospetsuenari nire izena eman dio. 1773an, Errusia guztia airean jarri genuen. Katalina! Kosakook daramagun odolaren osagai basatitiki, zure autoritatea ukatzen dut. Ikusten duzu errusiar estatu zentralizatuaren zama sentitzen duten hainbat komunitate eta etniek, Ural Mendietako langile industrialek eta mirebetza-morrontzatik libratzea itxaroten duten baserritarrek, denok bat egin dugula errebelio masibo batean.

Errebelioa, bai! Zurekin ez dago beste irtenbiderik. Esango duzu zure errejimen inperialaren ardura nagusia Turkiaren aurkako gerra dela eta horixe baliatu dugula zu oinatz-kontra harrapatzeko, eta bai. Hori ere egia da, ze zuri aurre egiteko, zirkustantzia asko behar baitira alde.

Eta Pugachoven errebeldeek Volga ibaiaren ibarreko lurralde handi bat kontrolatu zuten. Azkenean, baina ... Azkenean, hainbeste zirkunstantziaren artean, beti gertatzen da baten bat okerra. Armada erregularrak ferozki menperatu zuen errebelioa, 1774an. Urtebete iraun zuen itxaropenak. Ez da gutxi. Pugachov exekutatua izan zen.

Ez dela gutxi? –galdetzen du Katalinak–. Ni ez naiz kosakoa, baina bai, beharbada, zuena baino odol gaziagokoa. Pugachoven sublebazioak asko pentsarazi eta, batez ere, asko irakatsi zidan Errusiaren adimintrazio probintzialaz. Hau berrantolatu egin behar da. Errusia handiegia da, guztia Moskutik kontrolatzeko.

Eta Katalinak probintzia eta barrutietan banatu zuen Errusia, populazio estatistiken arabera. Probintzia bakoitzari administrazio zabal bat, polizi destakamentuak eta aparatu judizial bat eman zizkion. Noble askok eginkizun garrantzitsuak hartu zituzten gobernu probintzietan. Horrela, autoritate inperialak postu nagusiak konfiantzazko aristokraten esku utzi zituen. Hauek, tsarinaren esaneko –eta honen faboreen hartzaile–, botere zentrala iristea segurtatzen zuten Inperioaren zoko guztietara. Lehendik itomena zabaldua bazen, orain asfixia zabalduta zen Errusia guztira.

– «Asfixia» diozue? –Katalinak–. Oraintxe emango dizkizuet arnasbideak.

Eta Katalinak Errusiaren espansionismoa bortizki garatu zuen, eta Errusiar Inperioa azkarki handitu zen. Diplomaziaz ezin bazen, konkistaz. Hegoarantz, Krimeako Kanatoa anexatu zuen. Aldi berean, Errusia Berriko lurraldeak kolonizatu zituen Itsaso Beltzaren eta Azov itsasoaren kostetan. Mendebaldean, Poloniak eta Lituaniak osatzen zuten Mankomunitatea Katalinaren antzinako amorante batek gobernatu zegoen. Beste beroaldi kontzertatu bat: lurraldea bi zati egin eta Errusiar Inperioak zatirik handiena beregaindu. Ekialdean zer dago? Errusiarrek ez al ziren izan lehen europarrak Alaska kolonizatzen? Ba, aurrera Errusiar Amerika! Horrela, bai iparrerantz, bai hegoarantz, bai mendebalderantz eta bai ekialderantz, Errusia, lehen izugarria bazen, orain askoz handiago eta gailenago bihurtu zen, Europako goi estatuen pare. Horrek guztiak Inperioaren handitzea ekarri zuen, baina bai liskar ugari ere, hainbeste etnia ezberdin batera absorbituz: ukrainarrak, bielorrusiarrek, juduak, polakoak... Sublebazio ugari han-hemen, baina azkenean, Inperioa beti garaile. Eta zigortzaile gupidagabe. Eta mirabe-morrontzaren sistema esplotatzailea askoz itoago, elite nobleen eta estatuen zerbitzari.

– Harro egongo zara, ezta? –diotsat bekaineekin bere begiak tentatuz.

– Zertaz zehazten baduzu, mintza gaitezke arrazoiez.

– Hartu zenuen baino inperio askoz handiagoa utzi zenuen –zehazten dut arrazoi tonto batekin.

– Hori ez da harrotzekoa. Hori neure eginbeharra zen.

– Inperio bat «handitzea» eginbeharra al da? –galdetzen dut intentzio argiagor.

– Beharra, beharra... Naturala!

– A! Hori ulertzen dut! –atzeratzen naiz, hertuz bezala–. Horregatik suntsitu behar izan zenuen hainbeste gerra eta errebelio.

– Eta onena badakizu zer? –Katalinak gogoz–. Inperio otomanoa bere penintsulara baztertzea lortu nuen, gerra gehiagotarako adore gabe.

– Hori harro tonuan esan duzu.

– Ba, bai! Ez naiz sentimendu handietako emakumea, baina dauzkadanak agertzeko lotsarik ez daukat.

Katalina Dashkova naiz. Katalinaren senarraren maitalearen ahizpa. Lagun egin ginen. Min-min, ez. Katalinak ez zuen sentimendu hurbilegirik onartzen. Eta ondo egiten zuen. Nik esango nuke ez zela «harroa». Harena urguilua zen. Uргуилу mentala. Hark sustaturiko mezenasgoak arteen eboluziorik handiena ekarri zuen Errusian, bere aurreko zein ondorengo edozein subiranok ez bestekoa. Ilustrazioaren idealetara afiliatu zen eta bere burua jo zuen nola «filosofo bat tronuan». Bere atzerri-irudiaz ardura handia izan zuen, eta gogoz bilatu zuen Europan kontsideratua izatea monarka ilustratu eta zibilizatu bat bezala. Nahiz eta Errusian, sarritan, tirana-papera jokatu. Hori ere beharrezko baita tsarina batengan. Eta bai. Nahiz eta askatasun eta berdintasun idealen maitasuna aldarrikatu, mirabe-morroiak euren lurrera eta euren jaunengana lotzeko gehiago egin zuen aurreko beste edozein subiranok baino.

Eskerrik asko, Dashkova, zure iritzi kortesanoengatik, baina Voltaire naiz. Katalina arteen, literaturaren eta hezkuntzaren mezenas bat izan zen. Hermitage Museo bikaina fundatu zuen, bere arte-bilduma bikainarekin. Beste europar gorte batzuen pareko edo gainekei ondare artistiko bat biltzeko, dirutza izugarriak xahutu zituen, ehunka pintura eta eskultura erosiz. Batzuetan, Frantziako eta Ingalaterrako nobleen eta magnateen bilduma osoak. Smolny Institutu ospetsua fundatu zuen dama gazte nobleentzat.

– Baina, Voltaire! –diotsat–. Montesquieuren ideiekin kode bat sortzeko saiakeran porrot egin zuen. Hori ere esan ezazu!

– Ondo dago. Onartzen dut.

– Baina esan, batez ere, zergatik.

– Ez dakit. Ezin dizut esan –Voltairek.

– Ez al dakizu nekazariekin liskar handi bat bizi izan zuela, jendeak jasaten zuen egoera sozial negargarria zela eta?

– Izan daiteke. Niri ez zidan horrelakorik esaten –Voltairek.

– Ez al zizun esan bere bizitzako amodio nagusia Grigori Potiomkin printzea eta militarra izan zela?

– Niri kontu horiek ez zaizkit interesatzen.

Nik badakit zer bait. Diderot naiz. Gutun-harreman luzea izan genuen, batez ere berak niri. Bere agintaldi luzean, Katalinak amorante ugari izan zuen. Gainera, oso eskuzabal agertu zen beti amoranteekin. Nondik ere bazuen, noski, eta bere faborito ziren bitartean, goi titulueta igoen zituen. Erromantze soil baten ondoren ere, ondasun handiak ematen zizkien lurretan eta morroietan. Neu ere eramane nahi izan ninduen Moskura, baina ez dut uste amorante moduan. Nirekin erromantze «entziklopedikoa» nahi zuen. Ez nion ulertu zer esan nahi zuen, eta nik galdetu ere ez, ze esplikazioak ematen nahiko erretorikoa zen. Hori bai. Bere azken amoranteak, bera baino 40 urte gazteago zen Platon Zukov printzeak, badakit, igarri egiten baitzitzaion, buruhauste handiak ekarri zizkiola, kapritxosoa eta estrabagantea zelako. Nik uste dut Katalinak pelutxe bat bezala hartzen zuela, baina pelutxe urtikantea zen, nonbait .

«Amorante ugari». Diderotek hau ezin zuen jakin, baina Katalina hil eta urteetara, Errusian zabaldu zen haren heriotzaren bertsio brutal bat: Katalina hil zela zaldi batek penetratua izateko saiakeran. Hori ez, Katalina! Hori ez dut neuk ere sinesten. Ezin dut sinetsi Errusia Sobietikoak zabaldu zuen infamia hori. Ez gauza ez zinelako, baizik hain deprabatu ez zinelako, maila horretan. Bai jakin zuen Diderotek, edo jakin zezakeen, zutaz nolako ofizioaren esamoldea zabaldu zen: «Amoranteen dastatzailea». Ez diot galdetuko Katalinari berari, bai baitakit erantzungo lukeela hori meritu handi bat dela bere alde.

– Katalina! –diotsat–. Barka, baina ezin dut utzi gauza itsusi samar bat aipatu gabe.

Zure lehenseme Pablarekin harrigarri gogor jokatu zenuen.

– Pablo ez zen nire senarraren semea –argitzen du Katalinak–, nire lehen amorante Serguei Saltykovena baizik.
 – Uu! Mutilak, fisikoki, Pedro III.aren antza zeukan. Naturaren aurka ezin duzu irabazi.
 – Antzak bizitzan hartzen diren ezaugarriak dira –Katalinak berean.
 – Kontua da zure semea bazela, behintzat, eta zure asmoa zela hura ondorengotzatik kentzea.
 – Nire asmoa zen –Katalinak– koroa neure birloba nagusi Alexanderrri pasatzea. Odolaren barruan geratzen zen titulua.
 – Eta horretarako, ama batek bere semea erdi-deserrian eduki Gatchinan eta Pavlovsk-en, bere autoritateaz eztabaidarik ez permititzeko inon?
 – Hura oso ondo egon zen egon zen lekuan –baiezten irmoki Katalinak.
 – Ondoegi ere bai, antza, ze, zu hiltzean, bera jarri zen enperadore, Pablo I.a izenez. Azken bataila galduta sartu zinen eternitatean.
 – Ondo nago nagoen lekuan.
 Katalina 1796ko azaroaren 5ean hil zen. Ehortzia izan zen, buruan zuela urrezko koroa bat eta gorputzean zilar-brokatuzko soineko bat. Bere gorpuzkiak San Petersburgoko San Pedro eta San Pablaren katedralean daude. Beude!
 – Katalina! –dei egiten diot–. Irten zaitez une batez eternitatetik.
 – Hizketan ez al ginen ari?
 – Neu jaitsi naiz zuregana. Orain igo zaitez denborara.
 – Zertarako?
 – Neuk bidaltzeko zu bueltan.
 – Zuk ni zer?
 – Neuk hil zu.
 – Hilda nago barren! –Katalinak, karkaila gangarrez.
 – Ez behar bezala. Neuk hil behar zaitut! –hots egiten diot belarrira.
 – Zergatik?
 – Neuk ere badakidalako hiltzaile izaten.
 – Zoratuta zaude!
 – Katalina! Zure memoria hil behar dut –xuxurlatzen diot beste belarrira.
 – Uhuhu! –purrustatzen da–. Nire memoria historia guztietan eta museo handietan dago.
 – Segi egoten, baina horietatik kanpora, zu izango zara, aurrerantzean, Gizadiaren Historia Kriminalaren figurarik handienetakoa.

ARTHUR INGEL

– Ni, Arthur Ingel, unibertso guztian.

– Izango duzu beste graziaren bat, hain zabalero handian.

– Pax Britannica. Historiako inperiorik handiena. Zer behar da gehiago?

Gutxiago ere ez. 35 milioi km², eta mundu osoko populazioaren laurden bat. Beste era batera esanda, Inperio Britanikoa, munduaren historiako kolonia-kopuru handiena eduki duena: 120. Frantziaren aurretik. Honek, 80.

– Beste era batera nahi al duzu? –Arthur Ingelek.

– Bai, gauza berdina ez bada.

– Ba, begira! Gaur egungo munduko mugak, %50etik gora, inperialismo britaniko eta frantsesaren emaitzak bezala ezarri ziren. Beste gauza ezberdin bat: Ozeano Atlantikoan, 1600 eta 1885 artean, esklaboen salerosiaren %36a Inperio Britanikoak maneiatu zuen. Frantziak %30a bakarrik.

– Horrek harrotu egiten al zaitu? –galdetzen dut ziriaan.

– Zergatik ez? –Arthurrek freskura betean-. Munduko laterrien %90ek, euren historiako uneren batean, inbasio britaniko bat pairatu behar izan dute. 22 bakarrik libratu ziren britainiarren igurtzitik.

– Kopuru horiek harrotzea baino gehiago merezi dute. Nola iritsi zineten hainbesteko tamainara?

Uharte bat izateak –Arthur Ingel mintzo– abantaila handiak ditu. Tartean, biztanle kontinentalen inkonprentsioa. Ezin diogu utzi originalak izateari. Kasu honetan, gure originaltasuna errealismo soil bat da. Gure inperioak mundu guztian zabaldu zuen teknologia, komertzioa, ingeles hizkuntza eta gobernu britanikoa. Gure nagusitasun inperialak Erresuma Batuaren hazkunde ekonomiko ikusgarria ekarri zuen, eta gure interesen pisua erabat nagusitu zen mundu zabal guztian.

– Zabaltasun horren protagonista nagusiak esklaboak izango ziren.

– Dударik gabe! Oinarritzko protagonistak.

– Esklabo haiek arimadunak al ziren?

– Zertara dator arima kontua auzi komertzial batean? –Arthurrek akusazio airean.

– Gizakiak al ziren?

– Bonoboak ez ziren.

– Eskerrak! Eta ematen zitzaien tratua?

– Bizibide bat ematen zitzaien. Euren sorlekuak ere gosea hobeto banatzeko moduan uzten genituen.

Gosea aberastasun bat zenean. Inperio britanikoaren hasiera jo daiteke Ingalaterra itsasoz haraindiko jardun efektiboan abiatu zenean, 1485etik aurrerantz. Zehazki, Enrike VII.ak itsas politika abiatu zuenean. Ezta, Arthur? Han dago zuen erregea, artilearen komertziorako lineak irekitzen, ontzidi merkante ingeleserako sistema moderno bat ezarri. Horrek uharteko ontziolen eta nabigazioaren hazkunde handia ekarriko zuen. Ontzidi merkanteak oinarri sendoak emango zituen erakunde salerosleentzat.

– Zuzen ari al naiz, Arthur?

– Aurrera! Okerrik bada, moztuko zaitut.

Erakunde horiek oso garrantzitsuak izango ziren etorkizuneko ibilbide inperialean, hala nola Massachusetts Bay Company edo British East India Company. Gero, Enrike VIII.ak Royal Navy sortuko zuen. Beronek fundatu zuen Itsas Armada Britanikoa ere. Gerra-ontziak, portuak, kaiak eta faroak nonahi, eta artillerian aurrerapen handiak.

Hitz batean, inperioa zabaltzeko itsas baliabide guztiak, bitartean akabatu behar zirenak akabatuz. (Baieztapen hau ez dit moztu, eta egia izango da). Enrike VIII.a. Hura morroia! Animalia oldarkor bat, amodioak barne. Zineak eta antzerkiak erantsi dizkion ezaugarriak baino askoz gehiago.

– Eta zu, Arthur –jaukitzen diot–, pozik dena gainbegiratzen. Ingalaterra munduaz jabetzen!

– Ez al da poztekoa?

– «Portuak, kaiak eta faroak nonahi», baina nola egiten da hori hain toki eta zibilizazio ezberdinetan?

– Gradazio egoki bat aplikatzea da kontua.

– Gradazioa... Ez dit ezer argitzen.

– Bai! –Arthur Ingel goitasun britanikoz mintzo–. Bost maila dira. Esku bateko hatzekin gogoratzeko moduan. Sedukzioa, engainua, sobornoa, mehatxua, indar erakusketa.

– Ea ondo interpretatzen dudan –saiatzen naiz–. Bazoaz itsas zoko ustez egoki batera eta hasten zara hau eta hori eta bestea kontatzen, eurek ez dauzkaten gauzak erakusten, eta hango jendea txunditzen. Hori, sedukzioa. Engainua ez dut hain ondo ulertzen.

– O! Engainua zientzia bat da. Era asko daude engainatzeko. Promesak, truke onuragarriak, erromantze simulatuak... Bo! Ez naiz hasiko demonioa baino zaharragoa den teknika bat azaltzen.

– Ondo dago. Zerbait ulertu dudala uste dut. Sobornoa ere baietz esango nuke, nahiz eta ezagutzen ez den bazter urrun batean...

– Bai, gizon! –berriz ere goitasuna–. Ez dago bazterrik, nola edo hala hierarkizatua ez denik. Denean daude jefek edo jefetxoak, edo itzal sozial bat daukatenak. Hauek desiatzen daude sobornatuak izateko.

– Mehatxua ere ulertzen dut. Argiegi ulertzen ez dudana da indar erakusketa. Zer da hori? Dinbi danba pun?

– Ez! Erakutsi bakarrik. Hartzen duzu natibo-aldra bat –Arthurrek aire didaktikoan–, buruzagiak tartean direla, sartzen dituzu gerra-ontzi batera, erakusten diezu armamentu guztia, eta... Bai! Pare bat danbarrada, kanoi-zulo batetik, eta zinkuririk ere ez duzu entzungo. Hilda bezala guztiak.

– Eta «erakusketa» noiz bihurtzen da «erabilera»?

– Behar denean. Egia esan, nahiko maiz. Baina hori ez da bost hatzetan sartzen.

Arthur patxada britaniko osoan gelditu da.

Isabel I.aren erreginaldiaren parte bat, 1577-1590, aberastasun handiko aroa izan zen, non zimendatu baitziren Inperio Britanikoaren hastapenak. Ingalaterrak bere itsasoz haraindiko hedapena hasi zuen John Hawkinsekin, eta gero, Francis Drakerekin. Drakek munduari bira eman zion. Bera izan zen hirugarrena, Magallanes eta Elkanoren espedizioaren ondoren. Ipar Kaliforniako tokiren batean atrakatu zuen, eta Ingeles Koroarentzat erreklamatu zuen Nova Albion deitu zuena (Ingalaterra Berria).

– John Dee izeneko Isabelen kontsultore pertsonala izan ei zen lehen aldiz erabili zuena «Inperio Britaniko» terminoa. Horrek esan nahi du, Arthur, hain izen zehatza jartzeko, errealitatea ere nahiko eraturik zegoela.

– Jakina! –berresten Arthurrek–. Nola ipiniko diozu izena ez den gauza bati?

– Nahi dena izan daiteke.

– Nahi dena ez da ukigarri. Ingelesok beti izan gara enpirikoak, eta ez Europako intelektualak bezalako metafisiko hutsalak.

– Zer esan nahi duzu «metafisiko hutsalekin»? –galdetzen dut, neu ere aluditua sentituz.

– Ba, hitzak hitzen gainean, batak bestea ezkutatzeko. Tunelean argitasun txiki bat urrunean begiztatzenean, atzerantz biratu eta hitzak hitzekin iluntzen jarraitu.

Konparazioa asimilatzen tardatu dut. Bitartean, Espainiako errege Felipe II.a Ingalaterraren inbasioa prestatzen, bere Armada Garaiezinarekin. Ingalaterrako Isabelek ere bere ontzidia indartzen du, eta azkenean, «garaiezina» garaiturik gertatzen da. Baina zuk, Arthur, ez didazu esan Hawkins eta Drake piratak zirenik, zuen Isabel I.ak finantzaturiko espedizioetan.

– Esan beharra al neukan? –barre Arthurrek–. A zer inperio txatxua, gerra-taktikak publikatzen hasten bagara!

Espainiaren ertsagoak ez ziren amaitu «garaiezinaren» porrotean. Ingalaterrak ere kontra-armada bat antolatu zuen, baina oraingoan derrotatua izan zen. Espainiak itsasoetako inperio dominantea izaten jarraitu zuen, harik eta, 1604an, Ingalaterrako Jakobo I.ak Londresko Ituna negoziatu zuen arte. Hantxe amaitu ziren Espainiaren ertsagoak, eta Ingalaterrak lehen asentamendua ezarri zuen Jamestownen (Birjinia), 1607an. Orduantxe hasi zen Inperio Britainikoa itxura global bat hartzen, Ipar Amerikan 13 kolonia sortuz. Estatu Batuen jatorria. Berdin Kanadako itsas probintzietan. Karibeko uharte txikien kolonizazioa ere abiatu zen, nola Jamaika eta Barbados. Karibeko koloniak, azukre-emaileak, koloniarik garrantzitsuen eta emankorrenak ziren Ingalaterrarentzat. Bertan esklabotza bilakatu zen ekonomiaren oinarri. Amerikar koloniek tabakoa, kotoia eta arroza ekoizten zuten hegoin, eta ontzigitzarako materiala eta animalien larreak iparretan.

– Azkarregi goaz, Arthur! «Sortu zuten», «abiatu zen», «bilakatu zen», «ekoizten zuten»... Horrela beste gabe? Gorago aipatu bost hatzen gradaziorik ez dut ikusten hor.

– Ez zegoen astirik eskala osoa korritzeko.

– Ala lehen-lehenik indarrez hastea izan al zen efektiboena?

– Hori ere zergatik ez? –Arthurrek sorbaldak jasoz–. Ibaiak indarra hartzen duenean, ez da arduratzen hegalei azkura egiten.

– Gerren eta kolonien bitartez, Inperio Britainikoa Amerikan zabaltzen zihoan.

Adibidez, New Amsterdam kontrolatzea lortuz, gero New York izango zena. Eta dena azkar. Akabatu behar zena akabatuz?

– Frantsesak ere harrapaketa bizian ari baitziren. (Eskola-umeen arrazoiak).

– Zenbat indio eta natibo ezabatu zenituzten?

– Buf! Ez ginen arduratzen kontaduriaz –Arthurrek–. Ezingo ziren kontatu ere, ze hartzek, saiek, koioteek eta hango piztia ustel-jale eta hezur-jale ugariak amen batean garbitzen zuten zelaia. (Arrazoi horixe inoiz ez zait bururatu). Premia gabe ere hil behar izaten ziren indioak, bestela piztiak geure gainera baitzetozen. (Arrazoi hau harrapatzeko, zerbait pentsatu behar da).

– Hori guztia alegia inperial bat iruditzen zait, gerrak literaturan kamuflatzeko. (Neuk ere ez dut argi ulertzen zer esan dudan).

– Horretan ere jakin behar baita! –Arthurrek–. Ez al duzu inoiz entzun gerra arte bat dela?

– Entzuna dut, bai, astakeria hori ere.

– Ba, nik esango dizut arte gorena dela.

– Ondo, ondo! Ez zehaztu, mesedez.

Orain Ozeaniara. Neurtu al zenuen, Arthur, zenbateko bidea zegoen Kanadatik Australiara? Hemen naizelakoan han, gaur New Yorken, bihar Melbournen. Horrela zenbiltzaten munduan? Ba, bai. Horrelaxe zebiltzan, balkoitik balkoira bezala. James Cook-ek Australiaren eki itsasertza esploratu zuen, Ozeano Barera bidaia zientifikoa batean.

Eta hara! Deskribapen zientifikoen artean, kontinentea Britainia Handiarentzat berretsi zuen, eta izena ere etxe-etxekoa jarri: Hegoako Gales Berri. Cooken bidaia-lagun Joseph Banks botanikariak gobernuari aurkeztu zion txostenean, kolonia hura presondegi bat ezartzeko egokitzat gomendatu zuen. Eta egina! 1787an, kondenatuen lehen espedizioa bidali zuten, eta 1788an iritsi. Denak bizirik? Zaila. Britainia Handiak jarraitu zuen kondenatuak bidaltzen Hegoako Gales Berrira. Familiak bisitan joateko moduan!

Zelanda Berri ere konkistatu zuten eta eremu berri bat sortu bertan, britainiar irletatik migrazioarako. Hala, hango populazio indigenek gerrak pairatu zituzten, eta ia okerrago zena, gaixotasunak. Mende bat baino gutxiagoan, indigenen kopurua %70 jaitsi zen. Han ere beharko ziren, Arthur, piztia ustel-jaleak eta hezur-jaleak. Kontua da Zelanda Berriko eta Australiako koloniak artilearen eta urrearen esportatzaile emankor bihurtu zirela. Eta Melbourne, munduko hiririk aberatsena. Eta hiririk handiena Inperio britanikoan, Londresen ondoren. Esplorazio zientifikoan joan, eta begira!

– Zenbat natibo aberastu ziren, Arthur?

– Ezin ziren kontatu ere.

– Hainbeste?

– Bat ere ez.

Amerika handia zen eta urrun zegoen. Antzinako sistema kolonial britanikoa beherantz hasi zen. Amerikako kolonoak oilartzen hasi ziren, errebelatzen ere bai, eta errematea izan zen Ingalaterra zergak igotzen saiatzea ipar amerikar kolonietan. Horrek Independentziaren Gerra ekarri zuen, non europar inperio kolonial guztiak sartu baitziren, batzuk errebeldeei lagunduz, agerian edo ezkutuan. Bataila luze eta gurutzatuen ondoren, azkenean ipar amerikar koloniek independentzia lortu zuten, Ipar Amerikar Estatu Batuen sorrera abiatuz. Ingalaterrak inperioaren zati handi bat galdu zuen.

– Ez zara gauza guztiak zuzen kontatzen ari –Arthur Ingelek–. Ingalaterrari inperio zati handi bat galtzeak abantaila ekonomiko handiak ekarri zizkion, ze aurrerantzean, batetik, bere kolonia ohiekiko komertzioa kontrolatzen jarraitu zuen, eta bestetik, ez zeukan ezer ordaindu beharrik haien defentsan eta administrazioan. Esperientzia horrek kolonia auto-gobernatuen hedapena ekarri zuen. Hala, adibidez, zuriek populaturiko koloniak, Kanadan eta Australasian. Irlanda, oster, Ingalaterratik ber-bertan egonik, inkorporatua izan zen Britainia Handiaren eta Irlandaren Erreinu Batura. Eta Britainia Handiak munduko %30eko komertzioa maneiatzen jarraitu zuen. Hori galtzea al da? Arthur Ingelek esku biek bere paparra seinalatzen duenean, haizeari «hator!» esanez bezala, ulertu behar da segurantzaren inperialaren benetako erakustaldia dela.

– Handikeria britanikoaren adibide garbia da –jaulkitzen diot– porrot bat garaipen bezala saltzea.

– Amerikako Estatu Batuak zer izan ziren, ba, Britainia Handiaren hedapen bat besterik?

– Ulertzen dut zerbait, baina zure interpretazioa lelokeria bat da –diot irain tonu argian.

– Orduan ez duzu atzeman dohain ingelesaren gakoa –Arthurrek.

– Azaltzen badidazu atzemateko moduan...

– Ingelesen dohaina da gerra galduetan ere irabazle ateratzea.

– Hara! Horregatik izango da... Egia esateko, ez dakit zer izango den.

Uste dut badakidala. Arthur Ingel! Ezagutzen *British East India Company*? Gainean ez bada, azpian ibili zinen. Ezagutzen Plasseyko bataila, 1757an? Irabazi zenuten. Eta Bengalako indiar probintzia domeinu britanikora erori zen. Eta hurrengo mendean, hemeretzigarren, India osora hedatu zen Konpainiaren kontrola.

1842an, Konpainiaren indar anglo-indiar bat guztiz suntsitua izan zen Gandamak-eko batailan, Afganistanen. Handik bost urtera, zipaioen matxinadaren ondoren, Konpainiaren lurraldeak Koroa Britainikoaren administrazioaren mende egotera pasatu ziren. Viktoria Erregina (1837-1901) Britainiar Indiako Enperatriz proklamaturia izan zen, 1876an.

- Eta zuk, Viktoria, merezimendu handi bat bezala onartu –aurpegiratzen diot.
- Zerbait txarra egin al nuen? –Viktoria Erreginak.
- Zerbait urruna esango nuke. Ba al dakizu Londrestik non dagoen India?
- Hego muturra askoz hurrago iparrekoa baino. Itsasoak dena batzen du. –Arrazoi bat izan daiteke.
- Ados. Itsasoa, zeurea! –onartzen dut, ea noraino iristen garen.
- Horrek balio izan zuen bai Indiarako, bai Zeilan (Sri Lanka), Birmania, Malasia, Hong Kong, Txinako Inperio zati bat eta Asiako hainbat lurralde...
- Bai, bai! Eta arestian aipatu New Zelanda eta Australiako eki itsasertza, eta Melbourne eta abar. Horiek neuk ere konta ditzaket. Jakin nahi nuena zen ea kontzientziak ondo hartu zizun Indiako Erregina izatea.
- Zergatik hartu behar zidan txarto?

Orain neu geratu naiz airean. Ez dago gurpil zoroa pitzatzerik. Abiapuntura itzuli gara. Opio-Gerrak ere izan baitziren, sinestekoa da Viktoria Erregina opiaturik egotea. «Aro Viktorianoa». Aro opiatua. Denak opiatuak. Gertatzen dena, Arthur, «Bake Britainikoa», betiko izango zela uste izan zenutena, kraskatzen hasi zela. Lehen laterri industrializatua izatean, irisgarri zen mundu guztian lortu zenituzten lehengaiak eta merkatua. XIX. mendean, egoera apurka-apurka ziraldoka hasi zen, beste potentzia batzuk ere hasi zirelako industrializatzen eta estatuaren makineria erabiltzen, merkatuak eta horni-iturriak garantizatzeke. Benetako konpetentzia etorri zitzaizuen. Inperio Alemanaren eta Estatu Batuen industrializazioa fite aurreratu zen, kapitalismo «zaharraren» eredu britanikoa eta frantsesa garaituz. Erresuma Batuen proportzioa, munduko merkataritzan, txikitzen hasi zen, ez bakarrik industrializatzen ari ziren laterrietan, baizik baita hirugarren laterri gutxiago garatueta merkatuen lehian ere. Jarraitzen didazu? Ez oso gogotsu, nonbait.

Ondorengoa gusturago entzungo duzu, Arthur. Afrika bilakatu zen zuen eta beste hedapen inperialista «berrien» helburu nagusi. 1875ean, Etiopia eta Liberia bakarrik gelditzen ziren europar kontroletik at. Eta, noski, europar potentzien artean, gehi Estatu Batuak eta Japonia, eten gabeko lehia eta gerrak izan ziren, lurralde haien dominazio ekonomiko eta kontrol direktorako. Kontua da Erresuma Batua nahiko garaile atera zela lehia inperialista horretan. 1885etik lehen mundu gerrara bitartean, Erresuma Batuak bere kontrolpean zeukan afrikar populazioaren %30a. Frantziak gutxiago, Alemaniak eta Belgikak askoz gutxiago, eta Italiak %1 bakarrik. Populazioaren kontrolak esan nahi zuen, batez ere, esku-lanaren, lehengaien eta aberastasunen ustiapena.

Eta ustiapenak, oraingoan, hitz-joko erraz baten egia beltza zekarren: «hustu». Lurralde amaigabe haiek bertatik eraman edo bertan baliatu zitekeen guztitik «hustu». Zorionak, Arthur Ingel! Britainia Handiaren pragmatismo proberbialaren helburua hori bazen, mukuru bete zenuten. Hasi Afrikako zuen lurraldeen zerrenda irakurtzen, eta begira: Kamerun, Gambia, Maurizio, Kenia, Nigeria eta... Hogeita bost! Zuentzat koloniak ezartzea pertzebetan joatea bezala zen. Buru-keinu bat berak, konparazioari doi-doia iritziz bezala.

- Arthur! Amaitzea erabaki dut.
- Onenean amaitu?

- Onenean, hain zuzen! Badakit dekadentziak oso behera ekarri zintuztela, baina ez dut amaitu nahi errukian. Gorenean akabatu nahi zaitut.
- Amaitu, akabatu... Zer duk egin nahi duana? –Arthurrek, bekoskoa sakon zimurtuz.
- Hil egin behar zaitut!
- Hil ni? Zergatik?
- Neuk ere badakidalako hiltzaile izaten.
- Hilda nengoan barren!
- Ez, Arthur! Neuk hilko zaitut. Hots, neuk hilko dut zure memoria abominablea.
- Aaaa! Hori al zuan guztia? Uste diat inperioa desmuntatzea baino gehiago kosta behar zaiala.
 - Ez, Arthur! Inperioa nire ahaletik at dago, baina zu hemen zaude. Aurrerantzean, zu izango zara hasieran aipatu duzun unibertsoa kriminalik handienetakoa.

HISTORIALARI, PENTSALARI ETA LARI GUZTIAK

Fikzio bat: *Historia idazten da gaizki gertatua ez errepikatzeko.*

Egia: *Historia idatzi da errepikatzen jarraitu ahal izateko moduan.*

Zuek ere harrapatuko zaituztet. Pentsatuko dut nola.